

# ISILIK.

pedagogi aldizkaria


2.alea 1983 martxoa

200 pzta

haurra eta sexualitatea

estataletako borroka

elbira zipitria



C. FREINET



**BILINTX**  
**LIBURUDENDA**

**EUSKAL KULTURGINTZA, S. A.**

Fermín Calbetón, 30 - tel. 420930

Esterlines, 10 - tel. 420224

DONOSTIA - 3

**Fermin Calbeton 30ean,** euskal liburu eta diska guztiak  
aurkituko dituzue.

**Esterlines 10ean,**

Pedagogia, Psikologia, Ekonomia,  
Literatura, eta abar....., aurkituko dituzue.

**elkar** s.a.

**EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S.A**

Esterlines, 10  
Telef. 426319  
DONOSTIA-3

Haur eta gazteentzako liburu eta ipuin aukera ugaria.  
AXUT, PERKAX, ITZUL, SOR, eta abar....



**Argitaratzaile:**  
G.I.L.E.

**Egileak:**  
Irakasle, guraso,  
sikologo, pedagogo  
eta beste.

**Diseinugile:**  
Mikel Mendizabal.

**Inprimaketa:**  
TXUBILLO - Donostia.


**Konposaketa:**  
EGIA - Donostia.

**Dep. Leg.:**  
S.S. 509/82

**GIPUZKOAKO  
IKASTOLETAKO  
IRAKASLE  
ELKARTEAren  
ardurapean.**

**Oharrak:**  
Idazlanak bidali nahi  
dituenak jo beza  
helbide honetara:  
Plz. Amezketan, 12 - 8a F  
Donostia  
Tfnoa: 455100-22

**IRAKASLE ELKARTEA  
EZ DA HEMEN  
AZALDUTAKO  
ERITZIEN ARDURADUN  
EGITEN.**



VK 5888  
UR-029/8 1

SARRERA .....	2
HAURRA ETA SEKSUALITATEA .....	4
ZER DA PLASTIKA .....	8
<b>FREINET .....</b>	<b>14</b>
ELKARLANA PEDAGOGI BEZALA .....	17
ETORKIZUNERAKO PEDAGOGIA .....	19
BIBLIOGRAFIA .....	21
I.T.E. AHALMENAK LANTZEKO PROGRAMAGINTZA .....	23
I.T.E. ESKEMA OROKORRAREN ADIERAZPENA .....	25
I.T.E. "INSTITUTO DE TECNICAS EDUCATIVAS" .....	27
HEUREN PARTEHARTZEAZ, GURASOAK MINTZO .....	36
<b>ELBIRA ZIPITRIA ITZALI ZAIGU, BAINA .....</b>	<b>44</b>
O.H.O. ESTATALETAKO GREBAREN KRONIKA .....	47
ALBISTE OFIZIALAK .....	49

*"Tabarra" ematen jarraitzea agintzen genizuen aurreko alean, eta hemen gatozkizue agindua bete-tzearen egindako ahaleginen ondorioak aurkeztu asmoz.*

*Iragana joana, oraina suposatzen edo suposatu nahi duen lanez osatu nahi izan dugu gure aldizkari honen bigarren alea. Hori baita, izan ere, gure asmo eta itxaropena: irakaskuntza gaur, eta hemen, kezkatzen duen orori aberasgarri eta komunikagarri gerta dakizkiokeen lan, eritzi, teoria eta esperientziak argitara ematea. Zuek esan beharko diguzue asmatu dugun ala ez. Zuen eritzien arabera zuzenduko ditugu urratsak. Zuen kritikak eta denon lanak eramango dute ISILIK behar duen bideetatik.*

*Celestin Freinet hartu dugu ale honetan gai nagusizat. Zenbait ikastaro, aldizkari, liburu eta publikazio ezberdinetan zabalduak izan badira ere, gizon honen lan eta ahaleginak, gure honetan ere, gehiago zabal daitezen oraindik, enbidatu nahi izan dugu. Izan ere, pedagogi herrikoiaren militante honen pentsakera, ekintza eta exenpluak bizirik dirau bere emaitzetan ispiratzen direnengan.*

*Bestalde, eta "haurra eta..." deitzen dugun sailean, seksualitateari buruzko zenbait gogoeta eta eritzi bidali dizkigu Xabier Gomez de Zapiainek. Izan ere, asko eztaba-datzen ari den puntua da "seksu heziketa" baten beharra, oso eritzi eta arrazoi ezberdinek eskabide hortara guraso nahiz irakasle bultzatzen dituztelarik. Haurren espontaneitateak kanpora erazten dituen behar eta jakinminaren aurrean kezkatu, nagusiok bortizki menoeratu edo sublimatu ditugunak ikusmira lainotzen digutelarik maiz.*

*Espresioa aipatzen dugunez, nor uka diezaioke espresio plastikoari beste zenbaiten artean izan dezakeen garrantzia? Gaur egungo eskolan eta produktibismoan oinarrituriko irakaskuntzan, badakigu espresio lantzea murrizten doala haurrak OHOean gora doazen heinean. Horregatik, bada, eskolako arlo nagusienetariko bat izan beharko lukeela baldin badakigu ere, gertatzen ez den bitartean, bere alternatiba eskaintzen saiatu den emakume baten hitzak ekarri nahi izan ditugu gure horrialdetara.*

*Ezin genitzakeen ahaz bestetik, urte luzeetan zehar irakasleekin bat egirik bere bizkar ikastolak harturik, ordu hoberenak sinisten zuten hari eskaini dizkioten gurasoak. Iragana eta orainari buruz dituzten eritziak entzun nahi genituen, egoera nahaspilatu hau uler-korragoa gertatuko zitzaigula bai-zeritzogun.*

*Zaila, ulerkaitza, korapilatsua benetan gure gizarte zoro honen kumea. Lana, produkzioa, kontrola, maneiatzea helburu. Hauek ote I.T.E.ren helburuak? Hortxe paratu dugu eztabaida. Guk eztabaida plazaratzen dugu. Zer esanik duena betor plazara.*

*Gurea, honetan amaitzen da, zuen eskuetan hasten den ISILIK 2 hau agurtu behar dugu, 3.a atejoka somatzen da eta ez dugu galtzeko astirik.*

**Sei hilabeteko** bizitza fisikoa duen zerbaiti ezin zaio, zihur aski, ezeren soluziorik eskatu, gehienbat ezer konpontzeko soluziorik ez duelako, eta ez lukeelako izan behar ere.

*Dena dela, egiek eta gezurrek ez dute zergatik haundiagoak edo borobilagoak izan behar aho batetik edo bestetik irtetzen badira.*

*Ohituegiak gaude balorazio ezberdinak egiten segun eta nondik datorkigun eritzia, segun eta nork baieztatzen edo ukatzen duen zerbait.*

*Hemen azaltzen denak ez du harrera haundirik izango, ez du jende askok ezagutuko, baina horrek ezin digu, gauzak ikusten ditugun bezala azaltzeko hitzik moztu.*

*Azken hilabete hauetan, gure irakaskuntza munduan bi ekintza nagusitu dira, eta bi ekintza horietaz asko esan eta idatzi da. Bi gertakizun horiek, bi izan arren kontestu berdinean kokatzen diren bi ekintzek, irakaslegoa, gurasoak eta ente publikoak zeharo aztoratuta eduki dituzte azken boladan.*

*Batak, konponketarik izan gabe, "amaiera" tristea izan du, bestea hasi baino lehenago hilzorian dago.*

*Ikastoletako Estatutuak eta Eskola Estataletako greba, hildo berdinetik doazen bideak dira, eta orain bide horiek, zorionez edo zoritxarrez, Euskal Gobernuaren pean biltzen dira.*

*Oso erraza da hitzak honela edo hala erabiltzea. Oso erraza da pedagogi berrikuntzaz, pluralismoaz edo publikotasunaz hitz egitea. Baina oso zaila, dirudienez ezinezkoa, hitz horiek duten zentzu praktikoa negoziaketa mahaian, elkarrizketan edo praktikan finka dadin bultzatzea.*

*Estatalak, orain arte Madrilgo Gobernuaren pean zeudenak, Euskal Gobernuaren esku daude. Jestio berri honetan, Euskal Gobernuaren lehendabiziko pausoa ezin zitekeen ardura gabe-koagoa izan. Nora doa horrelako gogorkeriarekin? Zertan ari da patronal erreazionariaren kutsuko jarrerak hartuaz?*

*Grebak, hasieran behintzat, ez zirudien honelako inplikazioak zituenik, baina Euskal Gobernuak, bere jestio berri horretan, gauzak hestutu nahiean, neurritz kanpo jarri du, hitz eginda konpondu zitekeen zerbait. Baina... horren azpian ez ote da beste zerbait egongo?*

*Orain arte, eta planteiamendu horiek mahai gainean jarri direnean, Euskal Gobernuak definitze eza adierazi du beti, baina horren ondoan, eta hau grabeagoa iruditzen zaigu, ez du inoiz onartu inplikatura zeuden taldeetatik etorri diren proposamenak, eta beti, bere agintea garbi utzi nahi izan du norbaiti zalantzaren bat gelditzen bazitzaion ere.*

*Oraingo honetan, estataletako irakasleei hori adierazi nahi izan die, egin behar dena, etorri daitekeena, Gobernutik etorriko dela, eta inork ez dezala uste, Gobernuarekin txantxetan ibil daitekeenik. Horrek gobernu "demokratiko" baten irudia baino, lehen ezagututako gobernuen antza gehiago du.*

*Bestalde, eta hor ikastoletako irakaslegoak eta gurasoek esperientzia gehiago dute, Euskal Gobernuak ez du inongo definizio garbirik egiten ikastolen etorkizunari buruz. Zertan ari da matrikula epeak mugatu nahiean? Non daude proposamen zehatzak? Zer esiji dezake etengabeko ukatzea besterik eskaini ez duen ente batek?*

*Ikastolez, Euskal Gobernua ez da oraindik definitu. Badirudi bere alderdian kontraesan gehiegi dagoela definitze hori posible izan dadin. Baina, jaun-andreok, Euskal Herria ez da zuen alderdia, ikastolek, gurasoek, irakasleek, haurrek... proposamenak behar dituzte, dirua, non dauden jakin nahi eta behar dute.*

*Eta ez bazaudete ezer eskaintzeko edo proposatzeko prest, edo ezin baduzue, ez itzazue hitz egiten dutenen ahoak itxi, ez zapaldu zuloatik irten nahi dutenak, utz ezazue beren bideak bilatzen.*

*Orain dela bi urte, "berrozikoen" trajeekin aurkitu ziren, beren erreibindikapenak kolpeka isildu nahi zituztelarik. Aurten "ertzainen" txapel gorriak aurkitu dituzte eta urez ito nahi izan dituzue oinarrizko eskakizun batzuk, hitz egitera ausartu gabe.*

*Egia ez du gehien hitz egiten duenak, gehien errepikatzen duenak edo diru gehien dutenek iragarki haundiak ateratzeko...*

*Hemendik, jende gutxik irakurriko duen bazter hontatik, seriotasun minimo bat eskatuko genioke Euskal Gobernuari. Ikastolek eta Estatal eskolek denontzat izango den Euskal Eskola Publiko hori lortuko dute, eta Euskal Gobernua ezingo da traba bat izan. Beraz, Gobernuko jaun-andreok, berplanteia itzazue zuen presupuestoak eta pentsa ezazue ez zaituztela inoiz baztertu, zuek izan zaretela baztertu duzuen bakarrak.*

*Horregatik, pentsa ezazue zer nahi duzuen, argitaratu eta ez itzazue aurrerabidean ari direnen hegoak moz.*



## Haurra eta seksualitatea

Aurreko alean "haurra eta elikadura" zeritzan gaia ikutu genuen, oraingo honetan "haurra eta seksualitatea" gaia jorratuko dugu.

Gai hau bi zatitan banatuta egongo da, lehendabiziko zati honetan seksualitateari buruzko erreflesio orokor batzuk egingo dira, bai nagusien seksualitateaz edo seksualitate errepresioak utzitako hutsune eta frustrazioaz, eta baita ere haurraren seksualitateaz edo nagusien mundu horrek izorratu eta frustratu dezaken mundu garbi eta jaio berriaz. Seksuak daraman eta ematen dituen bide eta aukera zoragarriez, seksuak suposa dezaken munduaren eta harremanen ikuspegi askatzaileaz.

Gero, eta bigarren zati batetan, erreflesio hauetan oinarriturik, haurraren sexu heziketaz ideia batzuk emango dira. Ideia eta bide hauek "famili plangintza" zentru batetan lanean ari den sikologo batek finkatuko ditu, bere esperientzian oinarriturik. Gurasoek eta irakasleek beren haurren sexu heziketaz planteiatzen dituzten kezketan oinarriturik, kezka hauek kritikatu eta nagusiaren eta gizartearen zeregina arlo honetan aztertuz.

Beraz, saiatuko gara sexu mundua ahalik eta modu garbienean jorratzen, betiko aurrejuizioak alde batera utzirik eta seksua gizakiaren beste edozein arlori (bueno edozeini ez, seksua garrantzizkoenatarikoa baita) ematen diogun garrantzia emanez.



## Seksu heziketaz aipamenak

Aurreko dekadaren emandako aldaketa sozialak badirudi gauzak aldatu dituela, behintzat etxuraz. Diktadura baten ezaugarriak eta jarreraketa demokrazia batenak ezberdinak dira. Diktaduraren gogorkeriak hestutasunak eta kontrolak goiko maila uzten dute. Pluralismoa eta askatasuna demokraziaren baitan daude.

Garai batetatik honantz seksualitatea uzkurki kaleratzen da, eta alde guztietatik eskakizunak sortzen hasten dira. Errealitate indartsu honek, poliki-poliki, iluntasunetik ateratzeko giroa aurkitzen du. Hor egon daiteke seksu heziketa azken urteetan modan egotearen arrazoia. Dena den, etxurazko "giro on eta demokratiko" hau ez da inolaz ere, seksuaren dimentsio osoa sakonki bilakatzeko garantia. Horra hor "retoa". Reto honek pertsona mailan, gizarte mailan eta batzuk profesional mailan konprometitzen gaitu.

Seksu heziketaz egiten diren eskakizun gehienak ikastola, eskola eta antzerako tokietatik sortzen dira, guraso eta irakasleek bultzaturik.

Gehienetan seksu heziketa beldurrez, ikaraz bezala eskatzen da. Konprobatzen da gurasoen artean eta eskoletan arazoak, piskanaka piskanaka, indar gehiago hartzen duela. Seksu espresioak, haurren erotikak, gurasoen seksu ikuspegi hestua ikutu eta zalantzan jarriko balu bezala gertatzen ari da. Beldur honek bultzatzen du pedagogi giroetan seksuaz hitzegitera, kontrol bezala, ez beste belaunaldi baten seksu bilakaera errespetatuz egiten den proposamena bezala. Dena dela, zerbait da, aurreruntz emandako pausoa da, behintzat, seksuaz hitz egin dezakegulako. Hitz egitea adieraztea da, eta adieraztea oso inportantea da.

Begien aurrean zabaltzen zaigun arlo honetan, irakasleek, heziketa eta irakaskuntza munduan ari diren profesionalek orokorki eta gurasoek, jarrera positiboak transmititzea, jarrera zaluak ez gogorak, inposaketarik gabekoak transmititzera lagundu dezakete, haurraren seksu



dimentsio osoa lortu ahal izateko. Dena beren "biofiliaren" araberan dago, beren bizitza eta naturaren maitasunaren araberan, eta beren kritika eta autoanalisiaren araberan.

Dena dela, behar beharrezkoa da, bai guraso mailan, bai irakasle mailan, seksualitateari emango zaion ikuspegiari koerentzia ematea. Beharrezkoa da, beraz, gizakiaren ekin-

tza seksualak benetan ulertzea eta ezagutzea. Ezagutze eta ulertze horrek, gaur egun baloreek izan duten aldaketa azkarrak sortutako konfesionismoa seksualitateari buruz, errazago eta lasaiago aztertzea garrantzitsua da.

Gü guztiok DEBEKU giro batetan hezi gara, etengabeko ukatzea, irentzea, beldürre, menpekotasuna eta errudun sentitzea ezaugarri nagusi





bezala izan dituen giroan. Gure lehendabiziko urratsak, gure bizi-tzaren hasiera suposatzen duen garai honetan, gure baitan, gureganatzen den balore sistema bat bilakatzeko da, gure sakonera, inposatze gogorra erabiliz, balore konkretu batzuk sartzen dizkigute. Gizarte errepresioa barneratu egiten da, gu gure buruaren zapaltzaile bihurtuz. Horrela errudun zentzazioa gure barnetik atera nahian guregan dauden balore betegarri eta satisfazioa emango liguketenak ukatu egiten ditugu, naturarekin lotzen gaituena eta gure posibilitateen bilakaera lasaia suposatzen duen guztia alde batera gelditzen da.

Lehen aipatu dugun aldaketa honetan, zapalkuntza gogor eta zentzu gabekoak suposatzen duen DEBEKU horrek, zilegitasun (permisibitate) demokratiko bati tokia uzten dio. Orain, beraz, gizarte aldaketa hori izanik, BAIMEN garai batetan egongo ginateke. Giro honen ezaugarri nagusiak hauek izanik: "bai" borobila, planteamenduen anbiguetatea, ekintza seksualaren enfoke eza, kriterio eza eta denaren gainetik UKATZE eta DEBEKUAREN aurkako erantzun amorratua. Familiako debeku gogorren aurka jartzen den gaztetxoaren amorrua bezala litzateke. Zilegitasun edo permisibitate honek heldutasun gabeko erantzuna suposatzen du eta, beraz, norberaren autoeraikitze protagonismo-tik kanpo dagoen erantzuna. Permisibitate hau arriskutsua da, aldizkari "porno" bat erosteko aukera izatean, filme hau edo beste ikusteko aukeran edo besteekin "nola enroilatzen garen" hitz egiterakoan dagoen etxurazko askatasun honek errepresio mota sutilago eta gordeagoak daramatza azpian. Diktaduran, ukatzea, errepresioa "dekretoz" egiten zen. Errudun sentitze horretaz Eliza arduratzen zen. Ez zegoen inongo etxurak gordetzeko beharrik. Demokrazian, zapalketa etxurazko askatasunaren azpian gordetzen da. Errudun, giroan dagoen moralaren bidez eta komunikazio medioen bidez sentitzen gara. Hauek edertasunaz, gaztaroaz zorianaren irudi bezala, zenbat orgasmo behar diren, abenturez, fantasiaz, irabazle izateko behar diren baldintzez eta abarrez hitzegiten digute. "Zientzia fikziozko seksualitate"



tatea" indartzen da, imposiblea benetakoa ez delako. Nahien indartzea eta norberarenak diren baloreen mesprezioa, bi elementu hauen artean dagoen izugarritzko diferentzia azpimarratzea litzateke demokraziak erabiltzen duen errepresio mota sutil eta aldi berean indartsuena.

Irakasle eta gurasoen belaunaldia DEBEKUtik abiatzen da eta ahal duen neurrian permisibitate honetara egokitzen da. Nortasun egitura finkatuta dago. Seksu aktituteek, oinarririk gabeko beldurra, errudun sentimentua eta neurri bateko seksufobia lukete ezaugarri nagusi bezala. Pertsona mailan oreka urduri bat lortzen da, seksual (ez beti) den tentsio bat ukatuz, barnetik, saketik bultzatzen duen "hori" kontrolatzeko energia erabiliz. Egoera hau,

normalean, haurren berezkotasuna ikusterakoan garbi azaltzen da, hauek oraindik garbiak baitaude, oraindik... Baina beren portaerak eta izakerak, nagusiarengan erreprimittuta dagoena eta, beraz, nortasunaren eraikuntzan integratu gabekoa, **mugitu** egiten du. Nagusiak "ezin du onartu" haurrak hain erraz adieraztea berak horrelako neke eta sufrimenduaz ukatu duena.

Horrela, seksu hezketa eskaera asko sortzen da, gaurkotze behararen aitzakiaren azpian, haurren sexualitatea kontrolatzeko beharra ezkatzen da. Izugarritzko muntaiak deskubritzera eramane gaitzekin seksu hezketa eskakizuna, gure barnean gure buruarengandik ezagutzen ez dugun guzti honek ematen digun hestutasun eta inzihurtasuna lasaitzeko behar ditugun errezetak eskatze batetan bihurtzen da.

Plangintza koerentea egiteko zer aukera dago?

Dena, ekintza seksualaren ezagutze eta ulertzean eta bere pertsona eta gizarte zentzuan datza.

Atsegin (laket) beharra bezala ulertzen den giza dimentsioa litzateke sexualitatea. Satisfaziora, asetasunera garaman bultzada litzateke. Honela konprobatzen da portaera seksualaren gehiengoan, honek berez ez du beste zentzurik.

Dena dela, sexualitateak helburu ezberdinak ditu, lehen aipaturiko bultzada seksual ez da mekanismo zurrin eta automatikoa, zalua eta aldakorra baizik: erreprimittu daiteke, zuzenki ase, beste balore batzutan bultzada hori erabiliz norberaren nortasunean integratu, eraiki, sormena landu, e.a. Modu honetan nahiaren mundua eta nahi hori betetzeko norberaren posibilitateak armoniaruntz mugimenduak jartzen dira. Honek DEBEKU-PERMISSIBITATE hortan beste hirugarren bide bat planteiatzera garamatza, LANTZEA.

Hortaz, LANTZEAZ, bakoitzaren posibilitateen bilakaera gureganatzea ulertzen dugu. Sikoanalitiko zentzu batetan sexualitatea energi iturria, seksu satisfazioaren aurka dauden sozio-kultur arau mugatzaile, debekatzaile eta kastratzaileekin kontrastean jartzen da. Bestalde, bakoit-



tzaren mugekin aurkitzen gara. Seksu osasuna, LANTZE terminotan, seksu bultzada eta gizarte eskakizun edo esijentzien artean armonia lortzea litzateke. Integratze honetan "reto" pertsonala legoke. Ezin dira aurrez finkatu zeintzuk izan behar duten seksu "modu" horiek. Seksualitatea bakoitzaren, norberaren egituratzea da, mugimendua dagoenez aldakorra dena. Gizarte eskakizunak ezin dira muga hestua izan. Armoniak beste **zenbait arlotara zuzendutako** indarra bereganatzen du: bizitzarekin bat egitera, lan produktiboaren baloratzera (lan relatibo, pilatze eta ordu estren aurkakoa), denbora librea garai atsegin eta kreatiboa bezala erreibindikatzea, gizartera moldatze konziente eta kritiko batetara moldatzera.

Absurdua eta ezinezkoa da seksualitatea "klitxe" bezala hartzea, bat gizona koentzat, bestea emakume koentzat, denentzat berdina. Absurdua eta zentzugabekoa da seksuaren "konpetentzia" eta "markak" lortzean pentsatzea. Seksu armonia, norberarena, bakoitzarena den prozesua da, non giroa eta herentzia integratzen baitira, seksuazio moeta piloa eskainiz, beraz seksualitatea bizitzeko modu piloa. Seksu hezketa, zentzu hontan eta ezer baino lehenago, urritu, epaitu eta mugatu nahi duten norberaren aktitudeak argitara ekartzea izango da.

Laburtuz, orainarte erabilitako arrazonamentuak jarraituz, seksu hezketa eman dadin kriterio batzuk finka ditzakegu:

1. Irakasle batek, irakaskuntzako profesional bezala, bere egoeran egon daitezken interferentziak ahalik eta ondoen ezagutu behar ditu, haurrekin harremanetan hastera koan horiek azaldu ez daitezken. Arrazoi gehiagorekin seksualitate arloan, gai honetan nortasun guztiak gehiago edo gutxiago ikutuak baitaude.

2. Seksu arloan, berez "ez dago ezer irakasterik", anatomia, birsorkuntza, e.a. ez ezik, eta honek oso garrantzi gutxi du seksu dimentsio bezala hartzen den arlo honetan. Dena dela, eskola batzutan hori ematen da soil soilik. Seksualitatea teknika baino bibentzia da. Seksu

hezketak giroa desintosikatu egin behar du, seksu bibentziak gureganatzeko bide naturalak eman daitezzen.

3. Seksualitatea plazer iturria da eta plazerra ondasun osasuntsua. Plazerraren lantzeak, berak berez du zentzua, bakoitza, pertsona mailan, bere plazerraren arduradun baita. Plazerra, beste hainbat gauza bezala konpartitzen den zerbait da.

4. "Ugalkortasuna" emakumearen aukera libre da. Bizitza proiektuaren barnean dagoen ahalmena da. Seksu hezketak "borondatez izandako haurren" kontzeptua indartu behar du "osasun mentalerako lagungarri bezala".

Bukatzeko, seksualitateak gizakiaren dimentsio zoragarri bat suposatzen du. Seksualitate hori askatasunean biziz gero gizonemakumeak naturarekin, benetan gizakiarenak diren baloreekin lotuko lituzke, maitasunarekin, bazitzari maitasunarekin. Horrela seksu dimentsio biofilia iturria da, besteekin harremanak beste modu batetara ulertzea eta ikustera garamatza, eta zentzu honetan, muturreraino eramanda beste utopia haundiekin bat egiten da. Horra hor Retoa.

XABIER GOMEZ ZAPIAIN  
Lasarten 1983ko Otsaila



## Zer da plastika



Irakaskuntza munduan, edo hobeto esanda hezkuntza munduan, beste hainbat gai konfliktibo dagoen bezala, plastikako honek ere, bere arlo ezberdin eta problematikoak planteiatzen dizkigu.

Beste edozein gaik bezala, honek oso bide ezberdinak azalduko dizkigu segun eta nondik begiratu, segun eta zer pedagogi helburutatik abiatu, segun eta zer errealiteri erantzuna eman nahi izan.

Orain arte, eta urte luzeetan zehar, "trabajos manuales" zeritzan gaia lantzen zen eskoletan. Oso ordu gutxi erabiltzen zen hortarako, irakasleak ez zuen inongo prestakuntza berezirik normalean, eta haurrentzat oso atsegina egiten zen, ez bertan lantzen edo egiten zenagatik, inongo ardurarik behar ez zelako, garrantzirik ez zuelako eta irakasle "monstruo represiboa" ez bazen, ez zegoelako inongo problemarik "bost" bat ateratzeko.

Gauzak honela izanik, hasi ginen gure artean eskola moeta berriak ikusi nahian, ikastolak sortu ziren aukera "aurrerakoi" edo... bezala, eta pedagogia "bazegoela", "aplikatu zitekeela" ohartzen hasi ginen. Garai honetan denak kezka ziren, zalantzak, nondik abiatu, norantz jo... Poliki-poliki gauzak baretzen joan dira, ikastolek "beren bidea", bide "bat" hartu dute, istituzionalizatu dira, "normalizatu" dira.

(Gehienbat ikastoletan zentratuko gara, pribatu eta estataletako bideak jarraitu ez ditugulako, eta baloraziorik egitera ausartzen ez garelako).

Kurtsoa banatu da, ebaluaketak, notak, oporrak, orduak, kurtso bakoitzean gai konkretu batzuk, edukiak, azterketak, "eskolan egin behar dena, noski!"

Guzti hau pasa ondoren, orain 1983an begiak ireki eta hara! zer gertatzen da hemen? Non gelditu dira hasierako ametsak, hasierako planteiamenduak, seksu heziketaren beharra, osasun heziketa, harremanen lantzea, globalizazioa...?

Lehen "trabajos manuales", orain eskulanak edo plastika, lehen pinturas, sierras, cartulina, titeres, marqueteria, plastilina, arcilla... Orain, margoak, txotxongiloa, egurra lantzea, buztina lantzea... Zer aldatu da? Zertarako balio izan du aukera bat edukitzeak?

Lehen esan dugu eskulanek segun eta nondik begiratu, segun eta zer nahi, bide bat edo bestea adieraziko digutela... Guk, noski, bide bat hartuko dugu.

- *Hitzak besterik ez diren hitzak, ia gezurrak dira.*

## Eskolaurrea- plastika - tailerrak - OHO

Orain arte eta, oraindik ere, eskolaurrea eta OHO bi mundu izan dira eta dira. Lehenengoan, "haurra txikia denez" eta "gauza gehienetaz konaturatzen ez denez", gauzak egiten ditugu, ez dugu esperimintatzeko beldurrik, lana taldeka egiteko, kurtsoa, gai ezberdinetan banatu gabe, globalizatze, haurra, gela, jolas-tokia, mendia eta kalea bat egiteko...

Gero OHOera pasatzerakoan, NAHIKO!, nahiko denbora galdu dute, txorakeria desente egin dute orain arte, orain seriotasuna, orain lanean hasten gara.

Eskola askotan, gehienetan, presio ezberdinak direla medio (BUPera pasatu beharra, gurasoen beldurra, irakaslearen erosotasuna...) eskulanak, plastika gaia besterik ez da, hilean zehar ordu gutxi batzuk emanez nolabait lantzen diren materiale batzuk.

Zergatik eten hori, puskatze hori eskolaurrea bukatzerakoan? Zergatik beldur horiek (irakasle, guraso)? Zergatik pentsatzen dugu eskolaurrean denbora galdu besterik ez dela egiten? Nola alda genezake ezer gizarte presioa gu eta gure nahiak baino indartsuagoa baldin bada? Ala ez zaigu interesatzen? Ez dugu hori nahi? Oso komodo bizi al gara orain aldaketetan hasteko?

Eskulanak, plastika, eskolaurreko hildotik jarraituz, beharrezko elementua bihurtzen zaigu irakaskuntza, heziketa globalizatze, haurra ikerlari egiteko, haurrak, esperimintatuz bere bideak, bere edukiak osatuz, lortu nahi dituen helburuetara hel dadin.

Eskulanak ez dira beste gai bat, ez da egur bat lantzea edo buztinezko etxe bat egitea, bueno, hori ere bai, baina ez hori bakarrik.

Eskulanak eskolaurrean hartzen duten dimentsioa jarraituz, **Tailerretan** bihurtzen dira. Hor dago, **Tailerretan**, pedagogi berri baten muina eta zentzua.



Gaur egun haurrak oso ondo bereizten ditu lanorduak, jolasgaraia edo solfeo klasea. Haurraren mundua zatitua dago eta bertan etengabe "ona" eta "txarra" agertzen da, nagusiok baloratzen dugu bere mundua, nagusiok zatitzen diogu, eta nagusiok esan zer eta noiz egin behar duen. Haurarentzat (eskolaurrean hau garbiago ikusten da) ez da hori horrela ematen, goizeko hamarretan hondartzan egon daiteke, eguerdiko ordubietan bere gelan bazkaltzen eta lauretan lo. Haurrak ez du bereizten zer den jolasa eta zer lana, nahi duena egiten uzten bazaio, bere asmoak eta egin nahiak betetzen uzten bazaio.

OHOean haurrek ikasi dute zer den ona, zer den txarra, non hasten den jolastokia eta noiz amaitzen matematikako ordua.

Tailerren bidez, aktibitateak zatituz baina sailkatu gabe eskola eta kalea bereiztuz baina on eta txar esan gabe, aktibitatea eta atsedena indartuz baina ez batean ez bestean baloraziorik egin gabe, eskolak aktibitateak eta elkarlanak beste dimentsio bat hartzen du. Haurrari

aukera batzuk ematen zaizkio, edo berak jartzen ditu, aukera horietatik denen artean hautaketa dator eta ondoren aktibitatea sortzen da.

Haurrak eskuak, hortzak, hankak... erabili behar ditu gauzak sentitzeko, gauzak erabiltzeko eta ondorio batzuk ateratzeko. Liburu batek dena eginga eta konprobatuta emango dio, baina haurrak ezin du ikusi, ezin egin, ez daki nondik nora doan, aldiz, haurrak, berak, gauzak gaizki eginez behin eta berriz, probak eginez, lortuko du bere helburua eta berak teorizatuko du praktika honetaz.

Esperimintatzea, globalizatzea, talde lana egitea, eskola, kalea, edo mendia bezain atsegina egitea... eta beste hainbat gauza eskaintzen digute tailerrek, elkarlanak, haurra gustora aurkitzea egiten duenarekin.

Ikus dezagun orain, nola ikusten duten plastika, tailerrak edo eskola, hortaz ari direnek, hori esperimintatu nahiean dabilzanek, eskola kaleratu eta kalea bihurtzea nahi dutenek.



## Plastika

Gaur egun inork ez du zalantzan jartzen esku lana eskola aurreko oinarria denik.

Eskolaurrean landuko ditugu gaiak gorputz eta materialen bidez soil soilik, haurrek abstraziozko ahalmena landu gabe daukalako eta idazketa-irakurketa prozesuan sartu gabe dagoelako.

Hau horrela izanik, gaur egun gure eskoletan bistan dagoena ere zera da; behin O.H.O.era iritxiz gero jolasak alde batera utzi, jolas garairako noski, aulki batean exeri eta kito, hor bukatzen dira haurrarentzat mila posibilitate.

Hain astakeria izanik kostatzen zaigu onartzea, haurrak gorputza eta zentzu eta esku batzuk dituela O.H.O.ean hasten denean ere.

Gauza bat dela matematika eta natur zientziak eta hizkuntza eta abar lantzea eta beste bat hain garrantzitsua inguruan dituen materialak experimentatzea, teknika batzuk ikastea, kreatibitatea lantzea eta artea egiten duen neurrian ulertzea.

Guretzat ez dago batere borrokatua matematika lantzea inguruak eskaintzen dituen posibilitate guztiaz baliatuz, gehiago oraindik, bitarteko guzti horiek gure lanaren oinarri bihurtu beharko genituzke, eta horien barruan plastika ere sartzen da.

Beraz, plastikak guretzat oso definizio zabala du.



Plastika ez da klase berezi bat edo eta asteen batzuetan lantzen dugun zerbait, baizik eta gure inguruan dagoen errealitatearen zati bat eta horrela baloratu nahi dugu.

Gauzak era honetan ulerturik eta onarturik ez digute balio eskolaren barruan "asignaturek" bata bestearekin zer ikusi handirik gabe. Gure lana tailerretan dago estrukturatuturik.

Orain tailer bat zer den adierazi nahi dugu:

Gure ustez, tailerra materia bat **egiten** den lekua da, eta azpimarratzen dugu **egiten** ez **ikasten**; honek esan nahi du haurrak postura aktibo batetan egon behar duela, hau da, gai desberdinetan: materiala bilatu, gauzak deskubritu eta ulertu ondoren bere interpretazioa eman.

Tailerren helburuak orokorki hiritan laburtzen ditugu:

— Materialak landu, hemen oso garrantzitsua da haurrak ahal dituen material gehienak ezagutzea eta hori neurri handi batetan irakasleen eskuetan dago. Honek emango dio haurrari ingurua ezagutzeko perspektiba berri bat.

— Teknika desberdinak ikasi, material bakoitza lantzeko; hau da, material bakoitza menperatzeko. Adibidez: buztinak propietate batzuk ditu. Haurra, buztina askotan landu ondoren, prest egongo da teknika baten bidez buztin horrekin nahi duena egiteko eta ez ateratzen zaiona. Beste adibide bat: batuketa; haurrak abstrazio honetara iritxi baino lehen oso landua eduki behar du, objetuen mundua: gauzak jarri, kendu,... eta abar. Ondoren etorriko da teknika baten jabe egitea eta honek balioko dio aurrera jarraitzeko.

— Kreatibitatea. Haurrak nahi duena sortzea.


Nolabait tailerrei lotura emateko eta egiten diren lanaz baliatuta beste ekintza batzuk sortzeko proiektu orokor batzuk egiten ditugu. Hitz gutxitan adierazita proiektu baten helburua izan daiteke: festa bat, giñol espektakulo bat, ihauteriak,...

Hau aurrera eramateko tailer guztiei lan konkretu bat banatzen zaie. Adibidez, giñola egitea helburua baldin bada: tailer batek gidoia egingo du, beste batek buruak, eta horrela jarraituz, jantziak, dekoratua, argiak... Azkenik, lan guzti hauek egin ondoren, prest gaude giñoleko emanaldi bat besteei eskaintzeko.

Era honetan, lan egiteak helburu gertu eta ikusgarriak ditu, era berean lan guztien erakusketak ere antolatu izan ditugu guraso eta herriko jendea gonbidatuaz. Haurrei beraien lana positiboki baloratua ikusteak lanean jarraitzeko animoa eta indarra ematen die eta noski besteen lana ere baloratzeko.

Gaur egun dauzkagun tailerrak hauek dira: Matematika, Inguru azterketa, Antzerkia, Hizkuntza, Argazkia, Telarrak, Elektrizitatea, Sukaldea, Gimnasia, Taila, Buztina, Jolastegia, Maskarak eta Titeregintza.

Tailer hauek astean zehar banatuta daude. Hau dena, nabarmen den bezala, ez litzake posible izango



egitea laguntzailerik gabe. Gure kasu konkretuan laguntzaileak, gurasoak eta herriko zenbait pertsona dira.

Gure helburua, tailer guzti hauei garrantzi berdina ematea izango

litzateke, baina gaur egun eta zoritarrez lan intelektual eta esku-lanaren arteko etena handia izanik, gure pausoak hortik doaz.

*Langile Ikastola*



—Baina, zer nahi duzue?

—Zure hitza, Ana, besterik ez.

—Nire hitza? Zertarako?

Gure aldizkari hau erakutsi behar izan genion, eta plastikaren inguruan egin nahi genuen lanaren zehaztasunak entzun zizkigun isilik, isilik eta irrifartsu. Izan ere, ezer berririk ba al genuen azkenengo zazpi urteotan plastikaren orbitan ahal dituen orduak erretzen ari den emakume honentzat? Ez, agian ez, baina bere esperientzi, eritzi eta giza-espresioaren aurrean dituen jarrerak ezagutzea interesgarria iruditzen zitzaigun.

Baina, norengana jo genuen? Noren kezka, eritzi eta hitzak jaso nahi genituen? Etxekoandre batenak. Etxeko lanak egin ondoren, Aitorren erropak konpondu eta garbitu ondoren, Bergarako Zabalotegi auzoko tailerrera marrazki, buztin, haur, hari, gazte eta nagusi artean egunero ordu batzuk botatzen dituen emakume apal eta alai honen hitzak nahi genituen. Izan ere, bere laguntza leunez apaldu genituen buztinaren aurrean ezinaren eragin agresiboaz kanporatzen zitzaizkigun biraoak.

Berak digun bezala, zortzi bat urte direla gerturatu zen lehendabiziko aldiz, erabat txunditurik utziko zuen mundutxo aberats eta atsegingarri honetara.

—Zuek ordu libreetan egin nahi eta egiten dudan honi buruz ene esanaren bila etorri bazarete ere, ni hau eskola ordutan egitearen aldekoa naiz, eh! Hau garbi gera dadila. Baina, hala gertatzen ez denez, ikusten ditudan premien arabera saiatzen naiz datorkidan jendeari dakidana irakasten.

Hau topatu genuen, eskatu geniona jasotzera joan ginenean, Antzuolako herri eskolan, zalaparta artean, haur mordo batek inguratzen zuela, sormenari egunero bezala, atetxo bat zabaldu nahirik.

—Ez zait gustatzen idatzi dudana. Argitara eman gabe pasa bazenezate ia hobe. Nik ez dut idatziz zer esanik, nik esan nahi dudana eguneroko lanetan adieraz dezaket bakarrik.

Ez genion hortan arrazoia eman Anari, baliotsuak ikusi genituen pertsonak bere baitan dituen ahalmenei kantatzen dioten emakume honen hitz apalak.

## SORMENA, PLASTIKA ETA DENBORA LIBREA

—Nire hastapen eta esperientzia plastika lanetan.

—Plastika espresioa, kultura eta emozio zentzuz betetako mundua.

Zazpi, zortzi bat urte direla, keramikaren hastapen ikastaro batetan partehartu ahal izan nuen.

Joku baten gisa hasi zen, neure esku dorpez formak egiten eta lapi koak altxatzen saiatzen nintzen.

Ez zitzaigun erraza egiten hasieran, baina, bost axola, atsegin genuen, "lasaitzen gaitu" genion. Eritzi orokor bat zen. Adimena eta hunkipena jokuan jartzen direnean bere nortasuna topatuz lasaitzen da pertsona, hauxe gertatzen zitzaigun guri.



**BUZTINA LANTZERA KOAN NEURE AGRESIBITATEA DESKARGATZEN NUEN, ARINDU ETA HOBETO SENTITZEN NINTZEN.**

Buztina oratzerakoan, puskatu eta imurtxika hasteko premia sentitzen nuen. Ridikulua iruditzen zitzaidan, ez nintzen lankideen aurrean egitera ausartzen, baina premiazkoa zen eta ezin izaten nituen eskuak geldi eduki. Harritzen ninduen zein ongi sentitzen nintzen saio bakoitzaren ondoren, eta hau, noski, niretzat serioagoa zen. Azkenik, jakinaren gainean jarri nituen kideak, elkarrizketatxo bat izan ondoren, besteak ere bat etorri ziren antzerako zerbituetan. Askatasun osoz egiten genuen ondoren ariketa hau, eta lasaiago egotea lortzen genuen.

Buztinari eginiko erasoak desagertzten ari ziren edo eztiagoak ziren behinik behin, eta buztina kariziatuz formak armonizatzen hasi ginen, gure ukimenak bitartean, haseran ez bezala, material zuhur eta biguna aurkitzen zuen.

Ikastaroa amaitu eta praktikatu, moeta eta ahaleginetan gure maila hobetzen jarraitu genuen. Beste eskulan batzuk ezagutu genituen eta konturatzeke artearen mundutxo xarmangarri eta sorginduan murgildu ginen.


Hasiera batetan keramikagintza interesatzen zitzaigun eta ahal genuen erakusketetara azaltzen ginen.

Gaiari buruz mintzatzen ziren aldizkari eta liburuak erosten genituen, eta beste herrietako estilo eta teknikak ezagutuz, beste kultura batzuetaz jabetzen hasi ginen.

Leihoaren zirriku batetik jolasean hasitakoa, irekitzen joan zen eta beste arteekin harremanean jarritz, kultur mundu erakargarri batetan murgildurik bukatu genuen.

**HALAKO BATETAN, NIK EZAGUTU ETA GOZATZEN NUEN MUNDUTXO ABERATSA HAURREK ERE EZAGUTU ZEZATEN, NIRE ORDU LIBREAK BERAIEI DEDIKATZEA ERABAKI NUEN.**

Nire auzoko neska-mutiko talde batekin hasi nintzen, zortzi urtetik hamabi urte bitartekoak ziren. Ikastola eta eskoletara ere joaten hasi



nintzen, bertako haurrak zerbait majiko bezala hartzen nindutelarik. Irretzerakoan itzuleraz galdetzen zidaten, eta beren eskakizunen eraginez, nik neure buruari planteiatutako baino denbora gehiago eskaintzen hasi nintzaian.

Haurrengan ikusten nuen interesak, udaletxeari lokal bat eskatzera eraman ninduen, lan horretan hiru urte botatzen nituelarik.

Lan haundirik ez zidatela ematen aitor dezaket, beren trebetasunetan guztiz murgildurik iharduten zuten, eta isilune luzeak izaten ziren bakoitz bere hunkipenetan zebilelarik. Bazirudien bakoitzak zituen ahalmenak frogatu nahi zizkiola bere buruari.

Gauza auskor hauek tolestu edo puskatu egiten ziren batzuetan, egilea tristura sakon batetara eramanez; izan ere garbi zegoen, teknika eskasaz baino espresio libreaz eginiko tresna baldar haiek, inkonszienteki, beren nortasunaren sinboloan bilakatzen zirela, eta auskalo "NI" horren zein atal azaltzen zen hartan. Eta hementxe dago ulergaitza eta era berean interesgarria dena. Izan ere, ezingo luke inork, ezta norberak ere hitzetan definitu, arte nahiz beste edozein espresio mailetan zerbait sortzerakoan jarri eta jasotzen diren sentsazio guztiak.

Gogoratzen naiz nagusien taldeak etxeetan paperak eta kartoiak baten zituela, heuren bizio txikietarako dirua izate arren. Hain ikusten nituen diruari lotuak, iruditzen zitzaidala ez zutela beste balorerik

izango, eta proposatu nien egiten zutena saltzea. Ikusten ditut nola zutitu ziren beren aulkietatik "baita zera ere! kartoiak bilduko ditugu, baina hau ez dugu saltzen".

Buztin zati hartan uzten zutena, dirua baino gehiago baloratzen zuten, eta egia esan, beren balore zentzua zutela frogatu zidatenean lasaitu nintzen neroni.

Astero azaltzen ziren gure lanaren berri izanik neska-mutiko gehiago partehartzeko asmoz. Nik ez nuen ez astirik, ezta tokirik ere jende gehiago hartzeko, eta bestalde, ez zitzaidan aukera ukatzea gustatzen. Orduan, haur gehiagotara heltzeko modua pentsatu nuen, denetara zabaltzen diren eskola posibilitateak hain zuzen.

Ikastaro praktiko bat egitera gonbidatu genituen ikastetxe guztiak, bertan, irakasleek, pertsonalki teknika ezberdinak, modu espresio batetan ezagutu eta goza zitzaten, eta ondoren, eskolan, ikasleei beren esperientzia eta su guztia transmiti ziezaien.

Honetarako, herriko artisten laguntza izan genuen eta marraskia, pintura, keramika eta tapiza ikastaroak antolatu ahal izan genituen. Irakasleekin egindako esperientzia honek gure helburu guztiak gainditu zituen, eta bi egunetik behin, bost hilabetez, ikastaro praktiko honetan ihardun ondoren bada interesaturik jarraitzen duen jendea, beren ordu eta egun libreak tailerrean pasatzen dituen, alegia.

**ZER EGIN GURE PLASTIKAKO KLASA TEKNIKA KLASA ASPERGARRI BAT BIHUR EZ DADIN?**

—Ezin genezake edozein moetatako espresio klase bat eman, aurretik ezagutu eta sentitu ez badugu.

—Ezin genezake inor konbentzitu, aurretik gu ez bagaude konbentziturik.

—Ezin genezake arte eta edertasunarekiko zaletasuna transmiti, gar hori gure barne ez badago.

—Ezin genezake bizitza transmiti gure hitzetan, aurretik bizitzaz mozkorturik ez bagaude.

Ana Orgaz



## FREINET

1929an heltzen dira Catalunya aldera (Lleidara) Freineten lehendabiziko berriak, eskolako eguneroko lanean praktikatzen den pedagogiaren berriak, gelan edo gelatik kanpo balio eta erabiltzen zen pedagogia. Inguruneaz baliatuz, ezagutze eta hezitze aktibo, kritiko eta eraikitzailea lortzeko bide berri bat. Edozein herritan, edozein eskoletan, edozein haur edo irakaslek erabil dezakeena. Gizartea, beren ahalmen eta ahaleginen bidez, eraikiko duten gizonemakume berrien egilea.

Celestin Freinetek berak dionez, "Espainar irakasleek oso garbi ezagutzen dute eskola berriaren esanahia, eskola modernoa zer den, eta bere lanek Frantzian nire jarraitzaileek egiten dituztenak gainditzen dituzte".

Baina 1936an emandako militar altxamenduak eta bere irabazteak, esperientzia honen amaiera suposatzen du. Urteak pasa behar dute, 1965-66 arte, irakasle batzuen ezin egon eta egarria, eskola berri bat osatzeko beharra, eskola hobe eta eragile bat, herriaren zerbitzuan egongo den eskola planteiatzen has dadin, eta penintsula osoan, hemen eta han berezkoak, elkarren arteko lotura gabekoak sortzen hasten dira, pedagogi ezberdin honen bigarren faseari hasiera emanez.

### Eskola herrikoia gaur egun

Eskola berriaren mugimendua, gaur eskola herrikoia, berriz bultzatua izan da. Freineten teknikak, ikasketa era naturalek, haurren partehartze oso eta kolektiboak, behar berrien arabera egin eta desegiten diren programek, gelan bizi berri bat dute berriro ere. Horrela formulatzen da, bere planteiamendu eta praktikan haurrak partehartze zuzena izango duen pedagogia, eta horrela jaiotzen dira hau posible egingo duten teknikak. Testu librean, eskolen arteko harremanak, gelako asanblada, talde lana, eskola inprenta, ikasleen konferentziak, eskola lanaren ikuspegi berri bat osatzen duten oinarrizko urratsak dira.

Laister, eskolaren ikuspegi berri honek, eskolaren zeregin hezgarri eta soziala birplanteiatzera garamatza. Eta lan teknika horiek edukiz eta intentzioz betetzen dira.

### Zentzuzko eskola

Eskola, instrukzio toki bezala, aurrez ezarritako helburu baterako prestakuntza toki bezala, gizartean gurasoen status sozialak markatuko duen papera jokatu duten haur amorfoen toki bezala ikusten dutenak, berehala ohartzen dira Freinet eta bere eskola puskatu egin behar direla.

Baina erraza da mundua aldatuz doala konturatzea eta eskola planteiatzeko era berri hauek badituztela beren defendatzaile eta bultzatzaileak, intelektualen artean, herri mailan, gizartearen ikuspegi humano eta solidarioago bat dutenen artean. Gizartearen funtzioak eta partehartzea definitzerakoan, pertsonen edo bere gurasoen jatorria kontutan hartuko ez dutenen artean.





## Partehartzea eskatzen duen eskola

Askotan gertatzen da konsziente den irakasle bat ohartzea, bere gelan egiten duen lanak ez duela inongo eragin positiborik. Haurrek, irakaslearen proposamenak ez dituzte kontutan hartzen, eta irakasleak antzua den lan baten tristezia nabaritzen du beregan.

Soluzio ezberdinak agertzen zaizkigu honen aurrean, bat lanbide hori uztea litzateke, bestea ohizko profesionaltasun batetara gogor lotzea, lana gogor eginez emaitzaz eta jarraitzen den bidez ajola gabe.

“Asmatzea, norberaren buruari galdetzea, bide berriak bilatzea, zailtasun hori gainditzea beharrezkoa dela sentitzea” izan daiteke beste aukera bat.

## Freinet

Celestin Freinet 1914-18ra Europan egon zen gerran partehartzea tokatu zitzaion irakaslea zen. Obus baten lehertzeak arnasa hartzeko eta hitz egiteko ahalmenak murriztu zizkion. Irakaskuntza munduan lan egiteko benetako mutilatu edo motza zen, baina hori nahi zuen eta eskola batetan lan egitea eskatu zuen.

Laister ohartu zen ezin zela beste edozein irakasle bezala mugitu medio horretan. Gelan bere lana errazteko zerbaiten bila ibiltze horrek, gutxiago hitz egitera eramane zuen, bere ikasleei gehiago hitz egiteko aukera emanaz. Aldaketa sakon honek posible egingo zuten bitartekoak aurkitzea eskatzen zuen, haurrengan finkatzen den eskola jaiotzen da era hontara, haurrari orain arte pentsatu gabeko ardurak eta aukerak ematen dion eskola.



## Pedagogi berria

Freineten pedagogiak, nahiz eta osotasun bat izan, bi bide aurkezten ditu. Bi zutabeak batuta eta zutik ez badaude etxea ez da eusten, erori egiten da.

Alde batetik pedagogi teknika berri eta aurrerakoiak suposatzen du, heziketa sendoa posible egiten duten teknikak, etorkizunean partehartze aktiboa eta sortzaileria erraztuko dutenek.

Bestalde, ahalegintze baterakoia izango da, denek dena lagun dezaten ahalegintzea. Konpetentzia desagertu araziz, irabazteko lehia, betiko ahulenak, ahalmen gutxiago dutenak betirako baztertuak, ezertarako gai ez direla, lan gorrotagarrienak egiteko bakarrik uzten dituen lehia deseginez.



## Imitazioa, gezurtatzea

Lehenagoko bidea edo zutabea erraza da imitatzen, gezurtatuz antzerako zerbait egin baitaiteke, kanpotik gauzak landuz, kanpoko etxura emanez, etxuragatik itsutzen direnen aurrean oso baliagarriak izan daitezken bitxi ustelak: Gaur egun, nahiz eta eskola zeharo tradizionala izan, "testu librea" egiten da, berriz bataiatua izan den idazlan arrunta izan arren. "Eskolarteko idazte edo korrespondentzia" egiten da, inongo interes edo balio pedagogikorik gabe. "Eskola aldizkari edo errebista" botatzen da, irakasleek egindakoa, haurren partehartzerik gabe eta inongo balio edo interesik gabekoak, edo bestela lan piloak izaten dira zentzu eta orientabiderik gabe, ahaztuta gelditzen dira eta alferrikakoak bihurtzen dira inprimatzen diren momentutik aurrera...

Liburuetan agertzen diren soluzioak aurretik ezagutzen ditugun problemak bezala, inongo balorerik gabe eta soluzioa nota bat jartzeko besterik balio ez duela, horrelakoak dira aurreko guztiak...

## Bizitzari irekitako eskola

Eskola tradizionala beregan itxia dago, ingurune eta hurbileko errealitatearekin harremanik gabe, atea bota arte kanpoan geldituko den errealitatearekin. Eguneroko problemak, eguneroko errealitatean erantzun bat emango ez digun soluzio bat bilatzen dabilen eskola.

Nola uler daiteke, lantegia itxi dutelako gurasoak kalean egotea, lantegi aurrean manifestatzen diren bitartean, eskola, famili loturez eta parlamentuaz hitz egiten aritzea...?

Nola uler daiteke uholde batek etxeak, lurak, abereak, gizakiak... aurrean eraman dituen heinean, gela batek, ezer gertatu ez balitz bezala, bere programaz jarraitzea, loreez, lorazilaz, lororrazaz, fruituez, eta abarrez hitz egiten jarraitzea?



## Dogmatismorik ez

Arazo bakoitzak bere tokia eta bere garaia du, eta eskolan egindako lanak ingurune hurbila jasotzea izan behar du helburutzat, ez posizionatu ahal izateko, ezta ere ikuspuntu konkretu baten eragina izateko, ez eta dotrina gabekoak izateko, baizik eta errealitatea asmatzeko, bere sorburuak eta eraginak, eta soluzio posibleen azterketa egin ahal izateko, tartean dauden interesen arabera eta langile majoria baten alde.

## Ikasketa naturala

Langile edo eskulangile on bat izateko modu onena, ikasle mailan jartzea izaten da —ez teoriek bakarrik— baizik eta praktika objetibo eta efikaz batetan. Zergatik ez da eskola hiritar konsziente batzuk egingo dituen tailerra (praktika bezala ulertuta), bere planteiamenduak eta bizitzak eskatuko dizkion erantzunak aurkituko dituena?

Ala nahikoa zaigu eskola, arima, emozio, pasio, giza esentziak ez dituzten robotak egiteko? Ez al zaigu antzerako zerbait gertatzen?

*Josep Alcobé*

# FREINET: ELKARLANA PEDAGOGI BEZALA

## Freineten pentsakera eta praktika

### 1. Eskola berria baino areago

Freinet? tipografia, testu librea, fitxeroa, korrespondentzia... eta zerbait gehiago. Freineten teoriara hurbiltzerakoan, harrিতuta gelditzea oso erraza izaten da, jendeak, orokorki, berak erabilitako edo ezarritako teknika batzuekin soil soilik identifikatzen duelako, teknika horiek isolatuak, bakarrik eta banan banan hartu ahal ditezkeen bezala.

Aurrekoak, teknika batzuen bidez ezagutzeak, Freineten lanaren orokortasuna eta konplexotasuna ulertzeko zailtasuna suposatzen du, gainera teknika horien jasotzea eta erabiltzea, modu akritiko eta mekaniko batetan egiten da, enmarkatuta dauden orokortasuna sakonki aztertu gabe. Aldi berean, teknika hauek "metodo" bihurtzeko arriskuan erortzen gara, patentatuak dauden material batzuekin erabiltzen den metodoa bezala erabiltzerakoan, Montessoriren kasuan gertatzen den bezala. Freinetek, betidanik, "metodo" hitza eta metodo kontzeptzioa alde batera utzi nahi izan zuen; berak "teknikak" erabiltzen zituen "herriko pedagogi" batetara heldu nahian, "Freineten pedagogira" azken finean.

Heziketa ezin da hitzaldi luze eta inkonkretoz osatu. Heziketan, hezitzeko material eta kontzeptu tresnak teknika erabiliko ditugu, heziketa aktibitatea lagunduko duten tresnak. Haur pentsakerak, bere berezitasun guztiekin, motibazio bat eskatzen du, testu libreakin eta bere tresnekin, limografoarekin, inprentarekin... konziditzen duen motibazioa. Aste osorako egiten den plangintzak, kontsulta liburuak, norberak bere burua zuzentzeko fitxak, e.a. behar ditu, "eta abar" hori ez da kasualitatez jartzen; inongo ikas arlotan ezin ditugu teknikak tresnekin bakarrik identifikatu. Errealitatea egunero aldatzen da eta irakasleak bere ardura hartzen badu, teknikak ere aldatu egingo dira. Freineten teknikak denboraren igarotzeari egokitzen dira, ez daude beti berdin, nahiz eta oinarri konkretuak izan, bere aplikapenak beti izango du aktualitatea. Horregatik, Freineten pedagogia, osatutako "egi multzoa" bezala definitzen direnengandik hain urruti dago. Pedagogia hau "dogmaren" aurkakoa izango da, etengabeko ikerketa bultzatuko du, eta edozein arazo edo planteiamendu berri baten aurrean ez du bide zuzen eta bakar bat aurkeztuko, baizik eta proposatuko du ikasleek beren bidea aurkitzea, gauzak gaizki eginez eta hortaz konturatuz, beren erruak izan daitezkeen bide egokiaren adierazgarri. Horregatik, Freinet, aportazio guztietara irekita zegoenez bere emaitzak gaintzea lortu

zuen, berak zera zion: "Irakasleek "Cousinet metodoa", "Dalton plangintza", proiektu metodoa e.a. landu behar dituzte, baina ez aldaezina den metodo baten jarraitzaile bezala, baizik eta, praktikoa eta elkarlanean oinarrituta dagoen pedagogia batetatik abiatuz, ahalik eta gehien lortu nahi duen irakasle bezala".

Horrela ikus dezakegu nola Freinetek (eta ICEM, beti elkarrekin baitoaz) Decroly izugarriko interesarekin jarraitzen duela, baina honen "metodo globala" baino aruntzago doala, hizkuntza ikasteko "metodo naturalaren" bidez; nola Daltonen plangintza gaintzen duen, hain irekia eta dinamikoa den bere "asterako plangintzaren" bidez; Cousinet metodoa jarraituz, modu egoikiago batetan egokitzen du, aktibitateen zentzua askoz gehiago zabalduz... eta horrela beste adibide asko jar daiteke.

Ez dugu ahaztu behar, teknikak ez direla "balore" batzuk lortzeko erabiltzen diren tresnak; hori ikuspegi dogmatikoa izango litzateke. Teknikak berak "balorea" du, heurak dira balore hori, ezin dira helburu batzuk lortzeko ezartzen diren tresna batzuk bezala hartu. Freinet horren aurka joan da beti, beste hau horren aurka jarritz: "teknikak "bizitza teknikan" bihurtzen dira eta tresna zentzua baino askoz ere zabalagoa den beste zentzu bat hartzen dute".

## 2. Elkarlana, Freineten tekniken oinarria

Beldur gabe baieza dezakegu, Elkarlana Freineten teknikarik garrantzitsuena dela. Bai, Elkarlanak baldintzatuko du Freineten aktibitate guztia; alde batetik nagusien arteko Elkarlan: CEL, ICEM eta FIMEN, erakunde "freinetianoak" dira, hauen bidez irakasleak edo ikastetxe batek bere bakardadea edo isolamendua gainditu dezake, eta egiten diren kongresu eta bileren bidez esperientzia ezberdinak eztabaidatu, Elkarlanerako egiturez hitzegin, alda daitezken gauzez, jarraitu behar diren bideez... ideiak eta teknikak berrituz presentatzen diren beharren arabera.

Nagusien artean ematen den esperientzia hau berehala isladatzen da haurrengan. Elkarlanean hori beharrezkoa bihurtzen da, testu libre garai bakoitzean egokitze-ko, talde lanaz eztabaidatzeko, tipografiaren erabilpena eta bere bitartez eskolarteko korrespondentzia egiterakoan... Esan daiteke, Freineten teknikak modu egoki batetan erabiltzen ote diren jakiteko, Elkarlan mota egokiak ematen diren ala ez konprobatzea litzatekela bide zuzena; hau baita biderik egokiena, helburu batzuk lortze ote diren baino inportanteagoa. Gela komunitatea lortzen al da? Zer harreman lortzen da eskolarteko korrespondentziarekin?

Dena dela, ez litzateke zuzena, Elkarlana eskola mundura soilik mugatzea. Eskolako geletatik kanpo errealitate zabala dago, landare eta abereetatik hasi eta haurrak mugitu eta ezagutu behar duen gizarteraino. Freinetek interes handia azaldu zuen giro sozialaren aurrean eta oso aukera garbiak ere egin zituen. Horrela, Bar-sur-Loupen (1920an) kooperatiben eraiketak bultzatu zituen; geroago Sain Paulen gurasoekin batera, Elkarlanean, borroka gogorra eramane behartsuentzat eskolak mantentzeko. Horrek esan nahi du, "kanpoko giroaz" hitzegitea, eskolatik kanpo dagoenaren "estudio" bat egitea baino askoz gehiago dela; hobeto esanda, errealitate sakona ezagutu egin behar da eta honen harremanak eskolarekin; "edukietatik" at bizitza dago.

Era hontara Elkarlanak alor zabala aurkitzen du: gurasoak eta nagusiak Elkarlan honetara bultzatu behar diren elementuak dira eta Freinetentzat garrantzi handiagoa hartzen dute kontutan izanik berak langilegoarengan duen konfidantza. Klase borroka kontzeptuak gizonaren askatasuna lortzeko elementu bezala beti aurkituko dugun ezaugarria izango da Freineten ekintza eta pentsamentuan; horregatik, langile klaseak bultzatu eta indartu nahiean "eskola berria" gogor kritikatu du. Berak zuzenki ezagutu zituen "eskola berri" hauek bai Frantzia eta baita Frantziatik kanpo ere, eta berehala ohartu zen beren elitista kutsuaz, maila pribilegiatuenentzat egindako esperientziak zirela; berak basearekin, basetik abiatuz lan egin nahi zuen, eguneroko errealitatea gogorra duten eskola arruntetan. Hortik sortuko da "herrikoi pedagogia", nekazarien "sentido común" deritzan hortatik sortutako pedagogia, Freinetek bere jatorriz zeraman eta inoiz ahaztuko ez zuen "sentidoa".

## 3. Herrikoi pedagogia egun

Bidezkoa izan daiteke galdetzea zer balio izan dezaken gaur egun Freineten pedagogiak, hainbeste gauza berri agertu ondoren eta denbora pasa ondoren. Erantzuna, inongo zalantzarik gabe, baietza da, baietz borobila, Freineten pedagogiak, gaur egun, balio handia du. Adibidez, matematika modernoak kalkulu bizia aberastu egin du, baina bere oinarria desegin gabe, haurrak bere gela-komunitatean bizi duen bizitza eliminatu gabe. Horrela, linguistika estrukturalak eskolarteko korrespondentzian oinarri baliagarriak aurki ditzake, baita ere testu librean eta bere egokitzean. Freinetek, bere forma guztietan (marrakia, margotzea, antzerkia, musika...) bultzatu zituen "espresio libreak" ere, hau oinarri sendoa izan daiteke hitz gabeko komunikazioaren teorizazioan. Programatzearen beharra, hain gaurkoa eta hainbeste behartzen gaituenak, "lan plangintzan" izango luke gaindiezinezko prezedentea, modu ireki batetan ulertuz. Zihur aski aurreko honek teoria amerikano askok baino arrazoi gehiagoz planteia ditzake oinarri horiek.

Bigarren mailako eskolak (erderaz "secundarias") —nahiz eta atzerapenakin (Frantzian)— hasi dira Freinet eta ICEM deskubritzen, oso esperientzia interesgarriak bultzatu dituztelarik.

Freineten ekintza ez zen 1966an bere bizitzarekin bukatu. Bere lagun eta jarraitzaileek aurrera jarraitzen dute, bere pedagogiaren muinak daraman espirituan oinarrituz: "soluzio definitibo eta bukatuen ukapena, irekitasuna eta Elkarlana; eta denaren gainetik insatisfazioa eta ikertzeko mugagabeko egarria, gizonarengan konfidantzak ematen duen indarrean oinarriturik". Freinetek esaten duenean "inork ezin duela aurrera eramane gurea den esperientzia", askatasun eskakizun bat defenditzen ari da eta "aldatu ezin diren egien" aurka jartzen da, nortasunaren benetako eraiketa ukatzen duten "egien" aurka.

Freinet gogoratzeak ez du izan behar iraganaz pentsatzea eta iragan denaren diskurtsoa; alderantziz, Freinetek oraina esan nahi du, oraingo momentu hau. Freineten pentsamentua aztertzeak eta aplikatzeak etengabeko deskubrimetua darama, ugariak edo oso aberatsak baitira planteiatzen dizkigun estimuluak. Elkarlana eredu bezala hartuz, bere teknikak baino garrantzitsuagoa den eredu, Freinet "hezlarien hezlari" bihurtzen da, "gizonen federatzailea". Bere irudiak eta bere ekintzak, bide gogor eta hestu hauetatik jarraitzeko bultzada bihurtzen dira, "pedagogi herrikoi" hori lortzeko daramagun borrokan.

ALDO PETTINI

"Cuadernos de Pedagogia"tik egokitua

# FREINET: ETORKIZUNERAKO PEDAGOGIA

## 1. Berritzen ari praktika eta pentsamentua

Batzutan galdetzen didate noraino izan daiteken baliagarria, gaur egun, orain dela hainbeste urte sortutako mugimendu eta korrante pedagogikoa. Beste batzuk, hori galdetzera ausartzen ez direnek, urte batzuk igaro ondoren Freineten pedagogia, pentsamentuaren, kulturaren eta kriterio pedagogikoen aldaketan oinarrituriko pedagogiek gaindituko zutela.

Harrigarria da, bestalde, zalantza hauek planteiatzen dituztenak, inoiz ez direla egunero haurrekin harremanetan dauden irakasleak konprobatzea. Normalean, eskolatik kanpo daudenak edo nahiz eta pedagogiarekin harremana izan, eguneroko praktikatik urruti bizi direnak izaten dira.

Bi arrazoi nagusi aipa ditzakegu pedagogi honen gaurkotasuna baieztatzeko. Alde batetik, hezkuntza praktika, eskola, ez dago globalki orain dela berrogeitamar urte baino askoz ere aurreratuagoa. Bestalde, Freineten teknikak, bere jarraitzaileek aurrera daramatzaten teknika hauek, eten gabe ari dira esperientzi berriak jasotzen eta aportazioz aberasten, beren praktika eta oinarriak etengabe gaurkotzen, aktualizatzen direlarik.

Egia da, heziketa mundua aportazio ugariak jasotzen ari dela arlo ezberdinetatik: sikologikoa, pedagogikoa eta soziologikoa gehienbat; baina hauetatik gehienak teorikoak, akademikoak izan dira eta nahiz eta batzutan konprobatutako esperientzietan oinarritu, praktika iraunkor batetan isladatu dira.

Freineten pedagogia, aldiz, praktikan eta praktikatik sortu zen, eta izan da eta da eskolako eguneroko egin-beharretan sortutako esperientziaren ondorioa. Freineten teoria ez da idaztegi edo laboratorio batetatik ateratako liburuetan oinarritzen. Errealitatearen azterketa sakon baten ondorioz ezarritako teorietan eta ideia berritzaileak jarraituz, intelektualismoa ukatzen duen eskola praktika bat sortzen da, bere esperientziak konkretatzen eta bide batzuk zabaltzen doan pedagogia, bizitzarekin eta aurrerabide material eta kulturekin batera joango den eskola berria, nahi duen edonork jarrai dezakeena.

Baina esperimendatutakoa, esana eta idatzia ez da aldaezina. Pedagogi berri baten bideak aurkitu dituztela uste dutenek, gehiago irekitzen eta zabaltzen saiatzen dira, erreflesionatuz, eztabaidatuz, beste lankideen aportazioak jasoz, ondorioak konprobatuz, e.a. Etengabeko erreflesio hau, aurreratze hau, ezin da liburuetan soilik oinarritu; etengabe eta egunero esperientzia eta aktibitate hau jasoko duen argitarapena behar du, ekintza konziente eta konprometitu batek lortuko duen elkarlanerako argitarapena.



Horrelako pedagogia, pedagogi bizia, bilakatu egingo da, baina inoiz ez da zahartuko.

## 2. Tekniken deskubritzea

Freinetek, zahartuta eta ingurunearekin harremanik gabe dagoen eskolaren aurrean, berak nahi duen edo uste duen eskola lortzeko bidean tresna batzukin baliatu beharrean aurkitzen da. Hortarako, ordurarte egon diren ideia pedagogikoetan eta garai horretan indartuz doazen beste batzutan oinarritzen da.

Bere eskolan irakaslearen eta hitzen paper nagusia alde batetara utzi behar badu eta lana ezin bada irakaslearen ikasgai majistraletan, kuadernoan, harbelean eta testu liburuetan oinarritu, zerbait egin behar du, aldaketa hori eman dadin, aldaketa hori bultzatuko duten tresnak behar ditu. Eta honela jaioko dira praktikan jartzen dituen lehendabiziko teknikak: testu librea eta eskola prentsa, hauetatik, gelako bizitza adierazten duen liburua, eskolarteko korrespondentzia eta ikasleek egingo duten ikerketa eta estudio lana sortuko dira.

Baina gehiago esan behar da. Ez dira teknika konkretu batzuk Freinetek martxan jarri zuen eskola motaren ezaugarri nagusiak. Ezta ere teknika hori bitartekoa, helburua baizik. Freineten eskolak ez ditu "inpresoreak" sortuko, moldezko letrak haurren zerbitzuan jarriko ditu, liburua, prentsa edo eztabaida eta kritikarik gabe inposatu nahi den edozein ideia desmitifikatu eta baztertu ahal izateko.

Teknika bat edo batzuk erabiltzeak ez du esan nahi herrikoi eskola mugimenduan partehartzen denik, bitarteko material hauek ez baitira nahiko eskola aldatzeko, hauekin batera "Freineten ispiritua" ematen ez bada. Teknika hauen gaintik "Freineten pedagogia" dago, guztiari batasuna emanez, ekintzaren muina bihurtuz eta kontenidoz betez egiten den guztia.



## 3. Lan moeta bat: Elkarlana

Freineten ekintzaren ezaugarri nagusia, beste edozein pedagogi teoriatik diferentziatzen duena, maila guztietan eta etengabe agertzen den Elkarlana litzateke, ikasleen arteko Elkarlana, gelen artekoa, ikertze lanaren emaitzen elkarren artean banatzean, lana erabil tresna bezala eta ez aldatze tresna bezala erabiliz. Berdin berdin gertatuko da ikasle eta irakasleen arteko harremanetan, bertan irakasleak zeregin oso konkretua izango du, koordinatzaile eta konbibentzia eta gizarte bizitzarako hezlaria izango da. Irakasleen artean antzerako zerbait gertatuko da, etengabeko harremanetan egongo baitira, esperientziak elkarren artean aldatuz, arazo eta soluzioak elkarren artean aztertuz, eta denon artean, "Elkarlanean" bere praktikaren bidez, beren arrazoitutako esperientziaren bidez, "Freinet pedagogia" osatuz, gaurkotuz eta bultzatuz.

Freineten pedagogian oinarrituriko mugimenduak "kooperatibo" hitza daramate, eta hau ez da kasualitatez: "Institut Cooperatif de l'école Moderne" Frantzian, "Movimiento Cooperativo de Educación Popular" Espainian, "Movimiento de Cooperazione Educativa" Italian. Nahiz eta hemen (Espainian) estamentu ofizialek ez jakin zer dion hiztegiak "Cooperar" edo ekarlanari buruz eta pentsatu material bat erabiltzeko, egiteko edo kontsumitzeko talde bat dela.

Freineten pedagogia "Elkar lanaren pedagogia" bezala defini daiteke, suposatzen duen pertsonen arteko harremanen aberastasunagatik eta harreman horiek emango ez balira heziketa ekintzak zentzurik ez duela suposatzen duelako.

Ez du inongo garrantzirik noraino heldu den —nahiz eta izugarritzko mailak lortu irakasle bat edo gela bat— Freineten pedagogia aplikatuz, maila guztietan elkarlana desagertzen bada. Irakasleak beste lankideekin harremana galtzen badu, pedagogi ispiritua galdu egiten da eta autosatisfaziozko ohizko dinamikan sartzen gara, teknikek bere balioa galtzen dute eta eskolak bere indar berritzailea galtzen du. Bakarrik, isolaturik lan egiten duenak, ez ditu bere lanaren edo ekintzaren helburuak betetzen eta ente ofizialen aurrean, indar erreakzionarioen aurrean eta nagikeriaren aurrean amore emanez bukatuko du.

Elkarlanaren ideia sakonki errotuta dago Freineten pedagogian. Frantzian bere jarraitzaileek "pedagogi taldeen" osaketa proposatzen dute gaur egun, bertan ahalik eta irakasle gehien integratuko litzateke eta hori ez bada posible, gutxienez bere lanaz eta egin beharraz kontziente direnak. Aldi berean, beste pedagogi mugimendu batzuekin lan egitea proposatzen dute —Frantzian heziketa berrirako taldea (GFEN) eta Heziketa aktiborako hezitze zentrua (CEMEA)—, heziketaren eta eskolaren aldaketa politiko sakona eman dadin, honek ez litzuke alde batera utziko premia haundiagoa duten egin behar batzuk, pedagogi programak eta eskolako eguneroko errealitatea, hain zuzen.

## 4. Teoria psikologiko bat: Esperimental tanteoa

Freineten pedagogiaren garrantzizko ezaugarria erderaz "tanteo experimental" deritzan teori psikologikoa litzateke. Bakoitzaren hezitze lana izango litzateke, taldeka edo bakarka egindako prozesua, trebetasun eta edukiak jaso ahal izateko.

Bizitzak eta errealitateak mota ezberdinetako arazoak planteiatzen dizkiote haurrari, hauek, berak konpondu behar ditu, nahiz eta batzuetan nagusien partehartzea behar izan. Garrantzitsuena hori lortzea da, haurra bere arazoan aurrean jartzea, garaipen horrek bultzatuko baitu, teknikak jasotzen dituenean, urrutirago joatera, haruntzago aztertzerara.

Gizabanakoak bere baitan dauden galderei edo eskakizunei erantzun behar dienean, erreakzioak mekanikoki ematen dira eta ez dute garrantzi edo islada haundirik. Baina gizakiarengan bereziki, bere gainetik dagoen zerbaitek partehartzen du, gizabanakoarengandik kanpo dago, bere aurretik izan direnen milaka urtetako trebetasun eta jasotako eduki eta jakinduria: Esperientzia onartzea, intelijentziaren lehen urratsa.

Esperimental tanteo hori, esperientziaren onartze horrekin elkartuz, prozesu orokor eta unibertsala da. Bilakatuen dagoen izakiarengan soil soilik mekanikoak diren tanteoak, berehala bihurtzen dira aztertze intelijentearen forma. Etapa batetik bestera aldatzea bakoitzaren araberan dago. Bere tanteoen emaitzak aprobeztatzeko zihurtasuna edo azkartasuna, beren heldutasun edo ahalmen intelektualaren araberan dago.

Prozesu hau aurrera eramateko, helburu batzuetara heltzeko, tanteo horrekin jokatzeko da, tanteo horrek bidea erakutsiko dio bakoitzari, ahalegin ezberdinak egin ondoren bide zuzena lortu arte.

Prozesu hauen ulertzeak, apendizaiaren metodoloji naturala den prozesu honek, pedagogi praktika bat darama, Freineten pedagogiaren oinarrian aurkitzen den praktika.

## 5. Kontzeptu soziologikoa: Herriko heziketa

"Eskola Modernoaren" mugimenduak, hasieratik, herriarentzat zen eskolaren kutsua izan zuen. Alde bateatik, Freinet eta bere kideak eskola publikoan, herrikoian, lan egiten zutelako; bestalde, beren ideologiak denentzat izan behar zuen eskola batetara eramaten zituelako, bereziki ekonomikoki behartsuenentzat izango zen eskola batetara.

Freinetek orain dela 50 urte, heziketa sistema kritikatu zuenean eta pedagogi ezberdin baten oinarriak finkatu zituenean, erreakzioaren eta administrazioaren erasoak jaso zituen.

Nahiz eta jakin eskola berri bat ezin dela eman sozial egiturak aldatu gabe, Freinet eta bere kideak ez ziren honen zai gelditu bere lana eskolan aldatzeko eta berritzeko, ikasle eta irakasleen arteko autoritarioak ez diren harremanak finkatuz eta ikasgai majistralak

# BIBLIOGRAFIA - PEDAGOGIA - FREINET

### BIBLIOGRAFIA - PEDAGOGIA - FREINET

#### I. CELESTIN FREINET-en LIBURUAK

- Parábolas para una pedagogía popular. Laia. Barcelona, 1979.
- Por una escuela del pueblo. Laia. Barcelona, 1976.
- Técnicas Freinet en la escuela moderna. Siglo XXI, México, 1976.
- Ensayo de psicología sensible. Fondo de Cultura Económica, México.
- Los métodos naturales I. El aprendizaje de la lengua. Laia / Fontanella. Barcelona, 1972.
- Los métodos naturales II. El aprendizaje del dibujo. Laia / Fontanella. Barcelona, 1972.
- Los métodos naturales III. El aprendizaje de la escritura. Laia / Fontanella. Barcelona, 1972.
- La educación por el trabajo. Fondo de Cultura Económica, México, 1971.
- La psicología Sensitiva y la Educación. Troquel.

#### B.E.M. BILDUMA - LAIA ARGITALETXEA

- N. 1. Modernizar la escuela.
- N. 2. Las invariantes pedagógicas.
- N. 3. La formación de la infancia y juventud.
- N. 4. La educación moral y cívica.
- N. 5. Las enfermedades escolares.
- N. 6. Dibujos y pinturas de niños.
- N. 7. El papel del maestro y del niño.
- N. 8. El texto libre.
- N. 9. Las técnicas Freinet en el parvulario.
- N. 10. La enseñanza del cálculo.
- N. 11. La salud mental de los niños.
- N. 12. La enseñanza de las ciencias.
- N. 13. Los planes de trabajo.
- N. 14. La lectura en la escuela por medio de la imprenta.
- N. 15. El fichero escolar.

eta testu liburuak baztertuz. Jakinduria, edukiak eta zientzia hauraren esperientziaren menpean jartzen dute, haurari partehartzen utziz eta ardurak emanez. Eskola hemendik aurrera ez da zapaltzailea, alienantea, larritasun edo beldur toki izango.

Eskola barnetik aldaketa aurkitu nahian, guraso, herriko erakunde eta gazteekin batera borroka eginez, irakasleek etengabe planteiatzen dute helburu hori, eskola herrikoia helburua, bizitzari eta gertaera sozial eta zientifikoei erantzun bat emango dien eskolaren aldaketa.

ICEM (lehen aipatu dugunez Freineten teoriatik kanpo utzi ezin daiteken erakunde)en kongresuan, 1975. urtean, Burdeoson, Eskola Herrikoia sendo eta zabal oinarrituko duten bitartekoen azterketa bultzatuko da.

Freineten, eta eskola modernoaren mugimenduaren ikuspuntu ideologiko eta teorikoaren berritze eta gaurkotze prozesua hasten da. ICEMek datorren edo susmotzen den gizarte baten arabera moldatu nahiko lituzke, sozialista kutsukoa, heziketaren oinarri berruzko eztabaidak bultzatuz, bere analisiak guraso, langile, sindikatu eta alderdi politikoen eritziekin aurrez-aurre jarritz, borroka eremua mugatuz, eta sistema honi erantzunak eman nahiean dabilzenekin, edozein arlotan (heziketan, ekonomian, lan arloan, hiritar arloan...) batasun batetara heldu nahiez.

Posizionatze hauetatik dokumentu zabal bat aterako da "Herriko heziketa batetarako ikuspuntuak", "L'educateur" k argitaratzen du, 1978ko Urrian; Españako MCEP itzultzen eta egokitzen ari da, ikerketa eta lan elementu bezala.

Egungo irakaskuntza sistema aztertzen hasten den dokumentu horretatik hitz batzuk ateratzea interesgarria iruditzen zait:

"Ilusio grabea litzateke, heziketa munduan aldaketa bat emateak, gizartearen aldaketa suposatuko lukeela pentsatzea. Baina berdin berdin ukatuko genuke alde-rantzizko ilusioa, hau da, aldaketa politiko batek berez, irakaskuntzaren aldaketa dakarrela pentsatzea. Ez da inoiz iraultza politikorik emango irakaskuntza eta kulturaren iraultzan oinarriturik ez bada, eta hau ezer itxaron gabe prestatzen saiatu behar dugu".

"Edozein baldintzatze edo dotrinaren aurka gaudenez, ez dugu inongo zalantzarik, gure borroka irakaskuntza, hezkuntza berri bat eman dadin, borroka politiko eta sozialaren baitan kokatzen dela baieztatzeko. Baldintzatzea, jerarkia, agintea, konpetizioa, bakoitzaren promozioa, alienazioa eta propietatea defenditzen dituen heziketa eta sozial sistema baten aurka beste balore batzuk defendituko lituzken hezkuntza proposatzen dugu, ispiritu kritikoa, elkarlanak daraman ardura, elkarrekin bat egitea, elkar laguntzea, elkarlana, bakoitzaren bilakaera, partehartzea e.a. hain zuzen".

"Oso ondo dakigu edonork bereak egin ditzakela hitzak. Erreakzionarioen ere oso ideia politen atzean gordetzen dute beren burua. Freinetek sarritan Barbussen hitz hauek aipatzen zituen: **"Hitza besterik ez diren hitzak ia gezurrak dira. Beraz erakutsi ditzagun gure pedagogi orientabideak ez daudela ekintzez utsik"**.

Josep Alcobé

"Cuadernos de Pedagogia"tik egokitua

- N. 16. Consejos a los maestros jóvenes.
- N. 17. El diario escolar.
- N. 18. Las técnicas audiovisuales.
- N. 19. El método natural de lectura.
- N. 20. Las correspondencias escolares.
- N. 21. Medio local y geografía viva.
- N. 22. Aspectos terapéuticos de la pedagogía Freinet.

## II. FREINETEN PEDAGOGIARI BURUZKO LIBURUAK

- DIVERSOS. La pedagogía Freinet por quienes la practican. Laia. Barcelona, 1979.
- FREINET, E. La trayectoria de Celestin Freinet.
- PETTINI, A. Celestin Freinet y sus técnicas. Sígueme. Bilbao, 1978.
- PIATON, G. El pensamiento pedagógico de Celestin Freinet. Marsiega. Madrid, 1975.
- FREINET, E. Nacimiento de una pedagogía popular. Laia. Barcelona.

- FREINET, E. La escuela Freinet. Laia. Barcelona, 1981.
- OURY-VAZQUEZ. Hacia una pedagogía del siglo XX. Siglo XXI. Barcelona, 1969.
- I.C.E.M. Perspectivas de la educación popular. MCEP. Granada, 1980.
- M.C.E.P. La escuela Moderna en España. MCEP. Granada, 1980.

## III. ALDIZKARIETAN FREINETI BURUZ ARGITARATUTAKO LANAK

- Revista del Movimiento Freinet en España (M.C.E.P.) Colaboración. Apdo. 2.085, Granada.
- Cuadernos de Pedagogía (Constitución 18-20 - Barcelona - 14):
  - Nº 35, noviembre 1977: Técnicas Freinet en España.
  - Nº 54, junio 1978: Dedicado a Freinet.
- Guix (Carrer de l'Art, 81 - Barcelona - 26):
  - Nº 20, junio 1978: Mesa redonda sobre Freinet.
  - Nº 52, febrero 1982: Dedicado a Freinet.



**I.T.E.****Ahalmenak lantzeko programagintza**

Ondoren datorren sail honek "ITE" edo "Instituto de Técnicas Educativas" delakoa zer den eta Euskadin nola aplikatzen ari den agertu nahi du.

Batetik, Urola bailaran, konkretuki nola aplikatzen duten agertuko du Eusebio Larrañaga, bertako irakasleak. Hortxe dago aukera eta berauek beren aplikapena eman diote.

Ondoren, eta konparazio gisan, ITEren programazio bat agertzen da, erderaz, dagoen bezalaxe.

Azkenik, ITE Euskadin sartzeak dituen arrisku, baldintza eta zalantzak agertuko ditu Manolo Cainzosek. Beste irtenbide posible batzuk ere agertzen dituelarik.

Hara, bada, bi ikuspegi oso desberdin gauza bakar eta konkretu bat aztertzekeo garaian. Irakurleak atera bitza bere konklusioak.

Duela bizpahiru bat urte Euskadiko zenbait ikastetxek heziketarako programagintza berri bati hasera eman genion. Ikastetxe hauen tartean Urola Bailarako ikastolak aurkitzen gara.

Programagintza honetaz zenbait lerro idatziaz, bere kontzeptu eta bereizgarri nagusienak aipatu nahi nituzke. Hau da, zeintzuk diren bere bideak eta prozedura.

Lehendabiziko zatian haserako historia eta oinarri teorikoak adierazten saiatuko naiz. Bigarren zatian, prozeduraren eskema orokorra.

## 1. Zergatik sartu ginen plangintza honetan?

Edozein ikastetxetako irakasleek egin ohi duten bezala, gu ere ikasturte bat igaro ondoren, gure azterketa egiten saiatu ohi gara. Heziketa osoak eskatzen dituen baldintzak betetzen ditugun jakiteko, pasatzen ditugu ordu batzuk. Eta dudarik gabe, aurkitzen ditugun hutsuneak eta faltak, hurrengo urtean betetzeko eta zuzentzeko asmoz.

Urteetan zehar, aurkitzen genuen hutsune hauetariko bat zera izaten zen: Instruzio eta aktitutei dedikatutako denboraren artean nolabaiteko desproporzioa. Hau da, haurra jakintzaz betetzeko denbora askoz gehiago erabiltzen genuela bere


gizabideko joerak edatzeko baino. Beste era batera, haurrari eskatzen zitzaion esfuerzua edo indarra probetxu guttirako ez ote zen izaten.

Nahiz eta teorikoki irakasle guziok ados egon, instruzioa heziketagintzaren alderdi bat besterik ez zela, eskola ematerakoan dirudi bera zela, ia ia, alderdirik nagusiena eta bakarra.

Luzaro aztertu ondoren, haurren joera edo aktituteak gehiago lantzen zituen programakuntza bideratzea erabaki genuen. Heziketagintza osatuagoa bideratzen zuen programagintza.

Zenbait albiste jaso ondoren, I.T.E.'ko talde batekin elkarrizketatu ginen. Eta talde honek eskaintzen zuen programagintzak heziketa osatuago bat lortzeko bideak ematen zituela pentsatuz, sistema hori gureganatzeko urratsak eman genituen.

Nor dira I.T.E.'koak? Irakaslegoaren erreziklajera dedikatu den irakasle taldea. Alcalá de Henaresen dauka bere ikastetxea. Beraien lanik konkretuenetako bat, "Universidades Laborales" zuzentzea izan da. Hizkien esanahia zera da: Instituto de Técnicas Educativas.



## 2. Programagintza honen oinarri teorikoa:

Eskema baten bidez ikuspegi orokorra azaltzea intentatu dut. Bertan ikusten dira kontzeptu nagusien terminoak: Ahalmenak, joerak, heziketaren egitamua, e.a.

Programagintzaren bi zutabezko ideiak hauek dira: ahalmenak eta joerak. Zer diote kontzeptu hauetaz?

Beraiek, ahalmen orokorraren ordean "ESQUEMA ACTIVO" erabiltzen dute eta horrela definitzen dute:

"Esquema activo es «la capacidad que el hombre posee y que le posibilita el enfrentarse y resolver situaciones complejas de su entorno técnico, científico y social». (1)".

Hontaz oinarrituz, heziketak lortu behar duen lehendabiziko meta zera da: ahalmen hedaketa. Haurrak, ttiki-ttikitatik birtualki dauzkan indarrak edo ahalmenak zabaltzea. Eta noski, erabiltzen den metodologia sistematikoki helburu hori lortzera joan behar du. Dударik gabe, haurraren ebaluaketa montatzera koan neurtu behar dituen alderdiak ahalmenari dagozkion alderdiak izan beharko dute.

Beste era batera esan ohi dute:

"La capacidad desarrolla en la persona un modelo tanto para actuar de una forma determinada, en una situación real, como para interpretar la realidad de acuerdo con los conocimientos y modelos adquiridos, pero siempre susceptibles de cambio." (2)

Eta bigarren ideia nagusiak horrela dio: Zer da joera edo aktitudea?

"Sistema más o menos duradero de valoraciones positivas o negativas, de estados emocionales y tendencias a actuar en pro o en contra con respecto a un objeto determinado. Este objeto puede ser una persona, unas ideas, un objeto material, una situación etc." (2)

Zer esanik ez, heziketagintza oso batek alderdi hau indartu behar duela. Haurrak aurkitu behar duen eskola giroa bere joerak edatzekoa izan behar du.

Jarri ditzagun zenbait adibide:

... Ahozko eta idatzizko mezuak ulertzea.

... Ahoz, idatziz, plastika eta dinamika bidez aditzen ematea.

... Sorturiko gauzakiak estruktura eta funtzioengatik bereiztea.

...

... Elkarrizketarako joera.


... Ikasleen arteko laguntzarekiko joera.

... Taldean parte hartzearekiko joera.

Hemen aipatu ditugun joerak eta ahalmenak, adibideak besterik ez dira. Eskola bakoitzak, bere ingurua kontuan edukirik, bere ikasleen gizarteko giroa aztertutik, noski, ahalmen eta joeren aipamen berezia egin behar du. Eskola bakoitzak aukera behar ditu bere ahalmen eta joerak. Eskola bakoitzak ordenatu eta errunkatu.

Programagintza honen bi ideia nagusi hauek azaldu ondoren, pasa gaitzen eskema orokorra adieraztera.

# Eskema orokorraren adierazpena



## 1. Heziketaren egitamua:

Heziketagintzan erabili ohi diren ideia nagusienak. Norabidezko ideia. Helburu nagusiak. Hona hemen zenbait puntu:

... Ikasleak bere pentsamendu edo eta sentimentuak adierazteko askatasuna izango du.

... Ikasleak, bere inguruan sortzen diren ekintzetan partaide izateko aukera izango du.

Egitamu hau aukeratzekoan, bertan izaten diren protagonista guztiak parte ohi dute: guraso, irakasle eta ikasle.

## 2. Ahalmen orokorrak (esquemas activos):

Aurrez esan dugun bezala, ahalmenetaz idazterakoan zer ulertzen dugu? Gizaki guztiek dauzkaten kernenak, posibilitateak, bere inguruko gizarte - teknika - zientziako problemei erantzuna emateko.

Ahalmenen hedaketa osoa, bizi guttiko lana izan ohi da.

... Mezuen interpretapena  
 ... Ekintzen edo egoeren deskribapena.

... Egoeraren analisisa.

...

## 3. Oinarrizko helburuak:

Eskolan, egunoroko plangintza zehazterakoan, ezin dugu ahalmen orokorrekin zuzenean jokatu. Erabat zabala delako. Ahalmen orokorra desglosatu egin behar da. Banatu. Sinplifikatu. Hau da, hamabostaldi edo hilabete batetako saioaldi batean landu daitekeen eran. Edukiak argibide handia emango dute zati-keta honetan.

... Ahozko eta idatzizko mezuak interpretatzea.

... Ahoz, idatziz eta dinamika bidez aditzen ematea.

... Ekintza eta egoera naturalen deskribapena egitea.

Irakaskintza plangintzan, ideia nagusia haxe da. Oinarrizko helburu honekin, zuzenean lana egin ohi du irakasleak.

## 4. Metodologiaren tresnaketa:

Har dezagun Oinarrizko helburu konkretu bat: IDATZIZKO MEZUEN INTERPRETATZEA.

a - Edukien ezarketa: ENEKO HARITZA Liburua.

Joeraren ezarketa: Lanaren aurkezpen txukuna.

Teknikaren ezarketa: Ahozkatzea.

b - Helburu eginkorra:

... Kapitulu bakoitzean agertzen diren garrantzizko elementuen identifikatzea.

... Liburuan agertzen diren lehendabiziko bost ekintzen deskribapena.

... Liburuan agertzen diren pertsonaia guzien deskribapena.

...

c - Ariketen antolaketa: (Pauso metodologikoak).

Helburu eginkorrek lortzeko eskaintzen diren ariketak.

Dударik gabe, ahalmen ezberdinak direnez gero, bakoitzarentzat pauso ezberdinak izango dira.

Gure adibideari jarraituz:

1. Elementuen identifikatzea:

... Pertsonaia guzien izenak aipa itzazu.

... Ekintza nagusienak aipa itzazu.

...

2. Elementu, bereizgarri eta funtzioen aipamena: Ulermen galderak.

... Hamabi gizonen zein lurraldetako jendetza ordezkatzeko zuten.

...

3. Ekintza eta egoeren adierazpena:

... Deskripziozko ariketak


Eneko Haritzaren pertsonaia deskribatu ezazu.

...

4. Ekintza eta egoeren laburpena

... Idatz ariketak

Ehizaren ekintza labur ezazu.



Eta horrela jarraitzen dute beste pausoek.

d - Ebaluaketaren antolaketa:

● Lehendabizi, irakasleak aukera bat egin behar du. Zeintzuk dira Oinarrizko helburuaren alderdi nagusienak?

... Elementuak identifikatzea.

... Ekintza eta egoeren deskribapena egitea.

... Mezuaren muina adieraztea.

● Bigarren, irakasleak, aipatu ditugun alderdiak neurtzeko, ikaslea egoera konkretu batean jarri behar:

... Ikasleari zati batzuk emanaz, pertsonaia aipatu.

... Pertsonaien zerrenda emanaz, bakoitzaren ekintza konkretu bat deskribatu.

...

● Eta, azkenik, azterketa.

... Idatz ezazu Abarca de Eneko eta Xalapartak daukaten importantzia nobela honetan.

... Zerrendan daukatzun ekintzetan Eneko Haritzarekin zer ikusia daukana azpimarra ezazu.

*Eusebio Larrañaga*

(1) Documentación: Sistema educativo de UU.LL. Marzo - 1977.

(2) Idem.

# I.T.E.

Programazio teknika batetan oinarriturik, alternatiba berezi bat finkatzen ari da Euskadin. I.T.E. (Instituto de Técnicas Educativas) taldea, proiektu hau erregulatzen duena, ikasketa teknika berriak aplikatu eta esperimentatzen ari den tekniko eta ikertzaile ekipo bat da. Gure artean, hauen lana, piskanaka-piskanaka arrakasta hartzen ari da. Izañ ere, ikastetxe ezberdinak ari dira maila ezberdinetan, proiektua aplikatzen.

Lan honek, eredu honen kontrapisu izan nahi du, nahiz eta aukera eta erakarketa positiboak izan, aldaketa pedagogikoa eman dadin arrisku eta muga asko duen eredu.

## 1. I.T.E.ren programatze teknikak

### — Abiapuntua

“Irakaskuntza proiektu” batetatik abiatzen da (Instituzio eskolarraren helburuen finkatzea, juntak, gurasoek, irakasleek parte hartuz) eta mailaka eta kurtsoka definitzen diren irakaskuntza oinarri batzuen bidez azaltzen da.

### — Oinarri bezala dituen premisak

PROGRAMATZEAZ zera ulertzen da: “ikasi behar dutenen kapazitateen alderdi ezberdinak (oinarrizko helburuak) antolatzea eta definitzea aplikatu aurretik. Partehartzen dutenen portaera partzialak (operatorio helburuak), hauen ebaluaketa, eta helburu horiek lortzeko jarraitu behar den estratejia, formalizatua eta formalizatu gabekoa, definitzea”.

Eta analis prozesu bat finkatzen da, kapazitateak, hauen alderdi ezberdinak eta portaera partzialak mugatuz, edukiak eta bere antolaketa elementu hauei baldintzatuz.

### — Kontzeptuen argibidea

— “Oinarrizko helburua” zera da: “errealitatearen arlo konkretuak aztertu eta konpontzeko aukera ematen dion gizonaren kapazitatearen aspektoa”. Bi zatitan bana dezakegu kontzeptu hau: Sujetoarena eta objektuarena.

Sujetuarena, normalean, **infinitekoan dagoen ekintza aditz batek osatzen du** (adibidez: mapak “begiratu”, planoak “diseinatu”, hau “zenbatu”). Objektuarenak, ikasi behar duenak, urtean zehar, erabili behar dituen errealitate batzuk azaltzen ditu, baina orokortasun edo generalizazioa suposatzen duten termino batzutan emanda.

— “Operatorio helburuak”, programatze teknika honen elementu direlarik, bakoitzean behar den “oinarrizko helburua” lortzen lagunduko diguten portaera partzialak izango dira (hori portaera partzialak jaso eta integratuz lortuko da, noski). Hiru motatako helburuetan sailkatu daitezke:

- Ezagupenaren operatorio helburuak: Ikasketa epe bat bukatu ondoren ikasle batek izan behar dituen printzipio, lege, eredu, momentu bakoitzeko kultura eredu nagusiak... jasoko lukete.

- Tekniken aurrerabiderako operatorio helburuak: Edozein eragiketa egiteko balio digun ekintza sorta ordenatua izango litzateke, honek egoera ezberdinetan balio dezake. Teknika hauek, esku teknikak edo intelektual teknikak izan daitezke.

- Aktitudeen aurrerabiderako operatorio helburuak: Egoera, pertsona edo objektu batetaz egin daitezken juizio edo izan daitezken sinismenei dagozkie, eta pertsona, egoera edo objektu horretaz orientabide konkretuaz (aldekoa edo aurkakoa) erantzutera darabate.

- Ebaluaketa hau da: Erabaki batzuk hartu ahal izateko helburuak bete ote diren konprobatzea.

### — Programaketaren prozesua

— Oinarrizko helburuak formulatzea: bai sujetoarena, bai objektuarena den alderdian, eta eragiketa bat baino gehiago izan dezake.

— Edukiak batzea: abiapuntua oinarrizko helburuek eta programa ofizialek osatuko dute.

— Operatorio helburuak formulatzea; hemen oinarrizko hiru elementu aurkitzen ditugu:

- ZER, lortu nahi den portaera partziala, azaltzen duen ekintza aditz batetan datza, eta ekintza hori jasotzen duen konplementua.



## 2. Teknika honen analisi kritikoa

### Oinarri teorikoak

#### Oinarri psikologikoa

Programazio teknika hau (ITE) apendizaiaren psikologian oinarritzen dela garbi dago, korrante konduktistekin hestutik lotuta dagoelarik. Estimulua-erantzuna bikotean zentratuz, ikastea psikologiaren oinarriko fenomenotzat hartzen du, inguruaren papera indartuz.

Konduktista ereduak eragin handia izan du eskola giroan, eragin hau maila ezberdinetan eman da: zigorra eta erreforzamenduen eraginei buruzko nozioak, programaketa "milimetratu" baten beharra, irakaskuntza "programatua" eta "irakasteko makinak", apendizaiaren garrantzia.

Arazoa zera da, orientabide honek, nahiz eta eragin handia izan, oso aplikapen urriak izan dituela eskolan, eskolan sortu daitezken egoeretan.

Esan daiteke psikologia konduktista ereduak krisian dagoela. Psikologiak, beste zientzia batzuen aurrerabidea jarraituz, "kaja beltzaren" eredu zientifikoetatik (kuantifikazio estadistikoetatik kezaturiko ereduak) barne prozesuen ezagupena emateko gai izango diren eredu teorikoetara pasa nahi du.

Objetibismoa, kuantifikazioa... eredu honen ezaugarriak, zientziaren beste balore batzuen pean egon gehar dute eta ez zientziak zer izan behar duen edo zer ez duen izan behar honen definitzaileak.

Neokonduktistek ere, konduktismo erradikala modu progresista batetan moldatu nahian, bere itxitasuna iriki dute edo behintzat hortaz ahalegindu dira, barne barietateak onartuz eta heurak formulatutako arau batzuen irregulartasuna adieraziz, eta portaera forma nagusi batzuetara irikiz.

Pedagogi zientifiko baten finkatzeak, psikologia zientifiko edo ezagupenaren prozesuei buruz landutako zientzia eskatzen du aurretik, zientzia honen eboluzioa gizakiengan eta bere transmisioaren ezaugarriak. Eta azken urtetan aldaketa sakonak eman dira ohizko psikologiaren teorian.

Horregatik, ezagupenaren psikologiaren bilakerak, jenetika epistemologikoak, ezagupena informazio prozesua bezala hartzeak, sortze prozesuaz ikerketek, egitura ereduak... hezketa konduktista ez diren oinarri batzuetara eraman gaituzte.

#### Oinarri pedagogikoa

Alde batetik, programatze teknika honek "efizientzia baloratzen du nagusiki", efizientzia da garrantzitsuena. Eta ez da harrizkoa, gizarteak osatutako eskolak emaitza sozial batzuk eman ditzan, efizientzia eta errentabilitatea baloratzea, ez ondorio batzuk izan ditzaten, baizik eta gizarteak presupostu horiekin jokatzeko duelako eta hori berak, ondorio gabe baloratzen duelako.

- NOLA edo zirkunstantzia multzoa eta/edo portaera jasotzeko (lortzeko) pentsatuak dauden abiapuntuak.

- ZENBAT edo portaeraren jasotzeak izan behar dituen muga kuantitatibo edo kualitatiboak.

— Operatorio helburuak batzea: hau ez da bakarrik aukeratu diren Oinarriko Helburuen berezitasunaren arabera egongo, baita ere Operatorio helburuak batzeko erabilitako kriterioen arabera. Kriterio hauek honako hauek izan daitezke:

- Elkartze bakoitzean erabilitako informazioan koerentzia bat mantentzea.

- Operatorio helburuen sorta, Oinarriko helburuekiko bete behar duen funtzioaren arabera osatu. Jasotzea, aplikatzea, informatzea, zabaltzea... izan daitezke funtzio posibleak.

— Oinarriko helburuak ebaluatzeko edo neurtzeko diseinua.

Oinarriko helburuak jasotzeko behar ditugun egoera eta baldintzak konprobatzen ditugun momentua izango litzateke hau, erabakiak hartu ahal izateko eta jakiteko zeintzuk diren momentu aproposenak konprobazio hauek egiteko.

— Pertsonal teknikak hautatu, burutu eta eraiki. Didaktiko bitartekoak osatu.

— Ebaluatze probak egin eta hautatu.

Aurrekoa frogatzeko estudio eta azterketa asko dago. Heziketan aplikatutako eredu "utilitarista", lantegietan aplikatutako "Taylorista" ereduarekin parez pare doa mende honetan, produkzioan kantitatea eta kalitatea gehitzeko posibilitateak emanaz. Berez, heziketak, planifikatze eta jestiorako, entrepresa ereduak hartu ditu, planifikatze orokorra (sozio-politiko maila), organizazio jestioa eta hezkuntz funtzioa bereiztuz.

Arazoa da, heziketan efizientea izan daitekela arrazoiak ezagutu gabe, beste giza aktibitate batzuetan gertatzen den bezala. Eta ITE, nagusiki, heziketa prozesu "efizientea" egiteko bidea da, "razionalki efizientea". Baina orain efizientzia kontzeptu horren atzean dagoena alde batera utzita gure buruari galdetu dezaikegu: Zer efektibitate du programaketa zehatz honetatik abiatuz irakatsi-ikasi ekintza horrela egituratzeak? Non oinarrituz esan dezakegu heziketa programatzeko metodologია honek beste batzuk baino emaitza gehiago dituela? Razionaltasun eredu nahi izateak ez du esan nahi hala denik.

Hezkuntzaren historiak, hezkuntza prozesuaren arrazotasuna ulertzeko beste modu batzuk eskaintzen dizkigu. Heziketa eratzeko plangintzak, helburu batzuk lortu nahi izatea eta hortarako bitarteko egokienak aukeratzea esan nahi du. Ezberdintasuna, zer helburu nahi diren, zer bitarteko aukeratzaren diren eta zer prezisioarekin mugatu nahi diren batzuk eta besteak definitzerakoan aurkituko ditugu.

Beraz, ITE, heziketa razionalizatzeko ahalegin bat dela esatea alderdikeria (edo partziala behintzat) eta pretenziosoa litzateke. Dena dela, ongi uler daiteke (izan duen "arrakasta", bitartekoen ekonomi haundiagoa eta efektibitatea behar duen mundu konplexu eta teknifikatu honetan mugitzen garelarik.

Kontestu honetan, espontaneitatea, bakoitzaren aukera, ustegabearen azterketa, bide berriak... ez dute balio, ez daude onartuak, eta bigarren mailako helburu bezala geldituko dira eskolarizatutako heziketan; epe motzean errendimendu material gogorra eskatzen duen gizarte batetan, giza ahalmenak aurrez jarritako eredu batzuen pean jartzen duen gizartean, onartezinak dira prentzio horiek.

Bestalde, **egokitze** prozesua deitu dezakegun pedagogi eredu hau, ez zaigu baliagarria egiten gaur egun industri gizarte honetan ere, honek planteiamendu sortzaileak eta estimulatzaileak behar baititu sistimari aurrerapen berriak eman ahal izateko. Eta ITEk birregilea den heziketa osatzen du, enerjien askatzaile, bakoitzaren bilakaeraren bultzatzaile, inguratzen gaituen errealitatean partehartzeko estimulatzaile izan beharrean. Horregatik, normala iruditzen zaigu, eredu honek bere eremu aproposena heziketa sistima itxietan izatea, jerarkizazio eta burokratizazio haundia duten sistimetan.

Azkenik, bere "funtzionaltasuna" aipatzen denean lau prozesu ezberdin bereiz daitezke: Entrenamendua

(trebetasun konkretuak jasotzea) instrukzioa (eduki eta informazioa jasotzea), hastapenak (arau eta balore sozial batzuekin konfidantza hartzea), indukzioa (pentsamendu sistema ezberdinekin harreman zuzena).

ITE ereduak entrenamendu eta instrukzio prozesuetan baliteke aplikapena izatea, baina zailago ikusten da hori beste bietan, hastapenak eta indukzioan.

### Oinarri soziala

ITEk badirudi tresna papera soil soilik hartzen duela, planteiatu gabe zer heziketa eredu jarraitzen duen, zer presupuestotatik abiatzen den, zer aukera egiten dituen eta berak zer heziketa eredu daraman. Bere planteiamendu soziala hizkuntza teknikoaren azpian gordetzen du, eta askoz ere liluragarriagoa egiten da Heziketa izugarri konplikatua delako eta dituen ikuspegi ideologiko ezberdinek konplexuago egiten dutelako.

Baina heziketan ez dago erdibiderik, ez dago ikuspegi neutrorik, edozein teknologitan ez dagoen bezala, eta gutxiago oraindik sozial mailan edo pertsonengan eragina duen heziketan. Eta ITEk, bere oinarriak eta oinarri horietaz egiten den erabilpenagatik, heziketa ulertzeko modu konkretua adierazten du, eta heziketa honen bilakerak nondik nora joan behar duen.

Alde batetik, gizartea, hor dagoen zerbait bezala hartzen da, zabaldu behar den zerbait bezala; honek, besterik gabe eta "hor dago" hori esanez, egungo egoeran bere onartzea suposatzen du. Beraz, planteiamendu erreakzionarioa litzateke, beti bere "efizientismoa" landu behar horregatik, baita ere bere oinarri konduktistagatik. Beraz, guztiz lojiko da, heziketa hartzea eta moldeiatzea izatea, aldaketa, erreflesio kritikoa eta sormenaren lantzea izan beharrean.

Bestalde, heziketa arazoak entrepresa ereduak balira bezala aztertzea, oso normala iruditzen zaigu askotan, edo gehienetan ohiturazkoak (beti berdin, beti berdin) diren lanak egiteko langileak behar dituen gizarte batetan produzitzea, puestoari egokitzea, ulertzea edo denon zereginean partehartzea baino inportanteago den gizarte batetan.

### Oinarri metodologikoak

#### Metodologiko-zientifiko presupostoak

Edozein pedagogi metodoren azpian oinarritzko fundamentu bat dago. Eta heziketa, praktikoa denez, zientifikoek behar duten presupostuetatik abiatzen da, bestela aurrerabidean desfasatuta geldituko litzateke.

ITEk neurtu daiteken prezisioa bezala hartzen du zientifikotasuna, erraz kontrola daitezken bariabile gutxi batzuz osaturiko sistima hartuz, beraz zihurtasuna ematen duten bariabileak. Baina arazoa hor dago, ea sinpletasun hori abiapuntu egokia ote den aztertzerakoan.



Bi gezi dituen arazo baten aurrean aurkitzen gara: ITEn azpian dauden presupostu posibilistak, eta abiapuntu bezala hartzen duen eredua, eskematikoa eta oso espezifikoa den eredua.

Lehenengoari dagokionez, esan daiteke, ITEk duen prezisio eta zihurtasun nahi hori, operazionalismoan oinarrituta dagoela, positibismo lojikoari lotuta. Ikuspuntu hontatik abiatuz, garrantzitsuena ez litzateke, modu erraz batetan esateko, ulertu nahi dugun kanpoko errealitatea, baizik eta garrantzitsuena, neurtu eta beraietaz garbi ohartu gaitezken alderdiak izango dira, gero errealitate hori ulertu ahal izateko. Horrela zientziaren arloa neurtu eta konproba daitekenaren eremua izango da positibista ikuspegi batetatik. Adibide bezala zera esango genuke: Aurrekoa, intelijentzia, intelijentzia "neurtzeko" erabiltzen ditugun testek esaten dutena besterik ez balitz bezala hartzea litzateke. Edo ikasleen errendimendua, azterketa objetiboek esaten dutenera murriztea.

Bestalde, programatze teknika baten atzean dauden obserbatze ezaugarri guztiak (Obserbazioan oinarritzen diren programatze teknikak) finkatzea ez da posible. Obserbatzeak, ez du helburu edo kontzeptu baten esanahia agortzen, gainera hain ugariak direnez obserbatze eta portaera moetak, beti batzuk aukeratu beharko genituzkela.

Dena den, guztiz lojikoak dirudi, heziketaren programatze batetara heltzeko, ahalik eta konkretuen eta garbien finkatzea irakaskuntzaren helburu orokorrak. Eztabaida letorke konkretio prozesu hau obserbatze mailara eramanez nahi denean, teknikoki efizientea eta egokia izango den irakaskuntza bat planteiatzeko modu bakarra bezala (hala diote). Gauza bat da, obserbatu daitekena beharrezkoa dela teori edo teknika pedagogi bat botatzeko edo onartzeko, esatea, eta oso beste bat obserbatu daitekena bakarrik dela zientifikoa, esatea. Heziketan, neur daitezken eta neur ezin daitezken efektuak lortzen dira, eta horregatik ezin dira bere teknika edo teoriak neur daiteken horretara murriztu.

Edozein pedagogi teorik, heziketak daraman bariabile edo elementu guztiak onartu behar ditu. Eta ITEn garbi

ikusten da bere partzialitatea, heziketa-ikasketa prozesuan dagoen konplexotasuna ukatzerakoan edo kontutan ez hartzerakoan: bariabile sozialak, psikologikoak, instituzionalak, edukienak, pedagogikoak, e.a.

### Pedagogi teknika

ITE teknika bat bezala definitzen da. Eta garbi dagoela dirudi, heziketa ekintza baten atzean, teoria bat dagoela, ekintzak oinarri zientifikoa bat izan dezan garrantzia bezala, eta ohizko edo intuiziozko ezer izan ez dadin. Baina, garbi dago ere, ez dugula heziketa teoria unitario eta ondo egituraturatutako bat, pedagogi "rezetarioa" balitz bezala erabil metodo honekin edo beste batekin. Dena den, arazo hau aztertzen ari direnen erantzunak oraindik ilunak eta kontradiktorioak dira.

Helburuen hautaketan ideologia eta balore sistema bat isladatzen da nahi eta nahi ez. Baina problematikoagoa litzateke jakitea ea helburu horiek egokiak ote diren ikasleentzat, hau da, ea bere behar eta interesei dagokien. Honen aurrean galdera batzuk egin ditzakegu: Nola finkatzen da helburua? Nola finka daiteke, norbaitek ez duela helburu bat lortzeko maila ematen? Erantzun zientifikoa baten zai bagaude, oso gutxi dakigula aitortu beharko dugu; modu arruntago batetan hitz eginda, esan daiteke intuitiboki egiten dela, norberari bere buruak adierazten dion bezala. Noski, erantzun hau ez dute inolaz ere ematen programa berrietuek, hauek izango dituzten ekarpenak organizatibo eta edukien aldatetei dagozkien arloetakoak izango direla.

### b. Edukiak

ITEn ikuspegitik, edukiak gauza itxiak dira, bukatuak, ahalik eta konkretuen programatu behar den zerbait. Ez ditu edukiak lorpen probisional bezala hartzen, gauza berriak bilatzera bultzatuko duen zerbait bezala. Ezagutzaren arlorik garrantzitsuena bere erabilpena izango da gizarte teknifikatu batetan eta ez ingurua ulertu eta bertan kokatzeko zerbait bezala. Kapazitatea definitzeko baliagarriak izango dira, eta trebetasun edo lanen bat egiterakoan baditugula konprobatzeko.

### d. Ebaluaketa

Arlo hauek, didaktiko prozesuaren eta efizientziaren bilatze bidean beharrezkoa den arlo honek, egokien iruditzen den helburua baldintzatzen du.

Badirudi orduan, ITEk ez duela pedagogi metodoak hobetzeko edo ikasleentzat desmotibatzaile izango den heziketa bat lortzeko balio, ebaluaketa metodoak hobetzeko eta aurretik finkatu diren helburu batzuk lortzeko baizik. Honela harturik, ebaluaketa ez da izango ikasketa-irakasketa prozesuaren ezagutze orokorrago bat izateko baliagarria, kontrol hutsa baizik. Eta ikuspuntu hau guztiz lojikoak da berehalako emaitzak lortzera goazenean, emaitza "efikazak", prozesuaren osotasuna garrantzitsuena izan beharrean.



## Instituzioen inplikazioak

### Irakasleoa

Irakaslegoaren zeregina (ITE honetan) nahiko mekanikoa da: Errekurtso batzuk aplikatzen dituen teknika litzateke, transmisio funtzioa azpimarratuz; berak proiektu honetan partehartu behar du, berak transmititu egin behar du, baina ezin du zalantzan jarri. Irakasleak ez du eskola eta egungo heziketa ereduak zalantzan jartzen, esperto bezala, prozesu teknikoa eta zientzia bilakaeraren arabera egongo da. Eta ITEk, programa ofizialetan oinarriturik, zientzia goiztutasun bultzatzen du, honek zientzia ulertzera baino ezagupenaren mekanizazioa garamatza, memorian eta enziklopedismoan oinarrituz. Eta, maila honetan, sozial eskakizunaz hitzegiten badugu, galdetuko genuke zer kriterio zientifikotan oinarriturik osatzen diren mailak, eta eskakizun horiek zer interes sozialei erantzuteko eginak dauden.

## Beste pedagogi aukera batzuen bila

Pedagogi teoriak eta heziketaren historia modernoek diotenez, badaude, zientifikoak eta errespetagarriak diren beste aukera batzuk ITE horretatik at.

Zalantzarik gabe aukera hori, bere iraunkortasuna baino bere hobekuntza bilatuko duen irakaskuntzara hurbiltzeko heziketa programak bilatzea izango da, gizartearen eta kultur sortzaile baten iraunkortasuna bilakatuz. Hortarako, ikasle-irakasle teoria zabal batetik abiatuko gara, bere barietateak, edukiak eta bilakatu behar den eskolaren kultur kontestua kontutan hartuz. Hemendik aurrera eta laburki saiatuko gara, egungo pedagogi planteiamentuën aldaketarako oinarriak eta oinarrizko sikipedagogiko printzipioak azaltzen.

## 1. Aldaketarako oinarrizko ikuspegia

### a. Razionalista ikuspegia

Ikuspegi honek edukiak baloratuko ditu nagusiki, zientziaren maila ezberdinetatik eta kulturatik jasotzen den edukia. Eta helburu batzuk lortzeko diren ala ez planteiatu gabe, edukiak aukeratzeko orientabideak eman daitezkeela izan du printzipio bezala. Honekin, zientziak erregulatzen duen gizarte baten aurrean jartzeko, oinarrizko intelektual tresnen eta pentsakera eredu horien emaile bezala azpimarratuko du eskolaren papera.

### b. Sozial ikuspegia

Gizarte eta eskolaren arteko harremanek, neurri batean, ikaste-irakaste prozesuaren eduki eta metodoak baldintzatuko dituzte ondorio batzuk erakartzen dituztelarik. Eta ikuspegi kritiko batek aldaketarako eta sozial berreraiketarako tresna bezala ikusiko du eskola, sistema irekiko ikuspegi bat, heziketa prozesuaren azken helburuak finkatzearen aurkakoa izango den bezala.

### d. Sikologi ikuspegia

Ikuspegi honek, heziketa, ezagutze prozesuen eta ikaslearen nortasunaren bilakaera bultzatuko duen errekurtsoa bezala ikusten du.

Humanistikoak deituriko sikologoak eta aportazio kognoszitiboek izan duten hazkuntzak, irakaslegoaren ahalbideak, irakaskuntzaren planifikazioaren aurrean aberastu dituzte, egoeraren globaltasuna erakutsiz, finkatu eta aurrera eramango du. Bere irudia transmititzaile on batena izango da, eta ez dena kuestionatzen duen ikerlariarena.



Alde batera utzi ezin daitekeen beste arlo bat, irakaslearen ezaugarriena da (intelektual eta pedagogi kapazitatea, nortasunaren ezaugarriak, ezaugarri afektiboak, e.a.). Beraz, ez du inongo zentzurik teknikoki programatutako irakaskuntza motak, nolabait irakasle guztiak baldintza berdinak betetzen dituztela inposatzen baitu.

Bestalde, irakaslearen autonomia zeharo moztuta gelditzen da, gehiena programatuta dagoelako. Zihurtasuna eta kontrola nahi da, eta honek ia derrigorrez planteiamendu autoritario eta manipulatzailerak ekarriko ditu.

ITeren planteiamenduak formalismo hestu bat darama, eta hori gehienetan irakaslearentzat traba izango da laguntza izan beharrean. Adibidez, hizkuntza preziso bat lortzeko ekintza aditzak erabiltzen dira, baina zer esan nahi dute "ikasi", "deskubritu" eta abarrek. Garbi dagoen gauza bakarra zera da, oraindik terminoloji zehatz eta baliagarria izatetik oso urruti gaudela. Hau honela izanik, irakaslegoari eskatuko genioke denbora gehiegi ez dezala erabili programazioak idazten. Berriz esango dugu: programaketa eta gauzak garbi izatea beharrezkoa da, baina horrek ez du esan nahi programa zehaztu gabe baldin badago irakasleak gauzak zuzen ezin egin ditzakeenik.

## Ikaslegoa

ITEk ikasleari paper pasiboa ematen dio: nagusi izateko bidean dagoen norbait bezala hartzen da, hori izanik eskola instituzioaren ekintza. Giza naturaren ikuspegi honi jarraituz, bere jokaera ikasketa prozesuan pasiboa izango da, asimilatzea elaboratzea baino garrantzitsua goa izanik; menpekotasuna eta homojeneziazioa galduko dira, bakoitzaren nortasuna eta ahalmen ezberdinak landu beharrean.

Bestalde, esango genuke, ikaslearen ikaste prozesua hiru faktorek baldintzatzen dutela: ikasleari interesatzen zaiona, ikasleak ikas dezakeena eta ikasleak ikasi behar duena.

Lehenengoari dagokionez eta bere adinaren arabera, giroak eskaintzen diona aztertuz aukera batzuk egingo ditu. ITE oso urruti dago ikasleak egin edo landu nahi duena eskaintzeko eta bere interes eta beharrei hurbiltzeko giro egoki bat lortzeko.

Bigarrenari dagokionez, ikaslearen momentu edo bilakaeraren arabera egongo da. Hortarako ikaslearen nortasunaren ezaugarri eta berezitasun diferentzialak kontutan izan behar dira. Honetan ITE saiatzeko dela esan daiteke, baina ikuspegi dinamiko batetatik egiten dituzten sikopedagogiko probak eta hauen erabilpena zalantzan jarri behar ditugu.

Hirugarren puntuak, ikasleak ikasi behar duena, sozial eskakizuna dezakegun eredu bat ez dugun bezala. Beraz, oso prezioa eta teknikotasun nahiak dituen programazio eredu, egun, ilusorioa da eta erantzun partzialak bakarrik emango ditu.

ITEn azpian dagoen teknika kontzeptua, guztiz mekanikoa da, pedagogi teknikaren erabiltze eskasa izango litzateke, oinarri teorikoetatik abiatuz praktikarako ondorioak erakartzea helburu bezala hartuz, lan egorearen baldintzak kontutan hartu ondoren.

Teknika honen azpian "kaja beltza" eredu dago. Horrek esan nahi du ahalegin guztiak egingo direla aurretik jarritako helburuei erantzungo dieten emaitzak lortzeko. Helburu horiek finkatzen direnean, hori lortuko duten bitartekoak aurkitu behar dira. Zer gertatzen da efektu horiek eman daitezkeen? Nola lortzen ditugu alderdi soziala, sikologikoa eta dialektikoa elkartzea emaitza batzuk egon daitezkeen?

Pedagogi teknizismoak ez du ezagutu eta jakin nahi, "efikaziaz" lan egitea besterik. Hitz gutxitan, ahalegina egingo da helburuak finkatzen eta emaitzak kontrolatzen.

## Programatze prozesuaren alderdi batzuk

### a. Helburuak


Heziketak eta irakaskuntzak, azken finean, ikaslearen portaera batzuk ezartzen edo aldatzen ahalegintzen dira.

Programa ofizialetan afirmazio orokor batzuk azaltzen dira, baina ez dira inoiz hezkuntza helburuak izaten. Konkretizatze lanak emango du azkenean helburu horien formulatzea. Hau litzateke ITeren kasua, honek helburu horien definitzean konkrezio maila batetara heldu nahi du.

Proposamen hau egiterakoan ezin genezake uka gauza positiborik ez dagoenik, baina bere muga eta zailtasun batzuk azpimarratu nahiko genituzke:

- Ikerketa batzuk planteiatzerakoan helburuen finkatzea praktikatze batera ematen da; hori azpimarratzeko esan daiteke irakasle askok ondorio positiboak lortzen dituela helburuak kontzeptualki definitu gabe.
- Oserbazio terminoetan oso elementalak diren portaerak defini daitezke bakarrik.
- Irakaskuntzaren arlo batzutan oso zaila da ikerketa helburuak definitzea (arte, literatur espresioa, marrazki kreatiboan, e.a.).
- Ikerketa helburuak praktika jeneralizatu bezala definitzea desumanizantea da, giza aktibitate guztiari mekanikoak diren sistema batzuk ezartzen baizaizkio.
- Edozein heziketa prozesuan, aurretik pentsatu gabeko egoerak ematen dira, eta oso baliagarriak bihurtzen dira ikerketa prozesuan.

Bukatzeke esan daiteke, metodo honen alde edo kontra legoken argumentu bakarra zera litzatekela: konprobatzea ea bere ikasketa helburuak definitzen dituzten irakasleek nola lortzen dituzten emaitza hobetoak.



#### e. Teknoloji ikuspegia

Irakaskuntzari buruzko ikerketen barne egitura eta bere didaktika teoria aztertzeke ikuspegi aproposa iruditzen zaigu. Baina ITEK hartzen duen teknizista enfokea baino zabalagoa izan beharko luke. Razionaltasunak zuzendaritza eta erabakitzerakoan arrazoiak ematea dakar, baina ez nahi eta nahi ez aurretik finkatutako helburuen izugarritzko konkretzioa, ezta ere programazio milimetratu bat egiteko aitzakia.

#### Aldaketarako sikopedagogiko oinarri nagusiak

##### Nortasunaren bilakera osoa

Pedagogia ezin da bakarrik arduratu aldaezinak diren eduki edo jakintza batzuk transmititzen, bizi osoa izango duen etengabeko hobekuntza bidean baliagarriak izango diren "egiten jakite" batzuk, "egin ahal izate" batzuk... elementuez arduratu behar du.

##### Ikasle-irakasle harreman pedagogi berri baten onartzea

Ikasle-irakasle harreman hau ezin da irakaslearengandik (autoritatea eta kompetentzia) datozen goitik behe-rako komunikazioetan edo ikaslearengandik (menpekotasuna eta inkompetentzia) datozen harremanetan oinarritu. Goitik behe-rako harremanak egongo dira, baina elkar ulertze batetan, konfidantzan, elkarlanean eta besteren onartzean oinarriturik. Baina, harreman honek ikasleen artean finkatzen den parez-parezko harremanak baino garrantzi gutxiago izango du, hauek gelaren dinamikaren elementu nagusi baitira.

#### Pedagogi jenetikoa

Aldaketarako pedagogiak jenetikoa izan behar du, haurraren ezagutze psikologikoan oinarritu behar duela, eta horretarako ezinbesteko baldintza, irakasleak haurraren etengabeko obserbatze psikologikoa eramatea izango delako.

#### Haurrentzat pedagogi dinamikoa eta funtzionala

Dinamikoa izan behar du haurraren interesgunetatik abiatu behar duelako. Interesa, behar edo motibazio bat asetu nahian ematen da, eta horrek ekintza pedagogikoa dakar.

Funtzionala izan behar du, haurrak lehendik dauden edo berak aurkitzen dituen mekanismoetara jotzen duelako, eta irakaslea haurraren eskakizunak betetzeko dagoelako.

#### Eguneroko esperientzian oinarrituriko pedagogi manual eta praktikoa

Ezin daiteke inongo pedagogi ekintzarik ulertu, nahiz eta zientifikoa izan, ez badago esperientzian oinarritua. Konkretutik astraktora joango gara etengabe eta ez alderantziz.

#### Heziketa hiritar eta sozial batetara bideratutako pedagogia

Pedagogi ekintza ikasleak bere burua eta besteenak onartuko duen giro batetan emango da. Horrela, talde sozial batetan partehartzen dela konturatuko da haurra, bereak izango diren legeak finkatuko dituen gela-taldea.

*Manolo Cainzos*

## NIVEL PRE-ESCOLAR (2-3-4 años)

CAPACIDADES	OBJETIVOS BASICOS	ASOCIACION DE CONTENIDOS
— Observar/Descubrir	— Observar el entorno más cercano. — Descubrir lo nuevo.	— El cuerpo. El vestido. La familia. La clase. Los amigos. La calle. Los fenómenos naturales. Colores. Tamaños. Formas. Vestidos. Las nuevas culturas y sus elementos.
— Manipular/Utilizar	—	—
— Expresar/se/ Describir.	— Expresar hechos y situaciones oral, mímica y plásticamente. — Describir fenómenos naturales y objetos, idem.	— Una historia. Un hecho. Un cuento. Un mural. — El caserío. La primavera. Las vacaciones. Las estaciones.
— Experimentar/	— Reconocimiento cuerpo y los materiales. — Experimentar manipulando objetos.	— El cuerpo. Los objetos del entorno. — Manejo del barro, la plastilina, los colores. Desarrollo de semillas y plantas.
— Relacionar/se/ Establecer relaciones	— Establecer relaciones entre objetos por el color, tamaño, peso, forma, sabor, sonido, función... — Establecer relaciones personales y de grupo.	— — La Ikastola. El juego.
— Ordenar	— Ordenar objetos atendiendo alguna propiedad (tamaño, peso...)	
— Realizar/Construir — Adquirir (Ampli) — Operar	— — —	— — —

## CICLO INICIAL (5-6-7 años)

— Observar	— Observar los elementos que forman el entorno.	— El libro. La ciudad: industrias, transportes, accidentes geográficos. Animales. Plantas. Oficios. Vestidos. Productos. Formas de vida. — Movimientos del cuerpo. Sonidos.
— Expresar/se/ Describir.	— Expresar la vivencia de la realidad del entorno, oral, mímica y por escrito. — Comunicarse con los demás oral, mímica, plásticamente y por escrito. — Describir la realidad del entorno.	— Diálogos profesor-alumno, alumno-alumno. — Escritura. Representación teatral. Mimo. Ritmo.  — Idem.  — La familia. La ciudad. La Ikastola. Los animales. Las plantas. El caserío.
— Operar/Manipular Experimentar	— Operar/manipular la realidad más cercana.	— Dibujo a lápiz, pintura... Disfraces teatrales. Barro, plastilina, madera, yeso... Escritura.
— Reconocer	— Reconocer personas, hechos y situaciones.	— El propio cuerpo. Las personas. Los hechos.
— Establecer relaciones/Relacionarse.	— Relacionarse con el entorno y las personas.	— Juegos. Compañeros. Amigos. Ikastola. Familia. Ciudad. Geografía local. País. Mundo. — Fenómenos de la naturaleza.
— Clasificar.	— Clasificar elementos.	— Sílabas. Palabras. Cantidades.

## NIVEL MEDIO (8-9-10 años)

CAPACIDADES	OBJETIVOS BASICOS	ASOCIACION DE CONTENIDOS
— Expresar/se/ Describir.	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Expresar correctamente hechos y situaciones por escrito, oral y mímicamente.</li> <li>— Expresarse con corrección ortográfica, fonética y gramatical.</li> <li>— Describir el entorno físico y social.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Cuentos. Narraciones. Historias. Descripciones. Mimo. Representaciones. Resúmenes.</li> <li>— Narración oral y escrita. Vocabulario. Formas verbales. Reglas ortográficas. Escritura.</li> <li>— Plantas: funciones, reproducción.</li> </ul>
— Reconocer.	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Reconocer la geografía de E.H. y sus diferentes accidentes y características.</li> <li>— Reconocer el cuerpo humano y sus partes.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Cuatro partes naturales, flora, fauna y demás aspectos geográficos de E.H.</li> <li>— El cuerpo: órganos, aparatos, funciones. Agentes influyentes. Unidad del cuerpo y sus funciones.</li> </ul>
— Aplicar.	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Aplicar conceptos y símbolos matemáticos para resolver problemas reales.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Operaciones fundamentales. Conjuntos: pertenencia, inclusión, intersección, unión diferencia. Fracciones. Geometría: traslaciones, simetrías, perímetro.</li> <li>— Ortografía. Síntaxis elemental. Técnica del papel: papiroflexia, pegado, collage, plegado, murales...</li> </ul>
— Operar/Resolver.	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Operar con elementos matemáticos.</li> <li>— Resolver situaciones sencillas y concretas.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— 4 reglas. Conjuntos. Quebrados. Potencias.</li> <li>— Problemas. Realización de mapas. Trabajos sobre temas. Problemas de convivencia.</li> </ul>
— Interpretar.	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Interpretar hechos y acciones referentes a diversos sistemas.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— El cuerpo: enfermedades de órganos (infarto, úlcera, pulmones, contaminados, traumas, roturas, ceguera, sordera...).</li> <li>— Interpretar estadísticas, esquemas de enfermedades, drogas, curaciones...</li> </ul>
— Relacionar/Establecer relaciones.	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Establecer relaciones entre distintos sistemas.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— El cuerpo humano y las relaciones entre funciones y órganos aparatos.</li> </ul>

## NIVEL SUPERIOR (11-12-13 años)

— Interpretar.	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Interpretar el lenguaje coloquial y literario.</li> <li>— Interpretar la razón de los símbolos matemáticos.</li> <li>— Interpretar fenómenos socio-geográficos.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Lectura comprensiva. Uso del diccionario. Causas de los movimientos literarios. Oración y elementos. Finalidad y técnica empleada en los géneros literarios. Valor de los recursos estilísticos. Ejercicios de comprensión del lenguaje oral. Teoría de la lengua.</li> <li>— Número entero. Resolución de ecuaciones.</li> <li>— Movim. de población. Evolución de las ideologías. Progreso económico y social. Movimientos sociales.</li> </ul>
— Expresar/se	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Expresar correctamente en lenguaje oral y escrito hechos y situaciones.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Narraciones de hechos y experiencias. Referir oralmente o por escrito lo leído o escuchado. Invenciones imaginarias. Representaciones. Disertación. Declamación. Exposiciones orales sobre temas (población, industria...).</li> <li>— Vocabulario matemático: el <math>n^{\circ}</math> entero, ecuaciones, problemas...</li> </ul>
— Valorar.	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Describir la belleza de acciones o situaciones bien realizadas.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Lectura y audición de textos escogidos. Comentario de aspectos artísticos de un texto.</li> </ul>
— Operar.	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Operar con símbolos, letras, números, materiales y técnicas.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— El número entero. Resolución de ecuaciones.</li> <li>— Estudio de la tierra: latitud, longitud, escalas, usos horarios, estaciones...</li> </ul>
— Aplicar.	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Aplicar a problemas de la vida real los conocimientos adquiridos.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Problemas de áreas y volúmenes.</li> <li>— Problemas de proporcionalidad.</li> </ul>



## Heuren partehartzeaz gurasoak mintzo

Esateko aukera izan dugun guztietan azpimarratu dugu guraso, irakasle eta euskal irakaskuntza esparrua osatzen duen ororengana iristeko asmoa, garbi bait dugu pedagogiaren ardura gure gizartearen sektore guztietara hedatuz bilaka daitekeela. Hala, bada, honako honetan, gure ikastolen sorreraren zama bizkar gainean harturik abiatu zen sektore bat ekarri nahi izan dugu gure horrialdeetara, beren esperientzia, ikuspegi eta eritziak azaltzeko paradan zabalago beharko lukeen eztabaidaren lehenengo urratsak ematera ausartuz. Asmo honekin, ikastoletako batzordetan lanean ihardun duten lau gurasorekin bildu ginen arratsalde hotz batetan, eta eskuetan, aurretik landutako eskemaren horria geneukalarik, ekin genion elkarrizketari.

Konturatzen gara nahasi samarra irten zitzaigula, baina, zer arraiol, ezin denok Rosa Montero izan. Zenbait kontraesanekin egin genezake topo bestalde, baina hoietan, gu, eztabaidaren tipografoak besterik ez ginen izan.

Aitortu beharrean gaude, konturatuko zareten bezala, sarri hartu genuela parte guk ere eta dematsu endredatu ginela bat edo bestean. Izan ere, irakaskuntzan lanean ihardundakoak gara eta eskolako barne dinamika bizi eta ezagutu dugunez, geure eritziak genituen eta bota premian sentitu ginen.

Hor doakizue, bada, eztabaida horren emaitza. Zuek duzue orain hitza, zeuen eritzien zai gaituzue.

**ISILIK: Haurra eskolara eramaten denean, gurasoek zer konpromiso hartzen dute? Non finkatzen da konpromiso hori?**

Jexux: Iruditzen zait eskolak funtzio bat betetzen duela haurraren sozializazio prozesuan. Haurrak lehenengo amarekin, familiarekin ditu harremanak, gero harreman hauek zabaltzeko eskola da pauso bat. Gizarte guztietan ematen da pauso hau, modu batetara edo bestera. Familiak kanpoko norbait arduratzen da haurraz. Alde hortatik eskolak gurasoena ez den funtzio bat du. Gurasoen zeregina eskolan, gizartearen araberan legoke, bere nahia beteko ez balitz, heurok arduratu eta borrokatu beharko lukete, hori, modu batetara eman dadin. Egoera onenean, guztiz egokia eta ideala den egoera batetan, gizartearen eskolaren bidez haurraz arduratzen delarik, gurasoek eskolarekiko duten ardurak gizartearekiko dutena izan

behar du. Eta gizartean dutenaren araberakoa. Eskolan haurra duten gurasoek ez dute beste edozein hiritar baino eskubide gehiago.

Paulo: Ni hirekin ados nator esan duan ia guztian, baina gauza bat ikusten diat. Nire bost urtetan garbi ikusi diat gurasoek ez dutela duten indar hori inondik ere galdu, eta bere haurraren irakaskuntzan jaun eta jabe izan nahi dutela. Honek, gurasoen aldaketa dela eta kristoren akatsak ekartzen dizkik, maiz, sartu berri direnak ez daude ados irtetzen direnekin. Horregatik, ona izango huke linea bat edukitzea, garbia, osoa eta betirako, eta hau ez diat nik ikastolan ikusten. Gurasoak agindu nahi dik eta ez dik utzi nahi inolaz ere.

**ISILIK: Zuk ikusten duzuna gurasoen hejemonia mantendu nahia al litzateke?**

Paulo: Bai.

**ISILIK: Eta hori nola moldatu beharko litzateke horrela gerta ez dadin?**

Paulo: Ikastolak lege nagusi batzuk eduki behar dituela iruditzen zaidak, guraso nahiz irakasle gainetik. Bion artean eginak agian, baina luzarorako.

Jexux: Eske... Niri iruditzen zaidak horrelakoak sortzen badira base teoriko batzuk falta direlako dela. Eta, lehen esan dudanarekin ez dut esan nahi haurra ikastolara bidali eta gurasoek ezer egin behar ez dutenik. Gainera, gizarteko estamentuek ikastolaren ardura behar bezala hartzen ez baduté, gurasoek ordezkatu beharko dute hori eta ardurari hori bide zuzenetik lortzen ez den bitartean, burrukan egin beharko dute. Nolabait gizartean ematen diren burruka guztiek eskolan isladatuko dira.

Paulo: Bueno, hori teoria bezala ongi zegok...

Jexux: Bai, baina teoria hau ez dago gurasoen artean zabaldua, eta eskola nazionaletan ere ez. Esate baterako, eskola pribatu-publikoaren eztabaidetan, pribatuaren alde azaldutakoen aurkako argumentuetan, ez zuten garbi utzi eskola fenomeno autonomo bat dela, eta garbi esateko garaia dela derizkiot. Autonomia hori ez da gure bizkarretatik lana kentzeko, baina lortu beharreko gauza bat da.

Periko: Bueno, ni zurekin (Jexuxekin) ados nago gauza gehienetan edo denetan. Hau da, eskolak ente autonomoa izan behar du. Baina ente hori pertsonak sortu dute, eta gurasoek sortu dituzte ente publikoek sortzen ez zituztelako.

Eskola ente bat bezala *finkatzen* baldin bada, gurasoek ikastola laguntzen arduratu behar dutela uste dut, baina ez eskola bakarrik, gizarte guztia baizik. Konprometitu beharko dute, batez ere, irakaslearekin harreman sendo batzuk izaten, haurren heziketan laguntzen, adin batzuetan batez ere, familiaren parte badagoela uste dut eta, haurrak txikiak direnean, gurasoenak direla iruditzen baizait.

Joxian: Niretzat bi konpromiso ezberdin dira euskaldunek eta erdel-dunek dituztenak. Euskaldunentzat konpromisoa eskolara sartzean legoke, haurra giro ezagun batetan sartzean, bere giro euskalduneari alegia. Kasu honetan, konpromisoa, "de apoyo" litzateke. Erdaldunek berriz, giro arrotz batetan sartu behar dute haurrak euskara ikasi dezan, hori baita bere helburu nagusi bat. Kasu honetan bere zereginak euskara ikastea eta seme-alabak laguntzea izango dira. Bi konpromiso dira beraz.

Jexux: Nire ustez horiek graduaziozko aldaketak besterik ez dira, euskeraz ez dakienak konpromiso bat gehiago besterik ez du. Euskara ikasi beharko du, baina haur euskaldunaren gurasoak pedagogia eta beste zenbait gauza ikasi beharko du. Izan ere haurraren babesa oraindik berak du eta hau fenomeno



progresibo bat da sozializazioa kolpetik ematen ez denez.

Joxian: Konpromiso ezberdinak dira. Baina ez dut esan nahi konpromiso bakarra euskara ikastea denik. Nik esan nahi dudana zera da: ikastoletan giro euskalduna dagoela eta euskara ez dakitenak ez direla euskaldunak bezain ongi giro horretan moldatzen laguntzeko eta partehartzeko.

**ISILIK: Nik bi galdera ditud zuentzat. Lehendabizikoa Jexuxentzat. Gizartearekiko hartzen den ardura barne sartuko litzatekeela gurasoen konpromisoa esan duk nolabait. Eta honek galdera bat dakar: Gizarteak erantzuten ez badie gurasoen eritzi eta helburuei, zer gertatzen da?**

Jexux: Begira: haurra eskolan sartzeko diagu sozializazio prozesuan aurrera egin dezan. Baina prozesu guzti horiek etendurak dituk, eta beraz, paradójikoak. Guraso guztiak dituk posesiboak, edo gehienak behintzat. Bere buruaren aurka joan

behar ditek beraz. Horretarako, gizarteak eragiten ziek haur hori etxetik atera eta eskolara eramanez deitzen. Bere gustoz, etxean geratuko lirateke lanera edo eskolara joateke. Etendura horrek sortzen dik borroka, gizartearekiko tentsio bat, hori ez duk bide lehen bat. Hori bera gertatzen duk instituzio publikoek inongo ardurarik hartzen ez badute, hik hartu beharko duk entitate horiek sortzeko ardura, baina entitate horiek gurasoek sortu eta gobernatzen badituzte ez dira sekula behar luketenak izango. Beharrez gizarteak sortuak behar dira.

Periko: Bai. Baina... Gizartea zer den galdetuko nuke nik.

Jexux: Bueno. Gizartean dauden entitate publikoek sortu behar dute, eta horietan ere gurasoengan ematen zen posesibotasuna ematen da beren sorkuntzeekiko, eta hortxe sortzen da borroka, eta horren arabera isladatuko da eskolan, eskola eta instituzioen arteko tirandurak, eskolako kontraesanetan, eskola eta gurasoen arteko kontraesanetan.



Bertako haurrak giro horretan sozializatzen direlarik. Egoera bakoitzaren arabera arduratu beharko dute guraso edo instituzio horiek, sortzen, sortu izan diren bezala Euskal Herrian.

**ISILIK:** Ez dugu gehiago puntu hau eztabaidatuko geroko puntu batean azalduko delako, dena dela, guraso talde baten helburuak betetzen ez dituen eskola gerta daiteke...

**Jexux:** Talde horrek bere instituzioa sortzeko eskubidea du, baina ez pentsatu, eskola hori, gizartetik kanpo egongo denik, gizarteko tirandura guziak isladatuko dira han, eta bestela ez da ganorazko eskola.

**ISILIK:** Beste galdera bat zuri (Paulori). Ikastoletan oinarri sendorik ez dagoela esan duzu, nolabait gurasoek nahi dutena egin ez dezaten. Hau da, ikastolako batzordeak markatzen ditu ikastolaren pautak aurtengo ikastarorako, baina datorren urtekoak beste ezberdin batzuk marka ditzake. Orduan, zer baldintza eman beharko lirake hori gerta ez dadin? Zer egon beharko luke junten gainetik?

**Paulo:** Ikastola gehienetako batzordetan zortzi guraso bazeudek, lau irakasle zeudek, eta horrela gehienetan galtzen aterako dituk. Hau, garbi ikusi nian nik gure ikastolan. Urte batetan kristoren aldaketa egon huan, eta hurrengan ere nabarmendu nian, kristoren desorientazioa izan huan. Beraz, instituzio ofizialek orientazio nagusi batzuk markatu beharko dituzte guztientzat. Baina guraso eta irakasleen artean, erdibana, eginak behar dituzte izan orientazio horiek. Eta noski, Euskal Herri mailan hitz egiten ari nauk. Izan ere, oso ikastola desberdinak zeudek eta haurrak batetik bestera zebiltzek.

**Periko:** Eta zergatik izan behar dute ikastola guztiak berdinak?

**Jexux:** Honen (Paulorena) proposamena oso zuzena deritzat. Baina oso arriskutsua. Hemen esaten da, guraso, irakasle eta instituzioen artean dauden istiluak konpontzeko eta bakeratzeko toki bat jarri behar dela. Baina bakea ez da istiluak kentzea; bakea, istiluak gizalegean konpontzea da. Tentsio horiek ez dira gutxitu behar. Tentsio horiek esistitu behar dute, eta eskolan isladatzea beharrezkoa da, haurra benetan sozializa dadin.

**ISILIK:** Ez dut uste Paulo hortik doanik. Uste dut planteiatzen duena guraso, irakasle eta instituzioen arteko harreman orekatu bat dela. Goazen aurrera!

**Zuek (Jexux, Paulo eta Periko) hiru puntuotan bat etorri zarete: Eskola sozializazio prozesuan pauso bat dela, gizarte guztietan horrelako**

**zerbait gertatzen dela, eta gurasoek ardura politiko bat izan behar luketela eskolaren aurrean, gizartearekiko dutenaren antzerakoa, alegia. Galdera beraz, zera izango litzateke: Hiru puntu horiek bete daitezten, nola defini daiteke irakasle eta gurasoen lana eta nola konplementa daitezke praktikan?**

**Jexux:** Nik nire aldetik lehen esan diat, irakaskuntza entitate autonomoa da. Gizartea arduratuko balitz bere instituzioen bidez, haurren gurasoek ez lukete beste edozein hiritarrek baino ardura gehiagorik. Hori gertatzen ez denez, gertatzen ez den neurri berean, gurasoek hartu behar dute ardura gehiago.

**ISILIK: Nola?**

**Jexux:** Hasi diru aldetik laguntzen, gertatzen den bezala, bestelako laguntza supletorioekin jarraitu, testugintza, pedagogi laguntza, eskolaz kanpoko ekintzak, eta behar diren mila gauza.

**ISILIK: Eta irakasleari zer?**

**Jexux:** Irakasleari ez dut uste zuzenean ezer egin beharko liokenik.

**ISILIK: Orduan, zer duk hirezat irakaslearen eginkizuna eskolan?**

**Jexux:** Irakaslea, uste dut, gizarte baloreen trasmisioa dela, trasmisio kritikoa bat, haurra balore horiekiko kritikoa izan dadin, baina ez familiarren delegatua, gizartearena baizik. Eta gizartean behar den jakituria, bizitarakoa alegia, trasmittitu beharko luke. Teknikoa eta gizatiarra, biok. Bakarrik, hori era kritikoa batetan. Guztiz kritikoa eta negatiboa ezin da izan, bestela, haurra sozializatu ez baina, deserrotu egingo baitu, eta ezingo da gizarte horretan bizi.

**ISILIK: Baina, garbi zegok, nolabait, kurtso baten plangintza egiterakoan ezin daitekeela beltz eta zuri plangintza berean sar. Definizio bat dago hor...**

**Jexux:** Gauza batzutan bai, beste batzutan ez, erlijio kasuan esate baterako...

**ISILIK: Adibidez, irakasle bat kristaua izan daiteke eta hori azaltzen die hurrei. Guraso gehiengo bat ados ez balego zer gertatuko litzateke?**



Jexux: Behar bada, hemen, irakasle batek errebindika dezake berak ez duela gauza batzuetan sinisten eta ez dituela irakatsi behar, baina hori ez da inon gertatzen. Gizartetan normalean, gizarte txikiagoetan, etnologian aztertzen diren gizartean, ez da horrelakorik gertatzen. Maisutzat aukeratzen dute, ez berak sinisten duena esango duen bat, jendeak sinisten duena esango duena baizik, eta bestela kendu egiten da ogibide hortatik.

Paulo: Nire ustez, irakasle batek, testutik kanpo ari denean, erlijio puntu batetan esate baterako, arazoaren alde, eritzi eta pentsakera ezberdinak adierazi behar ditu eta hor utzi. Bazekiat zaila dela, irakaslea pertsona delako. Honek lehen ere istilu ederrak sortu dizkik.

Periko: Ni honekin oso ados nago oinarrizko gauza batetan. Irakasle batek balio ez badu bere ideologia alde batera uzteko, uste dut ez duela irakasle izateko balio. Nik hori gero eta garbiago daukat. Beste gauza batekin, berriz, ez nago ados horrekin. Eskolan haurra duen guraso batek eta beste edozein hiritarrak ez dut uste ardura berdina dutenik. Nik uste dut harreman sendoak eduki behar dituela irakaslearekin gai batzuetan. Eta hau, irakasleek eskatu egiten dutela badakit. Haurra familiaratik atera eta eskolan sartzen du gizarteak. Hor bi lan ikusten ditut; bata, gai teknikoak ematen ari denean, eta beste bat, hurrekin gizartearen baloreak lantzen ari denean. Eta hor bai, uste dut egon behar duela guraso eta irakasleen arteko konpenetratio bat, ez dut esan nahi gurasoen aldetik "dirijismoa" eman behar denik, eskolak gizartearenak izan behar bait dute. Hala ere, gizartean denok berdinak ez garen, eskola ezberdinak egon behar lukete. Orduan, zuk eskola bat aukeratzen baduzu, eskola hortako irakasleek era konkretu batzuetakoak izan behar dute. Horrela gizarteko baloreak kontraesanean jartzen direnean edo arazo pertsonalak sortzen direnean, harreman hestuak egon behar dute irakasle eta gurasoen artean.

ISILIK: Zuk pixka bat egiten duzun banaketan, batetik harreman akademikoa eta bestetik harreman ideologikoa leudeke. Baina, niretzat, bi horiek zeharo lotuta doaz. Irakasle batek arlo bat irakasterakoan, eta gehiago, Euskal Herrian irakaskuntza dagoen bezala egonik, bere ideologia transmititzen du, eta nolabait, aukera bat egiten du. Nik historia ematerakoan modu konkretu batetan emango dut, eta era horretan nire gizartearen ikuspegia joango da. Ez dago historia aseptiko bat ematerik. Edozein eduki hurrekin lantzerakoan, lan egiteko modua, edukiak azaltzeko modua eta eztabaidatzeko era irakaslearen izakera eta ideologiarekin doaz.

Jexux: Horregatik esan dut lehen irakaskuntzak autonomia izan behar duela, eta bertan ideologia pila batek duela kabida, eta kontraesankorrak badira ere ez dugula beldurrik izan behar. Gaur egun, dagoen kontrolarekin, eskolak, agintearen ideologia transmititzen du eta haren aurka beste eskola batzuk sortuz jokutzen da. Baina, eskola barruan kontraesan horiek onartuz jokutzen bada, eskola batek ez dauka haur guztiak berdin erreproduzitu beharrik. Eskola berdinetik oso haur ezberdinak sor daitezke.

Periko: Baina, begiratu ze gauza ezberdin esaten ari zareten zuek biok (Jexux eta Isilik). Zuk esan duzu eskolak ez duela kontrol ideologikorik izan behar eta honek, irakasle batek klasea ematerakoan, nahi eta nahi ez, ideologia transmititzen ari dela dio.

Jexux: Noski, bakoitzak berea, baina haurrak irakasle bat baino gehiago duenez, hortxe ditu kontraesanak.

Periko: Bai adin batetan. Normalean, hamar-hamaika urtearte oso irakasle gutxi izaten dute. Eta, bigarren etapan gai bakoitzeko irakasle bat dute etapa guztian zehar. Orduan, ideologia konkretu bat doa nahi eta nahi ez.

Jexux: Baina, ideologia ez da transmititzen gai konkretu batetan bakarrik.

ISILIK: Nik antzeman dudana kontraesan bat botako dut, ea nondik irtetzen garen. Lehen hirurok bat etorri zarete eskolan pentsakerak, ideolojiak eta gizartearen iskanbilak azaldu behar dutela esaterakoan, eta zuk (Periko), egin duzun planteiamenduan jaso dudana zera izan da: gizatalde bakoitzak bere eskola behar duela nolabait, eta irakasleak bere ideologiarekin bat datozen arabera aukeratuko dituela.

Periko: Ez dut esan nahi guraso talde bakoitzak bere ideologia gordetzen duen eskola eraiki behar duenik. Gizartea plurala izan arren, pluralismoa eskolan erraza, ez eta posible ere, ikusten ez dudanez, irakasleak pertsonak diren momentutik bere eritzia eta ideologia dutelako, oferta bat egon behar da eskola desberdinekin, eskola pluralekin, eta hau da, gainera, Europako gauzak irakurriaz jaso izan dudana.

ISILIK: Baina horrela zuk ez duzu eskola plural bat eskaintzen, zure pentsakerarekin ongien datorren eskola eskainiko zenioke haurrari.

Periko: Ez, nik eskola plurala eskainiko nioke, baina eskola plural hori posible al da? Hori galdetzen dut nik.

Jexux: Posible izango da gizarte orekaren arabera.

Joxian: Nire ustez, eskolaren papera superbaloratzen ari zarete. Pertsonen ideologian pisu gehien duena gizartea da. Eskolak ikutu txiki bat eman liezaioke. Baina neure esperientziaz eta apaiz ikastetxetan egon diren lagunen esperientziaz ere, agian, "kokojeanean" saiatu eta lortu zuten urte batzuetan, baina, azkenik, gizartean heldu gara. Hori bai, toki horietan jaso ditugun eduki zientifikoek iraun dute. Nire ustez, beraz, irakaslearen zeregina eduki zientifiko horiek ematea litzateke, edukiak eta jasotzeko era. Irakasle bat haurrak ideologikoki maneiatzen saiatzea, zentzu batetan joango da bakarrik, gizartea plurala dela eta hortan bizitzen ohitu behar dutelaren zentzuan, alegia. Niretzat garbi dago, haur bati etxean kristautasuna eta eskolan ateismoa sartu nahi bazaizkio, ez diola ez bati, ez beste jaramonik egingo, bere bibentzia pertsonalei jaramon egingo die.



Zalantzak izango ditu urte batzuetan, baina azkenik berak topatuko du bere bidea. Horregatik, eskolak egin beharko duena zera da: haurren burua egitaratu ideoloji guztietara zabalik gera dadin. Ondoren, berak aukeratuko du, guraso, lagun, irakasle edo gizartearen eraginez. Noski, eragin bat egon daiteke. Guri eman diguten heziketa azientifiko eta hertsia baten eraginarekin, kostatu zaigu haustea. Dena dela, neuk ere ezin izango nuke onartu nire seme-alaba bati guztiz hertsia litzatekeen ideologia sartuko liokeen eskola, nolabait, nire pentsakeraren guztiz aurka legokeen eskola, eta toki hortan haurra ez sartzen saiatuko nintzateke.

Jexux: Niri iruditzen zait, ideologia mailan, bi atal guztiz desberdinak daudela, eta horregatik oso arriskutsua iruditzen zait zurea. "Taldea bakoitzeko eskola bat", horren estrapolazio bat egin da, giza klase bakoitzarentzat eskola moeta bat dago, eta aberatsek dituzte eskolak eta besteek ez. Badago eskolan, ideologia berbalizatu bat (historia esplikatzeko duenarena), eta beste ideologia estruktural bat. Eskolaren egiturak bana dezake gizartea talde eta mailatan, eta horri bai derizkiokidala arriskutsua, askoz ere luzarogorako uzten baitu marka honek, berbalizatu gabea delako.

Periko: Nik oferta eskolarra estatutik eskatzen dut, eh!

Jexux: "Estatuto de Centros" en jokuan zegoena, hain zuzen, horixe zen, eta indar oreka aldatzen delako, orain aldatzera doaz. Bertan, eskola mailaketa hori egitera zihoazen, eta orain aldatzekotan dira.


ISILIK: Nik ikusten dut, nolabait badagoela haurrengan eskola eta irakaslearen eragin garrantzitsu bat. Historia emateko era asko dago. Pentsa ezazu gai hori ematen dudala bigarren etapako hiru urtetan eta haur horiek nirekin dabilzala hiru urte horietan zehar. Oso desberdina izango da haur horien kontzepzioa hiru urte horien ondoren marxisten ikuspegitik, esplotazioaren ikuspegitik, alegia, edo, kristauen ikuspegitik lantzen bada, eta gizonaren bilakaez, izakeraz eta une honetaz, oso ikuspegi ezberdinak jasoko dituzte. Lehenengo etapako hamar irakaslek plangintza orokor bat egi-

ten dute matematika era globalizatu batetan ematea erabakitzen dutelarik. Pentsa dezagun hamar horietatik bat ados ez dagoela. Horrela, haurren lojika kontzepzioa hiru urtetan era batetara lantzen da eta laugarren urtera heltzen denean zeharo sistema ezberdin batetan lantzen hasten da. Haur horren lojika eskema puska daiteke hor eta ondorio serio batzuk etor dakizkioke. Kasu honetan eragin haundiak izan ditzake haur horrengan.

Jexux: Laugarren urteko irakasle horren erabakia, oinarri jakinik edo jakin gabe, erabaki ideologikoa da, eta haur hori determinatzen ari da zein klasetan integratuko den, zer kapazitate izango duen gizarteko mailaketa horretan kokatzeko, hor erabaki bat dago. Historiaren kasuan, eta guri hala irakatsi ziguten, arazoa, Joxianek diona izango da, gizarteak historia aztertzea eska-

zer eginbeharrez? Bi mailatan: akademiko mailan eta eskolaren antolaketa orokorrean.

Joxian: Irakasleak gure langileak dira, soldatak negoziatzen ditugu eta orduak Eusko Jaurlaritzak markatzen ditu. Publikoak ez garen bitartean hala konpondu beharko dugu, ikastola ekonomikoki mantentzen dugunok gurasoak gara, subentzioak jasotzen baditugu ere. Soldatak "orden y mando" ren bidez edo bat etorri konpon genitzake, hau da, inposatzea gauza bat da eta beste bat negoziatzea. Horrela, irakasleak, kobratu behar duenari buruz eritzi bat izan dezake, eta gurasoek bidezko zat jo arren, agian, ezinezkoa gerta daiteke. Nik uste dut badaudela gizarteak markatzen dituen soldata batzuk, eta nolabait, eskola publikoak jasotzen dituenak, prestaketa profesionala kontutan hartuz eta ikastolaren ahalmenak ikusiz akordio bat negoziatzen da.



tzen al duen ala ez. Eta aztertzea eskatzen badu, bere mugetara iritsi eta kontzepzio batzuk hautsi egin beharko ditu, onenak eta txarrenak, eta bere historia egin beharko du. Azkenean gizarteak determinatzen du.

IXILIK: bo bigarren galdera doa. Orain arte, gurasoek, ikastolaren jabe edo arduradun bezala jokatu dute, eta irakasleek berriz, hauen zerbitzuan zegoen langilegoa bezala, soldata, egutegia finkatzera koan, betebeharrak erabakitzera koan e.a. Galdera zera da: Honekin ados al zaudete?

Bigarrena: Nolako beharko luke izan ikastolaren martxa orokorra? Nortzuk parte hartuz? Bakoitzak

ISILIK: Baina momentu honetan hori horrela dagoela suposatzen da. Utz dezagun eskola publiko bat edo beste, edozein gauza etor daitekeela... Dagoenarekin ados zaude ala ez?

Jexux: Hik gurasoek agintzen dutela diok, hori hala dela benetan uste al duk? Ni irakasle egon izan nauk, eta orain juntan negok guraso bezala, eta bai irakasle eta baita ere orain juntara etorri den guztia, nahiz eta bi irakasle bakarrik egon, beti, soldatak bezala beste edozer gauza, azkenean negoziatu egin duk. Ez negoziatu, negoziaketa hitzarekin, baina bai hitz eginez. Orduan, hurrengo pausoa ez duk pauso kualetatibo desberdin bat. Gurasoek

agintzen duten tokietan, eta behar bada izango dituk, irakasleek uzten dietelako duk. Hik beti indar oreka bat duk. Hurrengo pausoa gurasoe-kin zuzenean negoziatu ordez, gizar-tearen ordezkariarekin negoziatzea izango da. Gurasoek presionatu beharko ditek beste sistema batzuk ezar daitezten. Gurasoen erakunde bat egin zitekek ere, eta horrek eta irakasleek negoziatu beharko ditek ordezkari horrekin.


**ISILIK: Bueno, bueno. Hik esan duk irakasleek egiten dutela eskabide edo proposamen bat eta juntara doala. Sistima, beraz, zera duk: Junta hor zegok eta irakasleek horra joan behar ditek. Nik esan nahi diat ez al dagoen sistima hori beste era batetara antolatzerik, eskakizunak horrela egin gabe. Hik planteiatzen duan era horretan bazegok nolahalako mailaketa bat.**

Periko: Nik, hau irakasleen aldizkari batentzat denez, zerbait esan nahiko nuke. Ezin gaitezke orainean bakarrik finkatu. Uste dut orain arte ez dutela gurasoek agindu. Ikastolek 20 urte dituzte, ez bost edo sei bakarrik. Niretzat ikastolak borroka politiko baten ondorio sortu dira, eta euskara salbatze arren borroka horretan gurasoak eta irakasleak sartu dira. Biok ordaindu dugu "impuesto revolucionario" bat, guk gure diruaz eta irakasleek sodata eskasak jasoz eta bere lanaz, biok parean. Erabakiak, orain dela bost edo sei urtearte, bi talde hauen artean hartu dira, azkenaldi honetan hori gertatzen ez bada ikusi beharko genuke zergatik ez den gertatzen. Urte hauetan ez ziren soldatak bakarrik finkatzen, baita kuotak ere, kontuz! eta kuota kristoren sakrifizioz ordaintzen genuen. Niri, beraz, ez dit balio orain arte gurasoek bakarrik agindu dutela esateak. Orduan, zer beste eskola moeta?, erraza, irakasleek egin dezakete etxe haundi bat eta eskaintza bat egin gurasoei, "guk euskaraz eman behar dugu eta hilean 5.000 pzta. kobratu behar dugu", ea zenbat etortzen diren! Irakasleek ez dute ikastolan agindu, nahi ez zuten tokietan sartu ez direlako. Arazo ekonomikoan, adibidez, behin ere ez dira sartu. Nire esperientzia kontatzen ari naiz, eta beste batzuk kontatu dezakete berea.

Hemen teoria asko edukitzea erraza da, baina ekonomian ez sartu; nik zenbat? 80, 60, 45 edo 40. Izendatu dira bi irakasle ekonomi talderako, etorri dira batzutan, gehienetan entzutera, partehartzera sekula ere ez, konponbideak topatzera inoiz ez, eta denok dakigu ikastolaren arazo larriena ekonomikoa izan dela. Iskanbila gehienak ere, azkenengo urteetan gehienbat, ekonomikoak izan dira.

Bestalde, galdetuko nuke, orduak, noiztik jarri dira? Noiz hasi dira? Jakin nahiko nuke gaur egun, zenbat irakasle sartzen dituzten 1.380 ordu horiek, eskola pribatuan bezala, eta publikoan ere bai.

Paulo: Nik uste dut orain bost edo sei urte arte, arazo ekonomikoa alde batera uzten zutela bai guraso eta irakasleek ere. Batzuk, gutxi irabaziz eta besteak eutsi nahiz. Hori hautsi egin duk. Irakasle batzuk asegurorik gabe egon dituk, edo soldata osoa deklaratu gabe, eta orain bost bat urte puskatu huan harreman hori. Orduan, irakasle goa, neuretzat arrazoi osoz, zegurtasun baten atzetik hasi zen. Honek, zoritxarrez, dialektika batetara eramán gintuen: Hi patroia, eta ni langilea. Egia da, bestalde, gurasoek botere bat dutela nahi badute, gurasoek ez esaten badute, hura ez duk egingo. Irakasleek nahi dutena egiten badute, uzten zaiolako da, eta hire ikastolan ere bai (hau Jexuxi esaten dio).



Periko: Nik beste zerbait esango nuke. Ikastoletako soldatak ez dira hain txikiak izan, eskola pribatueta-koen azpian, azken hamar urteotan, ez dira egon. Eta kuotak berriz, eskola pribatuen aldean oso gogorak izan dira ikastoletan.

**ISILIK: Hori hala bada ere, eta hala da agian, ez al zien ematen horrek gurasoei agintzeko eskubidea? Irakasleen hitza batzutan aurrera irten bada ere, gurasoei ongi iruditu izan zaielako ez al da?**

Periko: Azken finean inbertsioak eta abar, gurasoek egin dituzte.

Jexux: Hori greba baten kasua bezalakoa duk. Azkenean langileek irabazten badute, nagusiari ongi iruditu izan zaiolako da, ebidentel!

Joxian: Nire ustez, haserako ilusio eta indar horrek 3, 5, 8 urte irauten du, eta ondoren harremanak estabiltzatu behar dute. Langilea eta ordaintzen duenaren arteko harremanak normalizatzen iritsi behar dute.

Periko: Baina irakaskuntza ez da lan produktibo bat.

Joxian: Ordaindu behar den lan inproduktibo asko dago. Langile horrek lan bat egiten du eta hilaren azkenean soldata bat jasotzen du. Dena dela, harreman hori gurasoe-kin izan beharrez beste norbaitekin eman dadila, Estatuarekin edo Eusko Jaurlaritzarekin, adibidez, nahi bada, beste gauza bat litzateke nahiz eta hor ere tira-bira bat eman. Hori, noski, soldatari dagokionez. Beste gauza bat litzateke pedagogi erabakien gora behera. Orain arte, normala denez, dirua jartzen zuten bere esku izan dute gurasoek hori ere, hemendik aurrera, ente publiko batetan sartzen bagara, orientabide pedagogikoak hortik etorriko dira.

**ISILIK: Beste galdera bat denontzat. Zein izan da zuen esperientzia ikastolan guraso bezala? Nola hartu duzue parte, aurkitu dituzuen oztopoak, langileekin izan dituzuen zailtasunak, funtzionamentuari aurkitu dizkiozuen akatsak, e.a.?**



Joxian: Nire lehendabiziko urtea da juntan. Haurra ikastolan sartu nuen beste inon euskara ikasterik ez zegoelako. Nire ideia, berak eta nik euskara ikasi behar genuela zen. Bestalde, sartu banuen izan zen ikastola, ohi zen eskolarekin gonbaratuz, zerbait desberdin zela ikusten nuelako. Istilu ideologikoren bat gertatu denean, deitu zaituzte, joan zara eta jarreraren bat apoiatu duzu, baina nik hor ez dut beste partehartzerik izan. Egin denarengan konfidantza jarri dut. Hala ere, beste era batetara parte hartu behar nuela konturatzen nintzen, eta banekien gurasoek partehartzen duten heinean funtzionatzen zuela ikastolak. Orduan, juntan sartzen zarenean eta ikusten dituzunean egin diren ahaleginak, inmobiliario bat dagoe-la, beharren azpitik geratzen diren, istalazio batzuk, oraindik lan egiten duten guraso batzuk, esaten duzu "hau pertsona batzuen ahaleginen ondorioa da, kondizio eskasetan, gutxiago kobratuz, segururik gabe urtetan, edo osoak deklaratu gabe oraindik, bestetan, lan egin duen irakasle batzuei esker ere lortu dena da". Eta honek urrutitik harrapatzen nau, beste batzuk egin ondoren. Baina dena dela, ikastolaren espe-

rientzia eman bada, ilusioz betetako guraso talde bat eta abertzaletasunez lan egin duen irakasle talde bat egon delako izan da. Gaur gerta daiteke gurasoen partehartze hori okertzen aritzea. Nik hala entzuten diet, behinik behin, aurreko urtetan egondakoei. Hau ere, gurasoen artean nolabaiteko "desencanto" bat eman delako noski. Horregatik, zaila izango da, hemendik aurrera, orain arte ezagutu den erritmoa mantentzea. Itxaropenak gure lanarengan jarri orde, Gobernu Autonomoan jarri ditugu, eta jarrera honek esperientzi bat eten dezakeela iruditzen zait. Aurrera jarraitu behar dugula deritzat, nolabait, Eusko Jaurlaritzak gauza batzuk egin ditzan bultzatuz. Orain arte, gurasoek gizartea ordezkatu badute, orain, behartu behar dute gizartea bere lanari ekin diezaion.

Periko: Niretzat, haserako esperientziak, orain 9 urte direla sartu nintzen juntan, nahiko positiboak izan ziren. Garai hartan gurasoek eta irakasleek helburu bat geneukan: haurren heziketa euskaraz. Gaur egun, ez dut uste gurasoek haurrak ikastolara borroka politikoaren eraginez

bidaltzen dituztenik. Momentu batzutan modan ere egon dira ikastolak, beste batzutan irakaskuntza ezberdin bat ematen zelako ere izan da, eta besteetan euskararen balio soziala dela eta bidali dituzte, dena dela, ez garai haietako garrantzia emanaz euskarari. Honekin batera, istilu ideologikoak gertatu dira, euskararen aurrean ere planteiamendu berriak azaldu dira, haur erdeldunen ugaritzearekin, talde txikiagoak egin behar izan dira, sortzen dituzten arazo ekonomikoekin... Badakigu ere, seguru eta soldaten problemak nola gertatu diren. Guzti honekin, ez badatorkio Eusko Jaurlaritzako edo nonbaitetik irteeraren bat, nik nahiko iluna ikusten diot geroa. Irakasleek gainera, agian arrazoi guztiaz, gogor dabilta eta laguntza ekonomiko handi bat heltzen ez bada nonbaitetik puskatu egingo da. Beste arazoak, ideologikoak e.a., nolabait, borrokan bada ere, konponduko dira, baina ekonomikoa ikastolak pribatu jarraituz ez dut uste konponbiderik duenik.

Paulo: Nire esperientzia ikastolako juntan izan huan. Urte batetan puskaketa handi bat gerta huan eta



240 haurretatik 160 geratu hituan. Honek arazo larriak sortu zizkian, hiru irakasle sobran geratu ziren, haur kopuruak sortzen zituen arazo ekonomikoak, kaleko giroa. Gure lana, beraz, irakaslerik bota gabe ikastola mantentzea izan huan, eta gaizki legalizatuta zegoenez zuzen legalizatu genian. Orduan, nik langileekin oztoporik ez nian izan, denok lan haundiak hartuz eutsi genion etxeari.

Periko: Ni nahiko juntero atipikoa nauk. Irakaslea izandakoa nauk, eta honek asko balio izan zaidak arazo pedagogikoetarako. Bestalde, hemen esan direnak egiak badira ere, beste arrazoi bat dagoela iruditzen zaidak. Egoera aldatu denez, ikastola ere aldatu da. Gure ikastolan aurreko urtetik hasita, nabarmen gertatzen ari dena zera duk: ikastolaren ardura instituzionalizatzen ari dela. Aurreko junta egunero ikastolara joaten bahuan, aurten ekonomia saio berezi bat egin ondoren, pertsona bat orduka jarri dugu papeleo guztiak konpon ditzan. Hau, gurasoek juntatik aparte ikastolarekin zerikusia duten beste zenbait egin-kizunetan ardura batzuk dituztelako erabaki da. Era honefan, ardurak auzora zabaltzen ari dituk, ikastolaren proiektio soziala zaitzen; beste eskolekin egon, proiektu berriak prestatu, elkarte moduko zerbitzuak sortu, eta honen arabera auzorako erabaki politiko sozial batzuk hartu. Guzti hau haurrei begira. Gure auzoan, esate baterako, zinemarik ez zegok eta askotan komentatu izan dugu beste eskolekin elkartuz honi konponbide bat topatu behar geniokeela.

Honetatik kanpo ikastolak lehenbait lehen instituzionalizatzen iritsi behar dutela iruditzen zaidak.

ISILIK: Egungo ikastola ikusirik, lehengo militantismoa galdu dela, irakaslea profesionalizatzen ari dela, ikastolak haunditzen doazela eta abar, nola ikusiko litzateke ikastolaren etorkizuna eta gurasoen partehartzea?

Jexux: Gauza garrantzitsu bat bezala ikusten diat nahiko finkaturik daudela ikastolak, isten ez direla,

badutela aurrerabide bat. Honek, segurantzia bat ematen du. Aurrera begira, instituzionalizatzeko eta ekonomikoki finkatzeko denbora laburreko epea ikusten zihotat. Hori horrela dela, kontestuari begira hasi behar dutela gurasoek uste dut. Toki guztietan bezala, gizartearen ordezkariak erabaki batzuk hartu arren, gurasoek beste batzuk hartu behar dituzte. Era berean, euskara alorrean, Gobernuak hartzen ez dituen zenbait erabaki jendeak hartu beharko ditu, eta zihur aski, kontzientziatu dituen bizitza bat tokatu zaielako ikastoletako gurasoak hor egongo dira. Ni etsita nago ikastolan zenbait arazo konpondu arren, bere topeetatik oso urruti ez dagoela, euskararen zabalkundea kuantitatiboa izan daitekeela, baina kualitatiboa ez, lortu daiteke zerbitzu, baina asko ez. Euskarak duen problema ez da ikastola, ikastolan gertatzea baizik. Gurasoek, beraz, euskara hortik ateratzeko erabakiak hartzen hasi beharko dute. Lehen kontestu guztia ikastola zen, hartara beharturik geundelako, niretzat gaur beste gauza batzuetarako beta badago, eta begiratu beharra dago.

ISILIK: Azken puntu bezala, nola ikusten duzue eskola teoriko horren barruan gurasoen zeregina? Euskal Eskola Publiko batetan adibidez, teori-teori mailan?

Paulo: Guraso eta irakasleak barne hartzen dituen erakunde bat sortu

beharko da, eta denontzat balioko duen plangintza orokor baten elaboraketari ekin beharko zaio. Hau ente publiko baten bitartez etorri beharko litzateke. Horrela, arazo ekonomikoak kentzen badizkigute, aipatzen zen kontestu zabal hori lantzea posible iruditzen zait. Euskara ikastoletatik atera beharra zegok eta aurrena haurra eta pedagogia hartuz, hortik ikusiko nitzuke guraso eta irakasleen harremanak.

Periko: Oso une inportante batetan gaude, eskola, ez publiko, gratuita batetara baizik iritsi behar dugu, eta eskolak profesionalen eskuetan egon beharko du batez ere. Batzar orokor bat irakasle, guraso eta ente publiko osatu beharko da. Ikastola mugimenduan ibili diren gurasoek gizarteari ez diote gehiago eskaini buru-belarri bere arazotan sarturik ibili direlako. Ikastolak haur euskaldunen eskola ofiziala izan beharko du.

Joxian: Ikastolak euskararen eskusibotasuna galdu du, beste eskola batzutan sartzen ari delako, eta errealitate horretara egokitu beharko du. Guzti honek, gurasoek, ikastoletakoek nahiz beste ikastetxeetakoek, egin ezin dezaketen euskararen eta Euskal Irakaskuntzaren planifikazio bat eskatzen du. Bestalde, zuen elkarte eta gurasoena zabalduz, beste eskola horien guraso eta irakasleengana iritsi beharko da.



## Elbira Zipitria itzali zaigu, baina...



Elbira Zipitriaren heriotzaren berri jakin genuenetik denbora puskat pasa den arren, zilegi deritzagu, Ikastolaren sorrera eta espirituaren aintzindari izan denari zenbait lerro eskaintzea, beronen izena ainitz askotan entzun badugu ere, askok eta askok ez bait dakigu, gaur oraindik, bere lana zer eta nolakoa izan den.

Zumaian sortua, Donostiako Teresianetan ikasia, gerra aurretik E.A.J.aren militante izana, ondoren ihesari emanik Saran bizi izana, berriro itzulirik Donostiako hainbat leku ezkututan euskaraz eta euskara irakasten iharduna, bere haur taldearekin batetik bestera ijitoen antzera ibilia, azkenik Orixe Ikastolan kokatu arte, Ikastolaren sorrera ahulari ateak zabaldu zizkiona, e.a. dela bakarrik esatea ez da aski Elbiraren benetako lan, eginkizun eta helburu garbiez jabetzeko.

Honegatik jo dugu bera oso hurbiletik ezagutu eta jarraitu zuten bi andereñoengana, Feli Etxeberria eta Karmele Esnal, hain zuzen ere, hauei esker zerbait sakonagotik ezagutu ahal izan dugu Elbirak euskaragatik eskaini zuen bizitza luze eta emankorra, oztopo eta etsipenez josia, barruan zeraman borrokarako su eta garra itzaltzeraino inolaz ere ez, ordea, bestela ez bait zen, agian, berak erein zuen hazia ugaltu den adina ugaltuko, ordutik hona bide ertzeko landaredia ernaltu eta zabaldu ere asko zabaldu bait da.

Elbira irakasle bezala definitu nahi genuke lehenbizi, haurrekiko eta irakaskuntzarekiko bere helburu nagusiak zeintzu ziren adierazi, alegia. Hara zer dion Felik honetaz:

Haurrak nola ikasten zuenaren ardura handia izaten zuen Elbirak. Haurrari ikasketa bidea errazteko bitartekoak bilatzen asko saiatzen zen, inguruko gauzak erabili-az, eskolatik kanpora irten eta zenbait gauza obserbatu eta ikasiaz, hitzez edo ahoz gauzak ongi eta argi esplikatu edo adieraziaz. Idatzitako materialearen urritasunak eraginda edo, gaiak eta programaketak bere gisara ere prestatzen zituen, honetarako gai biziak erabili-az. Beti zuen helburutzat euskal kultura eskola gaiak lantzerakoan, nola olerki, kantua, e.a. landuaz, hala euskal geografia ikasteari garrantzi handia eman- ez.

Egoera egoki eta aldeko batetan guzti hau lortzeak bere lanak baditu, klandestinitate giro hartan, poliziari nola ihes egingo zebilen Elbirak bazerabilkien, zalantzarik gabe, euskara bizi zedineko itxaropen eta sinismena bere kolkoan. Euskal Herriarekiko kontzientzia ez zuen berriketakoa.

Goizean 10'30etan hasten zen lanean 7-8 urteko hamarren bat hurreko taldearekin, klase baino gehi-ago logela kaskar zen leku hartan, esaten digu Karmelek, eta eguerdiko 12'30ak arte iharduten zen handienen lehen talde honekin. 10'30ak arte, ordu betez, frantze- seko klasetara joan ohi ziren haur hauek. Ikastolan ordu gutxi egoten zirenez, etxerako lan asko eramaten zuten hurrek, beste ordu pare batetarako bai gutxienez, hemen gurasoek ardura handia zuten haurrari lagun- tza ematen. Eta handienen talde hau etxean gelditzen zen bitartean, 5-6 urteko beste haur taldearekin ihar- duten zen Elbira beste bi orduz.

Kontutan izan behar dugu, darraio Karmelek, handie- nen talde honek "ingresorako" prestatu behar izaten zuela; honegatik, San Ignacio bezperan amaitzen zen ikastaroa eta eskuarki denek gainditzen zuten ingreso- rako proba hau.

Programaketa, beraz, gehitzen du Felik, ingresorako beharrezko zituzten helburuen baitan osatzen zuen. Honetarako, eta erreferentzi gisan, Marianista eta San Bartolome ikastetxeak zituen, hauen edukiak ongi eza- gutzen zituen.

Gaiak lantzerakoan, arrazoiketaz baliatzen zen beti, dio Karmelek. Lehendabizi arrazoitu egingo zuen edozer gauza berri eta ondoren sartuko zen honen mekaniza- keta edo automatismoan, honi garrantzi handia ematen zion. Honen ondoan, haurraren kontrola ere gohorra zuen, irakurketa, idazketa, e.a. etan egindako hankasar- tzerik txikiak ere zuzenduaz. Askok exijitzen zion haurrari. Haurra ez zuen libre uzten.

Eta irakurketa eta idazketa aipatu ditugunez, Elbirak hizkuntza lantzeko zuen metodo eta bitartekoez ardu- ratuko gara ondoren, guri ere, gaur oraindik, baliagarri gerta bait dakiguke, diote biek.

Euskara lantzeko garaian, olerki, abesti eta ipuinez baliatzen zen Elbira batik bat.

Oxobi, esaterako, asko erabiltzen zuen. Lapurteraz ikas-arazten zizkien hurrei olerkiak eta ulertzen ez zen hitz edo esaldi hura esplikatu. Lizardiren olerkiez ere baliatzen zen, udaberrian batez ere. Orixerenak ere maite zituen.

Abestiak ere asko zekizkienéz, berauek baliagarri zi- tzaizkion edozer gai lantzeko, baina hizkuntza batez ere. Abesti bat erakustekak helburu jakin bat zeraman bera- rekin: abesti horren bidez, hiztegi bat osatzea, hiztegi hori lantzea, ongi ahozkatzea, metafora eta antzeko irudiak lantzea, e.a.

Udaberria zetorreanean, adibidez, ondoko abesti hone- tatik hasten zen lanean, besteak beste:

Aita, non egiten du kukuak kabia?

Txantxangorri kabian lapurtuz tokia.

Eta, ondoren, txori bakoitza nolakoa zen halako aldake- tak egiten zituen:

Aita, non egiten du poxpolinak kabia?

Gari soro erdian poliki jarria.

Aita, non egiten du txepetxak kabia?

Gaztain zulo gordean goroldiz josia.

Aita, non egiten du gau ontzak kabia?

Elizako sapaian sagutxoak josia e.a.

Bestaldean, Saran, egon zenean abesti asko ikasi ahal izan zuen, eta hauetakoak egokitzen zituen beharrezko zitzaionean. Honako hau lekuko:

Uroilo bat bere umeekin,  
oilo koloka bere txitoekin,  
tipula korda heiekin.

Otsoak jan daut urdea, neurea, neurea,  
azeriak oilo koloka,  
arratoiak tipula korda,  
adios neure dotea.

Hiztegia oso ondo lantzen zuen, mimika, doinua, "adios" hori askoz polikiago kantatuaz, e.a., hitz batez, ahohizkuntza lantze-ari izugarritzko garrantzia ematen zion.

Baserri giroko hizketa erabiltzen eta lantzen zuen. Naturarekin oso lotua zegoen gelako giroa, nola hizketa bera.

Irakurketa eta idazketa lantzeko, berriz, inguruan ikusi- tako edo gertatutako guztiaz baliatzen zen, hara nola jaiak, norbaiten bataioa, e.a. Gelan bizitzera.

Hizki handiz lantzen zuen bai irakurketa, bai idazketa. Honetarako txotxen bidez hasten zen lanean, langaitzat blok bat zuelarik haur bakoitzak. Lehenengo txotxak obserbatu, ariketak egin eta azkenik ikasi.

Irakurgai edo testu liburu bezala "Xabiartxo" erabiltzen zuen, hemendik hartzen zituen komenigarri zitzaizkion gaiak. "Martin Txilibitu", berriz, osagarritzat edo har- tzen zuen.

Hizkuntza Euskalerriko Geografia eta Historiarekin oso lotua zerabilkien eta batera lantzen zituen, era globalizatu batez, alegia.

“Oriko Txoria” abestia hartu ohi zuen, esaterako, hizkuntza lantzeaz gain, Euskalerriko mendiak ikasteko. “Altobiskar” Orreagako gudua lantzeko, e.a. Mendizale sutsu zenez, naturarekin oso maitemindu eta lotua zegoen. Honegatik irtetzen zen ostegunero goiz osoz bere haurrekin gaztelura, ez besterik gabe goiza pasatzera, aurrez ongi programatu ondoren, hizkuntza, geografia edo historia, matematika, e.a. lantzeraz. Abestuz joan ohi zen, esaten digute, bidean zehar, bitartean haurrek gaztainak, hostoak, goroldioa, untza, loreak eta aurkitzen zuten guztia eramaten zuten klasera, gero horietaz balia zitezen.

Alderantzizko lana ere egiten zuten, noski; adibidez, klasean egur ikatza ikusia zuten batez, gaztelura igo ziren denak eta txondarra egin zuten.

Maiatza osoan, berriz, Lurdes Txikira joaten ziren.

Bestalde, 8 urtekin erdera ere ematen hasten ziren. Urte bete soilean ikasten zituzten “las nueve partes de la oración gramatical”, esaten digu Karmelek. Gida liburu bezala, berriz, “El arte de contar cuentos” asko erabiltzen zuen. Ipuinari garrantzi handia ematen zion.

Matematikari dagokiolarik, kalkulu bizia edo ahozko aritmetika batez ere lantzen zuen. Honetarako pottokak eta txotxak zituen langaitzat. Zenbat denboraz eta nolako pazientziz aritzen zen, esaten digu Karmelek farrez, bateko, hamarreko, ehuneko, e.a. poliki-poliki lantzen. Lehenbizi pottokak marraztu: ○ bateko, ⊕ hamarreko, ⊖ ehuneko, e.a. Kolore gorri eta urdinez ongi bereizteko eta ondoren zenbakia idatziz. Saskitan pottokak hartu eta trukaturaz, e.a. Trukaketak egiteko abesti bat ere bazuen Elbirak, jarraitzen

dute. Hiru zifrako zatitzailea zuten zatiketak bazekizkiten 8 urtekin. Hamarkiak ere lantzen zituzten.

Hiru edo lau gai nagusi hauezaz gain marrazkigintza ere lantzen zuen eta dantza eta antzerkia ere bai Eskolaurrean edo Poxpolinean, orduan berak deitzen zuen bezala.

Guzti hau jakin ondoren, zera datorkigu burura, Elbira ez dela Ikastola sortzaile, eragile soil bakarrik, hasera hartako pedagogi mugimendu, metodologi edo eskola baten sortzaile ere badela baizik.

Gainera, bere Ikastolako orduz aparte, iluntzetan helduei euskarako klaseak ematen zizkien. Berarekin ibiliak dira, besteak beste, Carlos Santamaria, Valverde, Antton abeslariaren aita, Ayalde pintatzailea, e.a.

Gorago aipatu dugu, Elbira irakaslez gain mendizale amorratu ere bazela. Hona hemen bere zaletasun honen azalpen bitxi bat, Karmeleren ahotik:

Elbirak 50 urte bete zituenean, Elbira bera, Lazkaoko Mari Karmen Goñi eta nik, mendiz-mendi Euskalerriri bira emateko asmoa hartu genuen. Irten ginen Oihartzundik goizeko 5etan eta eguerdiko 12etarako Ori mendiko tontorrean geunden, dena ez genuen oinez egin, baina gehiena bai. Elbira hara iristearekin batera hasi zen dantzan eta berak kantatuaz arin-arin bat egin zuen. Hark zeukan sasoia hark. Gero handik Isabaruntz jarraitu genuen.

Ezin amaitu dugu elkarrizketa hau Elbiraren garaiko eta gaurko irakaskuntzaz zenbait eritzi galdetu gabe. Hara zer dion Karmelek:

Elbira, irakaskuntza horretaz bakarrik arduratzen zen. Berak hurrari irakatsi nahi zion hura ongi mamitu arte ez zen gelditzen. Orduak eta orduak pasatu zituen honetan. Dediakazio osoa zuen horretarako.

Gaurko haurrek dena dakitela pentsatzen dugu, berriz, orain; edo jakin behar dutela, telebista dutelako, e.a., baina hau lantzen ez bada ez dakite ezer.

Oraingo haurrek ez dute etxera joatean gurasorik ere aurkitzen. Ez dago derrigor haurren gainean, bat eta beste galdetzen egon beharrik, berauekin elkarrizketatuz bakar-bakarrik gauza asko lor daiteke. Baina, gainera lepotik zintzilika giltza ekartzen badute, etxean inor ez dagoela esan nahi du. Hau alda daiteke eta aldatu beharra dago, baina nola nork daki? Hor oso inportantea da irakasle goaren zeregina, bai haurrekiko, bai gurasoekiko.

Honeraino Elbiraren lanari buruzko gogoetak. Gutxi edo gehiago edonorengandik dugu guztiok ikasteko aukera, eta Elbirarengandik zer esanik ez.


Elbira itzali zaigu, baina berak ereindako hazia hor ari da bere landareak sortzen. Gaurdaino ugalduz joan den bezala, aurrerantzean ere areagotuz joango den itxaropen osoz uzten dugu Elbira pakean.

Gero arte.

J. A. Zubeldia

LUR AZPIAN SARTUTAKO AZIAK BA-DU INDIAR  
 ANDIK SORTZEN DIRA NUNAI ZYGATZ LANDARE TABELAR  
 ARA GURE LENGU NEGARRAK GAUR POZ BETER DAKAR  
 LURREAN SARTU GENUEN GURE LENDAKARIA  
 AREN MIÑAK ESNATV DU BIZIRO EVSKALERIA  
 TA JAUNGOIKOAK EMAN DIGU LENDAKARI BERIA  
 LENDAKARI BERI ONEK JO DU BERE IRINTZIA  
 LENGUAREN URATZETAN ZAITZEKO EVSKALERIA  
 GORA TA GORA EVZKADIKO LENDARI BERIA






## O.H.O. estataletako grebaren kronika

Greba honen hasiera, behintzat denboraz, Irailean jar dezakegu, Euskal Gobernuak, irakasleei ezer esan gabe eta inongo eritzirik eskatu gabe, jarritako egutegi berria onartu ez zenean eta estataletako irakasle-goaren gehiengoa eta ikastoletako multzo haundi bat klaseetan sartu ez zenean. Eta ez da kasualitatea, Heziketa departamentuko herrialde-tako delegazioek ez bidaltzea egutegi berri hau Ekainaren bukaera arte, horrela erantzun bat eman zedin aukerak moztzen baizituen.

Irailean saiatu ginen egutegi hau negoziatzen, baina Euskal Gobernuak hauteskunde sindikalak egin arte atzeratu zuen negoziaketa posible hori. Hauteskunde horiek UCDren zentralismoaren azken kolpeak izanik eta Euskal Gobernuak egiten baziren onartuko ez zituela esan zuelako, ez ziren egin.

Gai honekin konfliktoaren muinera heltzen gara: Eskola Estatal mailan laboral baldintzen inongo negoziaketen eza.

Laboral egutegiaren negoziaketa, Irailean arratsaldetan klaserik eman ez zituzten irakasleei soldatetan deskuentorik ez egitea eta klase horiek ez ematea normaltzat hartu zuten zuzendariei sanzioak kentzea, izan ziren grebara bultzatu gintuzten arrazoiak. Denaren detonantea sanzioak izan ziren, nahiz eta Euskal Gobernuak, egun batzuk lehenago eta sindikatoekin egindako bilera batetan, ez zirela egongo esan.



Greba, STEE-EILAS, CCOO eta CNTren partehartzearekin, Urtarri-laren 14ean hasi zen Bizkaian, Araban, toki batzutan lehenago, beste batzuetan beranduago, baina azkenean eta modu orokor batetan 21ean, Gipuzkoan 20an.

Hasieratik, grebaren barne antolaketari garrantzi handia eman diogu, eta oso funtzionamendu egoki eta garbia lortu genuen. Egunero, klaustroak, herrialde eta probintzia mailan asanbladak egin dira, eta egunero ere boletín bat argitaratu dugu, honek eztabaidak toki ezberdinetan eta aldi berean koordinatuak egoteko aukera ematen zigun, eta gero aipatuko dugun komunikabideetan azaldutako intosikazioari indarra kentzea lortu dugu.

Probintziko greba komiteak, probintziarteko komite baten bidez koordinaturik eta sindikato eta asanbladetakordekari ez osaturik (Gipuzkoan ez ziren sindikatoak agertzen), Euskal Gobernuak greba komite bezala onartu behar izan ditu. Greba komiteekin negoziatzeak izan duen precedenteaz oharturik (kontutan izanik sektore honek ez duela hauteskunde sindikaletan hautaturiko ordezkariarik), Euskal Gobernuak, berehala deitu ditu sindikatoak negoziaketa (elkarrizketa) mahaira greba amaitu ondoren.

Greba komitea eta Euskal Gobernuaren artean egon den idatzien etengabeko trukaketa (egon den bilera bakarra idatzi batetan jartzen zuena argitzeko izan da) greba honen elementu bitxi bat izan da: Korrespondentzia negoziaketaren ordezarri nahi izan dute.

Dena dela, erantzunak beti berdinak izan dira: Ez dago negoziaketarik greba amaitu arte, eta gainera "inplikaturik" dauden elementu guztiekin (pribatuetako patronala, ikastoletakoa, gurasoak...).

Bere garaian, Otsailaren 4ean, erantzuna bereziki garbia eta gardena izan zen: Mangel bota zuten ura (ordu erdi baino gehiago) greba komitearekin negoziaketak hastea nahi zuen irakasle konzentrazioaren aurka. Erantzun horrekin ardura falta izugarria agertu dute, lan arazo bat gobernu arazo bihurtuz eta auzia mugaz kanpo jarriz.

Euskal Gobernuak arazo hau mugaz kanpo jartzerakoan, indar gehiago hartzen dute iragarki ordainduak.

Iragarki hauek, gurasoak grebaren aurka jartzea eta konfesionismoa lortzea besterik nahi ez duten iragarkiek, ordurarte ezezaguna zen "grupo de padres de Euzkadi" deritzan taldeak izenpetzen zituen. Toxelebrekeria, talde hau sasipediagogiaz osatzen den KIMU aldizkariaren partaide da, ONURA taldea (aldizkari honetan partehartzetik kanpo ez zaio inongo eginkizunik ezagutzen talde honi), Hezkuntza Sailaren autopropaganda besterik ez den taldea. Areago oraindik, Bilbon izandako debate publikoan (greba komitea eta "grupo de padres de Euzkadi" honen artean) talde horretatik joan zirenetatik inork ez zuen haurrik eskola estataletan. Nondik atera zuen talde honek miloi bat egunero (erraza da kalkulatzea zenbatean ateratzen den prentsan edo irratian egindako iragarkia) intosikatze kanpaina hortarako? Guk hau oso garbi dugu.

Euskal Gobernuak ikasleen gurasoetaz azaldutako neurrigabeko interes honek izan ditu beste bide batzuk. Alde batetik ez du onartu lehendik dauden gurasoen elkarrekin partehartzea irtenbide negoziatua eman ahal zedin. Bestalde, gurasoak eskolara sar daitezten baimena eman du, pedagogi ekintza bera mespreziatuz eta greba eskubidea kontutan hartu gabe (eskirolajea legalizatu nahiean), guraso eta irakasleen artean egoera gogorra sor dadin, haiek Gobernuaren aldekoak zirenean.

Eta guzti hau sendotu eta osatzeko, gurasoek egunkariak irakurtzen ez badituzte, eta diru publikoaz baliatuz, udaletxeen bidez, guraso elkarrekin txosten bat (17 foliotakoa) bidali dute, beren jokaera sendotu nahian eta gure greba desprestijiatu asmoz.

Oso zaila egiten da Euskal Gobernuaren montaiak ulertzea greba laboral kontestu soila duen hauzibatetan. ADARRAK garai hortan argitaraturiko artikulua batetan zion bezala, tartean zegoena, heziketa eredu ezberdinak ziren. Euskal Gobernuak ez du nahi "borroka eskolan" erakuts dadin, ez du onartzen, kalitate eta aginte gehiago daraman ereduaren aurka jartzea. Hezkuntza sailean dauden karguen gehiengo bat agintea eta produktibitatea nagusi ziren zentroetatik dator, eta horiek izan dira bere jokaeraren zutabe nagusiak.

Orain, greba bukatu ondoren, intosikatze kanpaina ez da bukatu. Euskal Gobernuak berak arrazoia zuela frogatu nahian ari da, konponbide eskasa aurrera eramanez. Guk, irakaskuntzaren kantitatea eta kalitatea gauza ezberdinak direla eta irakaskuntzako irakasleak ez dela inposaketen bidez konbentzitzen esplikatzeko jarraituko dugu.

Gaurtik has daiteke Gobernuak metodoa aldatzeko bideak pentsatzen.

Eta eskola nola aldatu behar den pentsatuz joan dadin, Eskola Publikoaren aldeko kanpaina (gure politzikotik, denon artean ordaindutako kanpaina datorren Martxoaren 4an Bilboko kiroldegian bukatuko da), nola dagoen, zergatik dagoen horrela eta nolako Euskal Eskola Publikoa nahi dugun, azalduko dugu.

*Irakasle bat  
(STEE-EILAS)*



## ALBISTE OFIZIALAK

Euskal Herriko Agintzaritzaren Aldizkari Ofizialean, 1982ko Azaroak 18ko alean hain zuzen ere, Hezkuntza Sailak argitaratu du agindu zehatz bat, Erdiko Zikloan, aurtendik aurrerantzean (1982-83 ikasturtea barne), egin beharreko ikasle Ebaluaketa dela eta.

Aurten, beraz, irakasleok bete beharko ditugun agiriak, ondokoak lirateke:

— IKASLE FITXA (Hasiera Zikloa ta Eskolaurrean betetzen den bera edo antzekoa).

— ETENGABEKO EBALUAKETA FITXA (Ikasle bakoi-tzari buruz egiten den informe idatzia). Informeok, hiru izango dira ikasmilako, eta azken ikasmilan (orain arte 5. maila izenez ezagutu duguna) Zikloko Ebaluaketa Orokorra xehetu beharko da.

— EBALUAKETA AKTA (Hasiera Zikloan egindakoaren itxura ta arau berdinez). Agiri hau eta "Libro de Escolaridad" delakoa dira indar ofiziala duten bi tramiteak.

*Eusko Jaurlaritzaren Aldizkari Ofizialean ere, 1982ko Azaroak 8ko alean, Ikastolekin zerikusia duen beste berri bat badaukagu: Garraio ta Jangela diru-laguntzak eskaintzeko deialdia. Ikastolatik urruti bizi diren ikasleentzako dirulaguntzak eskaintzen ditu Gasteizko Gobernuak. Era berean, Jangela duten ikastolek, laguntza ekonomikoa izan lezakete, deialdi honek eskatzen dituen baldintza betetzen badituzte.*

1983ko Aldizkari Ofizial beraren bitartez, Urtarrilaren 5ekoa hain zuzen ere, Hezkuntza Sailak jakinarazten digu Retegi jaunaren dimisioa. Egun hori bitarteko aldian Hezkuntza Sailburuordea izan denaren orde, lan berdinean arituko den pertsona berria Mendieta jauna dugu aurrerantzean.

### Beste albiste batzuk:

*Madrilgo Hezkuntza Ministeritzak erabaki duenez, Jose M. Maravall ministroaren bitartez, Goi Zikloko Programa Berrituak ez dira 1983-84 ikasturterako martxan jarriko, arik eta Erdiko eta Goi Zikloko Programa Berrituen emaitzak ebaluatu arte.*

*Blanca Guelbenzu andereak, O.H.O.eko Zuzendari Orokorrak, gazetari mahai-inguru batetan adierazi duenez, erabakiaren arrazoinak ez dira politikoa izan, pedagogikoak baizik.*

Gasteizko Hezkuntza Sailaren Euskera-Zerbitzuak antolatuta, aurreko Otsailaren 22an, B.B.B. (BUP) eta Irakaskuntza Profesionalak dituzten Ikastolak bildu ziren Gasteizko egoitzan. Gaia: Erdinamailako ikasketa hauek bukatzen dituzten ikasleei, "EGA" euskera titulua ("D" Euskaltzaindiaren baliokidea) jasotzeko aukera eskaini ala ez.

Bilera honen bitartez erabakirik ez hartu arren, arazoaren ikuspegi berdina aztertu zen eta hurrengo bilera batetan, segurasko, gaia askoz landuagorik geldituko delakoan omen daude bertan izan zirenak.



## ESKOLARTEKO BERTSOLARI GAZTETXOEN III TXAPELKETA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Ikastolen Elkarateak, bertsolaritza indartzea asmo nagusitzat harturik, eta zehazki bertsozaletasuna eskolarteko neska-mutikoengan ernatzea helburu izanik, Eskolarteko Bertsolari Gaztetxoan III Txapelketa eratzen dute, oinarri hauen arauera:

### OINARRIAK

1) Euskal Herri osoko (Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko) ikastola edo ikastetxeetan dabilzan neska-mutikoentzat eratzen da Eskolarteko Bertsolari Gaztetxoan III Txapelketa.

2) Txapelketa bi motatakoa izango da:  
**Bapatekoa. Bertsopaperak.**

3) Maila hauek bereiziko dira adinaren arabera:

#### Bapateko Txapelketan:

- O.H.O.koak (14 urte arte).
- 14 urtetik 18 bitartekoak.

#### Bertsopaperetan:

- 12 urte artekoak
- 12tik-14 urte artekoak.
- 14tik-18 urte artekoak.

4) Proba hauetan neurtuko dira:

#### Bapateko saioan:

- a) 14 urte artekoak:
- Agurra aukeran.
  - Bertso zahar bat.
  - Lau oinak emanda zortziko txikian.
  - Puntuetan hirunaka (2 buelta).
  - Gaia jarrita bertso bat.

b) 14 urtetik - 18 urte bitartekoak:

- Agurra.
- Lau oinak emanda zortziko txikian bertso bat.
- Puntuetan hirunaka (2 buelta).
- Puntuari erantzun.
- Ofizioko teman zortziko handian.
- Gaia emanda 2 bertso.

#### Bertso-papereetan:

a) 12 urte artekoak eta 12tik - 14ra bitartekoak:  
— Gai baten inguruan 2 bertso idatzi, ordu beteko epean.

b) 14 urtetik - 18 urte bitartekoak.  
— Gai baten inguruan 3 bertso idatzi, ordu beteko epean.

5) Lau bailaratan banatuko da txapelketa honen eremua:

- Lenitz eta Bizkaia ingurua.
- Kosta-Urola bailara.
- Tolosa-Goiherri bailara.
- Donostia-Oiartzun bailara.

6) «Eskolarteko Bertsolari Gaztetxoan III Txapelketa» hau bi zatitan izango da:

**BAILARETAKO SEMIFINALAK**  
Apirilaren 16an  
Deba-Leniz  
BERGARAN  
Donostia-Oiartzun  
ANORGAN

Apirilaren 23an  
Kosta-Urola  
ZARAUZTEN  
Tolosa-Goiherri  
ORDIZIAN

**FINALA**  
Apirilaren 30an  
DONOSTIAN  
Carmelo Balda  
Pilotalekuan.

**ESKOLARTEKO  
BERTSOLARI  
GAZTETXOEN  
III. TXAPELKETA**

Antolatzaile: GIPUZKOAKO IKASTOLEN ELKARTEA  
Babesle: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA  
Laguntzaile: GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALA

### BAILARAKO SEMIFINALAK

**Apirilaren 16an**, Lenitz eta Donostia bailaretako semifinalak ospatuko dira, bakoitza bere bailaran.

**Apirilaren 23an**, Goiherri eta Kosta-Urola bailaretako semifinalak ospatuko dira, bakoitza bere bailaran.

### FINALA

**Apirilaren 30ean**, azken saioa edo finala Donostian epai-mahaia aukeratutako onenarekin.

7) Bertso-paperezko txapelketak, bailaretako bapateko semifinal hasi baino ordu bete aurretik izango dira. Erabakia, ahozko finalean emango da.

8) Epai-mahaia talde aukeratu bat izango da eta maila bakoitzean txapelduna eta txapeldun ordea aukeratuko ditu.

9) Txapelketan eskuhartu ahal izateko, Martxoaren 15 arte izango da izen ematea, Gipuzkoako Ikastolen Elkaratean, barrenean erakusten dugun txartela bidaliaz.

10) Sariak ihazkoaren antzera izango dira: Txapela, Kopa, Dominak, Liburuak eta Diplomak. Sari berezi bezala, partaide guztiekin ibilaldi bat egun guztikoa.

## *Ikastola-kide bati Omenaldia edo "La sequía también se recompensa"*

Azaroaren 12an., "Real Seminario de Nobles"eko (Bergarako Ikastola) Akademikoek, bere kidea den: Jose Ramon Aiastuiri, merezitako Omenaldi Apharia eskeini zioten.

Nahiz eta interesatuak, omenaldi hau intimidadeko goxotasunean ospatzea eskatu, ebento honek hartu duen oihartzun galantagaitik, esplikazio bat emateko derrigortasunean aurkitu gara.

Benetan zaila dela heldutasun batetara iristea, zailagoa, heldutasun hau, gizabidez eramatea; eta oraindik zailagoa, heldutasun gizabidetsu hau, "Pertinazmente seca" baldin bada. Gure kideak inork baino hobeto eraman izan du aurrera bere egunerokotasuneko praxian, beste batzuei hain zaila egiten zaiguna. Eta benetan zedozer ospagarria baldin bada... hau bai baietz!!!!

Norainoko garrantzizko gizona den gure kide hau ikusteko, hor doakizue inbitatu gutxi batzuen zerrenda:

Estranjerotik:

- Don Vitto Chikagotarra, eta bere taldea.
- New York-eko Madison Square Garden-etik "El gran Audinni" mago ospetsua.

— Alemaniatik: Maikel Von Alberdinhemm, Jakintsu Atomikoa.

— Parisetik Arantzazu Narbaizée, Delapierreko Baroiaren alarguna.

— Glasgouko apezpikua den "Jesus Merria Mc. Zamora"

— Nikolas IVa Zar-aren triloba den, Justina Elexpuru-rova.

— Bergarako Ozaeta Jauregiko Kondesia eta alabia.

— Bergarako Azkona Dorreko Infanzona.

— Vienako Operatik "Gato Perez" errumberoa, bere estarletekin. Eta beste abar luze bat, toki arazoagaitik aipatu ezinezkoak direnak.

Dena dela, eta benetan harrituta utzi gintuelako Araotzeko morroia, Inazio Maria Arregi Gordoia, guk inbitatu barik kolau egin zela, aipatu beharrean arkitzen gara.

Armonia eta alaitasuna izan ziren omenaldi hontako konstanteak.

Jakin dugunez, Guinness Errekorden liburuan jasoa izan da ebentoa.

### HARPIDETZA

Izen deiturak .....

Helbidea .....

Herria ..... Tlf. ....

Adina ..... Lanbidea .....

Ordainketa era: Banketxe edo Aurrezki Kutxa bitartez

Kontu Korrontearen zenbakia .....

Sukurtsala (Ordezkaritza) .....

Aleka ordaindu nahi dut.       Urtekoa ordaindu nahi dut.

Eguna .....

(Sinadura)

## ESKOLARTEKO BERTSOLARI GAZTETXOEN III TXAPELKETA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Ikastolen Elkartek, bertsolaritza indartzea așmo nagusizat harturik, eta zehazki bertsozaletasuna eskolarteko neska-mutikoengan ernatzea helburu izanik, Eskolarteko Bertsolari Gaztetzoen III Txapelketa eratzen dute, oinarri hauen arauera:

### OINARRIAK

1) Euskal Herri osoko (Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko) ikastola edo ikastetxeetan dabilzan neska-mutikoentzat eratzen da Eskolarteko Bertsolari Gaztetzoen III Txapelketa.

2) Txapelketa bi motatakoa izango da:  
**Bapatekoa. Bertsopaperak.**

3) Maila hauek bereiziko dira adinaren arabera:

#### Bapateko Txapelketan:

- O.H.O.koak (14 urte arte).
- 14 urtetik 18 bitartekoak.

#### Bertsopaperetan:

- 12 urte artekoak
- 12tik-14 urte artekoak.
- 14tik-18 urte artekoak.

4) Proba hauetan neurtuko dira:

#### Bapateko saioan:

- a) 14 urte artekoak:
- Agurra aukeran.
  - Bertso zahar bat.
  - Lau oinak emanda zortziko txikian.
  - Puntuetan hirunaka (2 buelta).
  - Gaia jarrita bertso bat.
- b) 14 urtetik - 18 urte bitartekoak:
- Agurra.
  - Lau oinak emanda zortziko txikian bertso bat.
  - Puntuetan hirunaka (2 buelta).
  - Puntuari erantzun.
  - Ofizioko teman zortziko handian.
  - Gaia emanda 2 bertso.

#### Bertso-papereetan:

- a) 12 urte artekoak eta 12tik - 14ra bitartekoak:
- Gai baten inguruan 2 bertso idatzi, ordu beteko epean.
- b) 14 urtetik - 18 urte bitartekoak.
- Gai baten inguruan 3 bertso idatzi, ordu beteko epean.

5) Lau bailaratan banatuko da txapelketa honen eremua:

- Lenitz eta Bizkaia ingurua.
- Kosta-Urola bailara.
- Tolosa-Goiherri bailara.
- Donostia-Oiartzun bailara.

6) «Eskolarteko Bertsolari Gaztetzoen III Txapelketa» hau bi zatitan izango da:



**BAILARETAKO SEMIFINALAK**  
 Apirilaren 16an  
 Deba-Leniz  
 BERGARAN  
 Donostia-Oiartzun  
 ANORGAN  
 Apirilaren 23an  
 Kosta-Urola  
 ZARAUTZEN  
 Tolosa-Goiherri  
 ORDIZIAN  
**FINALA**  
 Apirilaren 30an  
 DONOSTIAN  
 Carmelo Bakla  
 Pilotalekuan.

**ESKOLARTEKO BERTSOLARI GAZTETXOEN III. TXAPELKETA**

Antolatzaile:  GIPUZKOAKO IKASTOLEN ELKARTEA  
 Babesle: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA  
 Laguntzaile:  GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALA

### BAILARAKO SEMIFINALAK

**Apirilaren 16an**, Lenitz eta Donostia bailaretako semifinalak ospatuko dira, bakoitza bere bailaran.

**Apirilaren 23an**, Goiherri eta Kosta-Urola bailaretako semifinalak ospatuko dira, bakoitza bere bailaran.

### FINALA

**Apirilaren 30ean**, azken saioa edo finala Donostian epai-mahaiak aukeratutako onenarekin.

7) Bertso-paperezko txapelketak, bailaretako bapateko semifinal hasi baino ordu bete aurretik izango dira. Erabakia, ahozko finalean emango da.

8) Epai-mahaia talde aukeratu bat izango da eta maila bakoitzean txapelduna eta txapeldun ordea aukeratuko ditu.

9) Txapelketan eskuhartu ahal izateko, Martxoaren 15 arte izango da izen ematea, Gipuzkoako Ikastolen Elkartean, barrenean erakusten dugun txartela bidaliaz.

10) Sariak ihazkoaren antzera izango dira: Txapela, Kopa, Dominak, Liburuak eta Diplomak. Sari berezi bezala, partaide guztiekin ibilaldi bat egun guztikoa.

***Ikastola-kide bati Omenaldia  
edo  
"La sequía también se recompensa"***

Azaroaren 12an., "Real Seminario de Nobles"eko (Bergarako Ikastola) Akademikoek, bere kidea den: Jose Ramon Aiastuiri, merezitako Omenaldi Aphia eskeini zioten.

Nahiz eta interesatuak, omenaldi hau intimidadeko goxotasunean ospatzea eskatu, ebento honek hartu duen oihartzun galantagaitik, esplikazio bat emateko derrigortasunean aurkitu gara.

Benetan zaila dela heldutasun batetara iristea, zailagoa, heldutasun hau, gizabidez eramatea; eta oraindik zailagoa, heldutasun gizabidetsu hau, "Pertinazmente seca" baldin bada. Gure kideak inork baino hobeto eraman izan du aurrera bere egunerokotasuneko praxian, beste batzuei hain zaila egiten zaiguna. Eta benetan zedozer ospagarria baldin bada... hau bai baietz!!!!

Norainoko garrantzizko gizona den gure kide hau ikusteko, hor doakizue inbitatu gutxi batzuen zerrenda:

Estranjerotik:

- Don Vitto Chikagotarra, eta bere taldea.
- New York-eko Madison Square Garden-etik "El gran Audinni" mago ospetsua.

- Alemaniatic: Maikel Von Alberdinhemm, Jakintsu Atomikoa.
- Parisetik Arantzazu Narbaizée, Delapierreko Baroiaren alarguna.
- Glasgouko apezpikua den "Jesus Merria Mc. Zamora"
- Nikolas IVa Zar-aren triloba den, Justina Elexpurova.
- Bergarako Ozaeta Jauregiko Kondesia eta alabia.
- Bergarako Azkona Dorreko Infanzona.
- Vienako Operatik "Gato Perez" errumberoa, bere estarletekin. Eta beste abar luze bat, toki arazoagaitik aipatu ezinezkoak direnak.

Dena dela, eta benetan harrituta utzi gintuelako Araotzeko morroia, Inazio Maria Arregi Gordoia, guk inbitatu barik kolau egin zela, aipatu beharrean arkitzen gara.

Armonia eta alaitasuna izan ziren omenaldi hontako konstanteak.

Jakin dugunez, Guinness Errekorden liburuan jasoa izan da ebentoa.

**HARPIDETZA**

Izen deiturak .....

Helbidea .....

Herria ..... Tlf. ....

Adina ..... Lanbidea .....

Ordainketa era: Banketxe edo Aurrezki Kutxa bitartez

Kontu Korrontearen zenbakia .....

Sukurtsala (Ordezkaritza) .....

Aleka ordaindu nahi dut.       Urtekoa ordaindu nahi dut.

Eguna .....

(Sinadura)



— Parece mentira, oyes, con todo lo que bebimos el viernes, la sez que tenía yo el sábado!

— Sí, oyes, parece mentira!

— Sí, sí!

— Ja, ja, ja!

— Oyes, qué sez, eh?

— .....

— .....

Ezkerretik eskuinera: Maikel Von Alberdinhemm, homenajeana, Gato Perez errunberoa, Don Vitto eta bere taldeko matoi bat.

Homenajeana, Glasgovko apezpikuarekin, eta noblesa guztia mahai inguruan.

# ISILIK

Plaza Amezketeta, 12 - 8.a F  
DONOSTIA



# Eusko Card

Zeure Kutxazain berezia  
egun eta gauez, edozein ordutan.



**E**z al duzu izan inoiz diru-beharririk arratsalde erdian?

Edo gauerdian?

Ez al zera gertatu diru-premian jaiegun batetan?

Behin baino gehiagotan gertatu zaizu, noski, horrelakorik: eskuartean dirurik ez eta gure kutxa hertsirik.

Horrelakoetarako, gure Erakundeak irtenbide egokia eskeintzen dizu eta EUSKO CARD deritzo, Lan Kide Aurrezkiko Kutxazain berriak, alegia.

Gure Bulegoetan zure EUSKO CARD  
Txartela eska ezazu.



**CAJA LABORAL POPULAR**

**LAN KIDE AURREZKIA**

Euskadiko Kutxa

